

EXKIXU

Txillardegi



euskal literatura

ELKAR

Liburu honen egileak Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko euskal nobelagintzarentzako diru-laguntza jaso du.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.

Azala: J. F. IGARTUA

© ELKAR S.A. Esterlines, 10 - DONOSTIA 1988

© TXILLARDEGI

Lege gordailua: NA. 774-1988
ISBN 84-7529-557-6

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

EXKIXU

Euskal Herria bere buruaz jabeturik
ikusi nahiz, beren bizia arriskatu
duten, are eman ere, atzoko, gaurko
eta biharko gudari guztiei

Egileak
Euskal Herrian, 1988ko Apirilean

Lozorroan nengoen.

Baina, ezari-ezarian, igande goizeko isil-giro luza-
korrak esnatu egin ninduen.

Bafore baten dei etsia entzun nuen, bakarra, ihes-
korra.

Ondoren, besterik ezer ez.

Geroxeago, dena dela, egunero bezala, egunero bai-
no nabarmenkiago hobe, burni zarata gailendu zen; eta,
gero eta bertago, gero eta mantsoago ere bai tankateko
ezagun hura, ia neure gela pareko geltoki hitsera zeto-
rren «Topoa» berezi nuen, errealitatera deika ari:

— Seirak eta hogeitabost —pentsatu nuen.

Eta aspaldidanik neure buruan hausnartutako ame-
tsa, eta bezperan zinki erabakitakoa, betetzen hasi nin-
tzen.

Eta batere nagikeriarik gabe, baina kontuz eta isi-
lik, jaiki egin nintzen ohetik.

Leihora hurbildu; eta oraindik ere begiak igurtzi

aurretik, eta guztiz iratzarri gabe zeudelarik, nahi ere gabe irakurri nituen, zirrikitu batetik, bi hitz aspergarri haiek: «Pasajes-Molinao». Zenbatgarren aldiz egin ote nuen bi urte t'erdi etsigarri eta luze hartan?

1970eko Urria abiatua. Zirrikitua zabalago egin; eta giroa, epel benetan igande hartan. Lanera beharrik ez! Ohizko larria ez zen etorri.

Guztiz bertan neuzkan bizpahiru emakume goiztar igo ziren bagoietara. Interbentoreak bere txilibitu zorrotza jo zuen orduan; eta tranbiatzarrak, Irun aldera zubiaren gainetik pasa ondoren, betiereko bere burdin kirrinka atsekabea barreiatu zuen bazterretan. Eta nik ere, egunero bezala, berealdiko hozkia senditu nuen.

Ekialdean pareta ilunen artetik are itsugarri ere agertzen zitzaidan zeruaren hori diztirantea.

Bikaina udazkena gure herrialdean...

Eta bat-batean jauzi egin bide nuen neure barrunbean. Aittona Antton entzun bide nuen ustekabea: halako goizaldeetan «haizea heldu» esan ohi zigun. Eta ez zen sekula nahasten.

Artean, Felix neure anaia ez esnatzekotan, argia piztu gabe jantzi nintzen bixkor. Eta ezin polikiago eta isilkiago —nik uste bederen— gelako atea ireki nuen.

Nire gelakidea ez zen zipitzik ere mogitu:

— Argia piztu banu ere —pentsatu nuen—. Hori lotia!

Eta komunean zaratarik ez ateratzekotan musua busti ere gabe, kale aldera abiatu nintzen zuzenean.

— Antton! —entzun nuen, zoritxarrez, gurasoen gelako ate zirrikitutik—. Baina, mutil, nora hoa ordu haue-tan?

— Kaka putza! —jaulki nuen ahapeka, baina behar-bada nire amak entzuteko moduan. Zergatik ez ote

du honek Felixek bezain sakonki lo egiten? Eta ez nion txintik erantzun. Zertarako?

Gelako argia piztu zen mementu horretan; eta barneko aldetik gure aitak, haserre antzean, zerbait esaten zuela antzeman nuen.

Gelatik kanpo gure ama ordurako:

— Nora hoa, seme? Aprobetxa zak igandea, motel!
Eta lo egin zak lasai, hamarrak arte edo...

Begiratu ere ez nion egin: «dena jakin behar, dena kuxkuxeatu behar, beti ere aholkutxoren bat eman behar ni naizen zozo honi... Leporaino nauka», pentsatu nuen hitzik gabe.

Aurki errepikatu zidan erregu tankerako esalditxo nekagarri hura:

— Esaidak zerbait behintzat, Antton... Amak ez al du hori bera ere merezi??

Hura sua nigan ari! Hura kiskali beharra!

— Utzazu baketan! —iritsi zen goragotik aitaren agindua.

— Ez, Hilayo! Anttonek eztauka honela joaterik — amak aitari.

Edozein birao botako nuen lasai. Baina eutsi egin nion neure herrari; eta ilunbe hartan ozta-ozta errepara zitekeen emakume-itzal zuriska hari hitz soil honetaz erantzun nion:

— Hortik!

Eta eskailera burura irtenez, atea hetsi, eta «ufff» bota nuen erraietatik.

Sakonki hartzen nuen arnasa; eta jauzika beherako hartan, gero eta zaluago abiatu nintzen. Portalerako azken eskailera-andana ikustean (hamalau ziren sotoraino, ongi nekien) hiru saltotan utzi nituen atzean.

Eta kanta herrikoiaz oroitu nintzen:

«... zeren, zeren
libertadea
zoin eder den»...

Portalera iristean giltza poltsikutik atera, eskuin aldeko ate berdeko serrailea jiratu, eta etxazpira.

Ezaguna nuen lizun eta busti usain berezi hark, barne zolaraino bete ninduen. Eta, bestetan bezala egia esan, etxe azpiko urrin bitxi hark halako hotzikara izutiak eta xixagalea sortzen zituela erreparatu nuen.

Neure bizikleta hartu nuen; neure «kuttun» bakarra zinez garai hartan. Eta askatasun-moxal hura besaburuaren gainean pausatuz, portalera agertu nintzen.

Hots, orduan ere, bigarren sospresa:

— Pero, ¿a dónde va er Anchón tan corriendo?

Groenlandiaz oroitu nintzen, Saharaz, Antartidaz... «Ama lehendabizi... eta orain Obdulio kapar hau!... Nork ez du bakardadera aldegitoko barne-oihua oraindik senditu?»

Hots, tximistak bezain fite nire barrena zeharkatuz, burutazio hits batek gainditu ninduen: «Nik baneukan bakardade hori... Ezkizubekoan... Ezkizu gurean... Baina galdu egin nuen!»...

— ¿A dónde va er Anchón? —galdetu zidan Obdulio bigarren aldiz.

Ahaztuta neukan! Nire erantzunaren zai aldameneko, nonbait. Eta hoberik ezean, hauxe esan nion garrazki:

— ¡Por ahí!

Altzatik jaitsiz geroztik, Obdulio González huraxe genuen geure «lehen auzo» berria. «De Badahó» omen zen; eta gure ondo-ondoan bizi zen. Gizon ona, fama zenez.

Igande hartan halako hulezko txano berde zabal bat zeraman buruan. Beso batetik zintzilik, otarre gorriska handi bat; potoz, beitzaz, txitxare biziz, eta amu harri-garriz beterik. Beste besoan, berriz, ia zutik atxikirik, kañabera luze pare bat erreparatu nion, bere martimui-lo diztiranteak eta guzti.

Tresneria hura guztia matxurarik gabe portaletik kanpora ateratzeko, makina bat komeria ikusi ohi zuen. Baina «badahotarra» Pasaian arrantzale amorratua bihurtua zenez, ez bide zuen iganderik batere galtzen.

Begira nengokion, patxaran, irribarre gaixto batez agian:

— ¿Cree er Anchón que ezo eh una rehpuelta?

— Voy a misa —bota nion ziplo.

Obduliok barre egin zuen algaraz. Eta ez dut uste sinetsi ninduenik. Baina, jakina, berdin zitzaidan erabat.

Eta egunero behin eta berriz zapaltzen nuen «Blas de Lezo» kale itsusira irten nintzen.

Segituan, irten ordukoxe, sotoaren ondoko garajea-ri zerion kirats berezia aditu nuen; batera burdinaz, herdoilez, koipe zaharrez eta gasolin arrastoz oratua.

Eta udazken giro epel hartan, bestetan baino higuin-garriago gertatu zitzaidan. Goiz hartan, hain zuzen, oroitzapen txarrez mukurru zetorkidan: «Hasia diagu eguna! Igande goiz eta amets kutsu ederra... kitto! Alua!»

Eta kai aldera jo nuen.

Pedalkatzeari uztean, pinoi libroari zetxekion xarata maitatua entzun nezakeen Pasaiako isiltasunean; eta kemen berria eman zidan honek.

Bide nagusira orduko, tren geltokiari ez-ikusia egin,

eskuinetara jo, Kaputxinoetako aldapan gora igo; eta herria oraindik ia hutsik zegoelarik, Errenderia gurutzatu nuen. Ibaitek, beste askotan bezala, sekulako kiratsa zetorren. Eta «Irun-Madrid» burnibidea, hutsik eta isilik, bertan behera utziz, Lezo aldera abiatu nintzen.

Egia esan bainion Obduliori: mezatarara nindoan!

Jaizkibel neukan aurrean; eta aurrekaldean alimaleko eliza horiaren figura nabarmentzen zen, bertako zaindari eskerga.

Ezker aldean, bake baketsuan zeutzan bortuko ontziak eta gruak; berak ere nonbait asteroko atsedendian murgildurik.

Zazpiak bost gutxi.

«Bapo! Garaiz iritsi nauk».

Eta oso sentsazio bitxiak bete ninduten: «berrirori ni mezatarara... aspaldiko partez... Amak baleki, poztu egingo litzateke... Gaixoa!»...

Eta handik piska batera: «Eta Obdulio berak ere hau baleki!»...

Haurtzaroko urteetan Ezkizu-bekoan, sukaldeko parretan, mila aldiz ikusitako elizatxo huraxe (eta mila aldiotan kasorik egin gabea) neure aurrean neukan. «Santo Kristo» famatuaren kaperatxoa goiztiri epeleko argi izutian mamitzen ari.

Elizaren ondoko txoko batean ageri zen momi itxurako gizon ezin argalago hartaz oroitu nintzen... Urriko goiz gogoangarri eta bitxi hartara arte, bertatik ez bata ez bestea sekula bisitatuak.

Bihotz muinean ehortzirik neraman irudi hura, historik ere, ahots marrantatu batekin batera piztu zen nigan: «bizarririk gabeko Kristo miraritsu hori behar duk beti beti maitatu, Antton». Amona Agedaren kontsei-

lua zen, hamaika aldiz errepikatua, hamaika aldiz ahan-
tzia... Ximiko bat nabaitu nuen barruan; Amona ere,
Pasairaz geroztik, ez bainuen ia inoiz ere ikusten.

Urrutira joana zen Ezkizurekin lotutako mundu hura
guztia.

Elizaren aurreko aterpetxoan, eta plaza osoan, Jaiz-
kibeldik eta Gaintxurizketatik etorririk, jazkerak ilun
eta txapelak hegazabal, baserritarrak ageri ziren nagu-
si.

Burdinazko hesarte bitxira hurbildu nintzen neure
txirringarekin; eta esaldi atalak harrapatu ahal izan ni-
tuen handik eta hemendik: «zer diok Praixku?... egia
al da alaba esposatu zaikala?... datorren asteartian Bi-
llabonako azokara azaltzekua nauk ni... zer moduz hi
lehenguan Tolosa alde hartan?»...

Pozik nengoen. Arrunt pozik. Segurtaturik. Senda-
biderik gabeko eritasunarekiko beldurra, mamitu ez ba-
litz bezala. Segurtaturik, hauxe da hitza.

Baina galdua neukan Ezkizu hartako oroitzapenak
zetozkidan trumilka, txapel itsaso hartan arrabizturik
antza. Oroitzapen zaharrak, ondikotz.

Baina, brauki, nire haragiaren haragi bihurturik zi-
ruditen.

Haurretango anitz gertakari xumerekin batera, he-
rriska beroa birbiztu bide zen mirarietan bezala. Mun-
dua bera piztu zen; urte leun haietan muga berberak bai-
tzituzten Ezkizuk, Altzak eta nire barruko amets-herriak.

Gorantza zihoan poz edo segurtasun uhin harriga-
rri harekin batera, herra olatu gaitz batek ere astindu
ninduen lazki. Zeren-eta, «nora aldatu ote ziren Ezkizu
laztan hura eta nire haurtzaroan barrena bizi-nahia eli-
katu zituzten pertsona heldu haiek? Nora aldatu ote zen
doi-doia muino-kaxkoa estaltzen zuen etxe mordoxka

txukun hura? Non ote dira nire jaiotetxea eta nire jaioterria? Non datza Altza hura?»

«Bazekiat, bai: suntsitu egin ditek!... Suntsitu egin gaitiztek!... Akabatu egin ditek dena!»...

Elizako kanpaia deika hasi orduko, barrura sartu ginen denok: bai nekazari zaildu haiek, eta bai deserrituko gazte maxkal eta mardo hau.

«Ia-ia lortu ditek dena erauztea»...

Ez dakit apaizak zer esan ote zuen. Besteei zer esan zien, alegia; ez bainuen nik jadanik, aspaldisko hartan, beste mundutako ezertan sinesten, ez eta apaizei aberrigintzari buruz mintzo direnean (batzu!) baizik sekulara aditzen. Eta, hitz batez, ez bainintzen ni igande hartan Lezoraino joan, inolako sermoi bila.

Baina, biziko banintzen, Ezkizu zaharreko iratze usaina behar nuen hatsartu. Osoki behar nuen landare urrinetan murgildu. Itoko ez bagara, aidea behar dugun eran.

Egia aitortzekotan —eta egin egingo dut— umetango baserri kutsuaren atzetik joan nintzen Lezoraino goiz bitxi hartan.

Altzara bertara ere joana nintzen aurretik; eta behin baino gehiagotan iritsia nintzen ttonttorrean dagoen elizaraino eta Ezkizu-bekoa egon zen parajeraino.

Baina auzo xarmagabe hartan, arrotz gertatzen nintzen, osoki arrotz. Ezkizuren berririk ez zuen jendea franko topatu nuen neure txango isiletan; eta hango ingurua etxez bete ahala, ezin arrotzago. Altza berri hartan ez nuen nik kristauik batere ezagutzen. Etxe-ilarak berdinak zitzaizkidan, izenik gabeak, hezur-haragizko etxeko-andere eta etxeko-jaunik gabeak. Etxeko-jaunak aspaldi suntsitu ziren. Eta, horretara, neure Ezkizu maitatu hura nolazpait aurkitzekotan, Altzatik at bilatu be-

har. Sorterrira, atzerrian...

Bi urte t'erdi hits hartan, horretara, koloka topatu nituen neure oinarriak. Pasaiake erdal kale-zuloan hogeitamar hilabetez usteldu ondoren, haize freskoa behar nuen, atsolutuki; kulpitotik bederen, eta eliztarren erantzunetan, Ezkizu-eneko hizkera entzun nahi nuen. Nolazpait eta nonbait bederen, intsentsuaren urrinak pozoindurik bazen ere, suntsitutako Ezkizu hartan bezala, ozen, gailen, nagusi... bakarra!

Aspaldi hartan, beraz, harrigarri atxematen nuen neure burua: erreta, etsita, ernegatuta guztiz. Asteak joan eta asteak jin, eta ito egiten nintzen kale-tarte gupidagabe hartan; ia beti pertsona ez-ezagunen ondotik ibilki, eta zenbaki zuri-beltz bana beste ezaugarriarik ez zuten batimendu itsusien artean nardaturik...

Sermoia hasi zenean, beraz: «oraindik ez gaituzte zeharo suntsitu» pentsatu nuen. Zertaz ari ote zen jakin ez arren.

Elizkideak ahaztu, eta «Bengoetxea» Garajejan lan-kide nuen German Errandoneaz oroitu nintzen, zoritxarrez, mehatxu batez oroituko nintzatekeen bezala:

— Tienes que superar todo eso, Anchón. Tu baserri y tu akullu han pasado para siempre. No te agarres a un fantasma. Ahora son otros los modos de producción...

Beti lelo bera errepikatzen zidan.

Alta, hau ezin uka: begi onez hartzen ninduen Germanek. Nik uste.

Hori ez zela nire suminaren kaxoa erantzun nahi nion. Zer azalduko, ordea? Neronek ez nekiela zer zen herio-suhar hura, baina etsi-behar eta ezin-etsi hura inondik ere belaskeraia ez zela?

Ni baserriko semea naiz, eta German ez. Hori da dena.

Baserri-giroa barnetik ezagutu ez dutenek ez naute konprenitzen. Ez dute fitsik konprenitzen, hobeki esateko. Eta alferrik da argudiotan denbora galtzea. Ezkizutarron herra konprenitzeko, Ezkizutarren ahaide behar da izan.

Zertarako aitortuko nion nik, hortaz, German kale-tar erdaltzaleari, Pasaian ni arrotz nengoela arrunt? Zertarako erantsiko Kopenhagen-en bera bezain deserrian senditzen nintzela ni Antxo hartan; baina ni etxetik uxatu nindutela «berek»? Alferrik zen saiatzea; eta banekien...

Txilina jo zuen orduan meza laguntzen zuen bere-
tterrak; eta neure gogoeta bazter samin haietatik behera erakarri ninduen.

Sagarakoan, isiltasun osoa nagusitu zen elizaz. Noiztenka ez-tul bat edo beste.

Eta, tarteka-marteka, guganaino heltzen ziren irrati batetikako oihartzun ahulak eta ulergaitzak: «... de interés recordar las palabras que... el pasado viernes en la Plaza de Oriente»...

Eta beste ahots bat, ahots ezagunagoa, jarraitu zitzaion: «... treinta y cuatro años que echasteis sobre mis hombros la responsabilidad de conducirnos a la victoria, a la paz, y al progreso de la nación»... Ondoren esku-zartaldi etengabeak entzun ziren.

Hitzaldi aspergarrian barrena, baserritar saiatuen buru soilek dir-dir egiten zuten.

«Hauxe behar nian!» —pentsatu nuen gorrotoz mukurru.

«Domine non sum dignus» heldu zitzaidan orduan aldaretik. Eta bi gizon-ilara eratu ziren.

Oso gaizki ez banago, meza-entzuleak oro abiatu zi-

ren aurrekalderantza. Ni ezik. Baina lotsarik batere ez nuen senditu. Lotsa? Ez horixe!

Polliki-polliki hurbiltzen ziren; beti obeditzen eta deskalabroak jasaten ohitutako jende xumeak egiten daki-
en tankera apalean.

«Hauxe behar nian!», errepikatu nuen neure kolkorako.

Haize bala bero batek zirimolatan harrotu zuen plazako hautsa, eta haren aztarnak niganaino etorri ziren hegaz.

Odola irakiten hasiko ote zitzaidan kezkatu nintzen: udazkena beti asaldagarri Euskal Herrian.

Eta neure barrutik, barneko hautsa ere harrotuz, hau entzun nuen: «Ezkizu-bekoa erauzi eta eraatxi ditek... Altza osoa birrindu ditek... «Berek», bai; mihia geldi erazi nahi didaten horietxek... Baina ez nautek ni aixa ittoko!»...

Irratitikako zantzuak entzuten ziren, eta organo musika dotorea: «gloriosos caídos por Dios y por España»...

«Hauxe behar nian!», nik berriro.

Eta gainditu ezinezko herrak ematen duen indarrak, Ebanjelioaren esanez osotara futitu arren, higuinez elikatzaera, hizkuntzaren arnasaz zuzpertzera, eta gorrotoak elikatzen duen esperantzaz gotortzera; Ezkizutar indarrak biltzera, hitz batez, umilki otoitz egitera eta barkatzera ez, baizik-eta madarikatzaera, ez deusik ere barkatzera, eta neure odolaren irakina jasotzera, Santo-Kristoko meza goiztar hartaraxe igandero joatea erabaki nuen.

Eta intsentsu urrinez inguraturik erabaki nuen hau guztia.

Zortziak aldean meza amaitu, kantu ozenak iraun-

gi, eta eliza hustu ahala, harantz eta honantz sakabatu ziren «nire anaia» haiek.

Eta Lezoko plazan ia bakarrik gelditu nintzenez, neure bizikleta laguna hartu, eta kai hutsa ezkerretan utziz, Pasai Donibane aldera abiatu nintzen.

Noizean behin baizik ez pedalkatuz, eta indar handirik gabe polliki nindoan, pentsakor.

Sendikor, hobe. Haurturik bezala. Goiz epela gogoz edoskiz, eta barrena kiskaltzen zidan sukarraren gaitzak harriturik. Asaldaturik nindoan, zorabiatu, biraotan horditurik: «Alferrik izango bada ere, mengantza ankerra burutuko diat zerri horien gainean»...

Pasai Donibaneko arkupe ilunak eta kaleska estuak gurutzatu nituen.

Noizean behin, ezkerretan, etheen arteko pasagunez bestaldera, Antxo itsusia begizatzen nuen:

«Hauxe behar nian nik», errepikatzen nuen hitzik gabe.

Dena zegoen oraindik hetsita: dendak, tabernak, «Cámara», «Txulotxo»... San Pedrorako txalupa zegoen han, bere nasan, bidaiarien zai. Jai eguna izanik ere, bera bai: berriki estekaturik, bere pasaia-lan etengaberako prest ageri zen. Eta piskanaka, lehenengo pertsona goiztar batzu inguratu zitzaizkion.

«Bonanza» aurreko plazatxoan, zuhaitz baten enborrari lotu nion neure txirringa; eta eskuz ferekaren batez agurtu ondoren, oinez abiatu nintzen «Punten» aldera.

Epela sargori bihurtua zen, eta Hego-haizea altxa. Harrigarriri urdin zegoen itsasoa; eta olatuen gandarren aparra, nigandik ihesi, edo-ta itsaso betearen egarri, Iparralderantz luzatzen zen.

Santa Isabel gaztelu zaharreko arkua gurutzatu nuen,

eta bideko hamaika istil zeharkatu.

Itsas orroa gero eta azkarrago egiten zen; eta harroka kolkoetan aurrera joaterakoan, gero eta bortizkiago bultzatzen ninduten haize balek.

«Dena ebatsi zigutek... dena izorratu zigutek alu horiek... geure etxetik bota ere egin gaitiztek jendilaje nazkagarri horiek!»...

Eta harrokeri uhin batek puzturik, berriro egin nuen neure zina: «Ez dituk aski, agian, hemeretzi urte, doi-doi-a beteak, honelako agintza larririk egiteko. Baina guretzat dena galdua badago ere, berek ere galduko dituk, eta «Exkixu»z amorrazio ezinduan gogoratuko! Zin egiten diat, alafede, alafede, alafede»...

Itsaso zabala neukan aurrean.

Eta neure deliberoaren irmoak eta kiskalgarriak la-saiturik bezala, Pasai aldera abiatu nintzen.

Antxoko hegian, kaian, geldi-geldirik dena.

Atzerago, Hegoaldean, eta muinoen kaxkoetan, Al-tzako eliz-dorrearen hizla agertu zitzaidan, tinko...

«Lepoa bihurtuko badidate ere, nire berri izango dituk!»...

Jadanik sargoria zegoen bazterretan.

Eta Blas de Lezo kaleko 16an, izerdi patsetan sartu nintzen.

Itsaso harrotuaren irudi bikainek nire barruan oraindik osoki urdin eta zuri zirauletarik, eta oraindik ere kresal usaina guztiz lekutua ez zegoelarik.

2

Bi urte t'erdi... Hogeï urte, itxuraz!
Ezkizu-bekoa... Altza... Zein urrun dena!...
... Zerbait somatua genuen etxekook, egia esan.

Hitzik gabeko afalondo hark, halere, zetorkiguna denok somatu arren, berebiziko tristura kutsua hartu zuen. Huraxe izan zen, dudarik gabe, Ezkizu-enean nik eza-gutu dudan arrastiririk hitsena. Arestian «hogeï urte» aipatu badut ere, Pasai Antxorako bide labaina ireki zuen afari goibel hura, bart gertatu zela iruditzen zait.

Oroitzapenen ditzirak argiturik, han entzun ziren hitzak oro, ikusi ziren keinu guzti-guztiak, bana errepika nitzake zehazki. Hemen nonbait, eta aurrean daukadan Pasaia bera, bere gotorrean, irudi horien aurrean ezabazten delarik.

Aurrera zihoan 1968ko Apirila.

Hozkirri oraindik. Hotz ere bai Altzako mazela ospel eta goroldiotsuetan. Amona Agedak ohera joan arte eusten zion sutondoko suari.

Egun batzu lehenago gertatutakoa, oso seinale txarra iruditu zitzaidan; eta denoi gauza bera, nik uste: ez genekien zertarako edo norako, baina zementozko horditzar zuriska bat pausatu behar omen zela-ta, gure so-roaren erditsutik, goizean oso goizik, bospasei langile topatu genituen, zanga luze eta sakon bat ebakitzen ari zirelarik. Ezkizuko ataritik ildo berri hartaraino, hamar metro ere ez zegoen.

«Zerbait» bazetorren, bazetorkigun hobe, eta ez onik; eta oraingoan ez bide zuen izurriteak inguruetan kolpatuko, hanartean egin zuen bezala; etxaurrean eta gure lur-sailean bertan baizik.

Batimendutzarren baraderaren setiaketak, gero eta bertagotik estutzen gintuen. Zementoaren olatua etxerantz zetorren aspaldidanik, Altza guztian bezala. Eta oraingoan muinean joko bide zuen.

Oraindik ni haur ttipia nintzenean eraiki zuten lehenengo «blokea». Zortzi bat urte nituen. Eta sasi-dorre zaindari hura Hegoaldean prantatu ziguten; Txoritokieta alderako bista ederra betirako erdibituz eta hondatuz.

Egia aitortzekotan, zortzi bat urtez izan genuen bloketzar itsusi hura han, bera bakarrik, inolako «lagun»ik gabe. Beharrik! Urte askotan zehar, horrela, etxerakoan, eta urrutitik Ezkizu aldera begiratzerakoan, barregarri xamar agertzen zen «bikote» desegoki hura: zementozko «zaldun» bastart eta kankailuaren ondoan, gure baserri txapala han zegoela jakinez gero, eta arretaz bilatzekotan, aisa aurki zitekeen; ezkerraldeko bere hegala, Txirritak famatu egingo zuen «Gaztelu-ene»koa bezala, eskuinekoa baino beheiago amaitzen baitzen.

Dorre erraldoiaren soto-atalburuan irakur zitekeen «32» zenbaki hark, bestalde, ez zuen esperantza-ateka zabalegirik uzten... Baina guk ez-ikusia egiten genion.

Azkar, ordea, astetik aстера gauzak okertzen zirelarik, dorre-mordoen trumila gainera heldu zitzaigun; eta iristekoa iritsi zen, eta gertatzekoa gertatu.

Lehendabizi, oker ez banago, geroenean «kalea» izango zen zabalarteaz bestaldera, «17» blokea eraiki zuten. Zenbait hilabete geroago, alimaleko multzo bat eraiki zuten; Pasai aldera hau, «1», «3» eta «5» zenbakiena. Eta gu jabetu orduko, sekula oso luzaz eteten ez zen zalaparta gorgarrien ondoren, hantxe ginduzkaten gu ere, geure Ezkizu-bekoa gizarajoan, zementotan preso.

Azkeneko bolara hartan, gartzela murriz inguratutarik antza agertzen zen gure etxea, kaleburu ezin itsusia-go bihurturik. Eta nekez antzeman zekioken segida alaitarik Arraizatarren jaiotetxe zaharrari.

Batere ezagutzen ez genuen jende txiki beltzarana azaltzen zen guganaino; eta arratsetan, baita gure lursail berean ere, tomateak eta tipulak zapalduz eta hondatuz, inguru haietan ordura arte antzekorik ez zeukaten mutilak eta neskak jolasten ziren, harrika, muturrekoka, garrasika.

Goizetan, etxetik irtetea, Lardiberriko geure lehen auzoak topatu beharrean (lekutan ordurako Lardi, Xanti, eta gainerakoak, berak ere baserria galdu ondoren kalera aldatuak), egunetik egunera ganbiatezen ziren aurpegi arrotzak topatzen genituen.

Eta ez «kaixo» eta ez «eup», gu agurtu ere gabe urruntzen ziren kale berrian behera. Ezaugarri nagusitzat istilak eta lokatza zituen «kalea», artean, «Tercio de Lácar» bataiatu zuten. Nor izan ote ziren horiek? Ez genekien.

Hura bai hitsa, hutsa eta hotza! Hura bai nazka, nire bederen. Gurea, agian.

Ingurakuntza hurbilkor hartan, bagenekien etxekook

aipatu ere egiten ez genuen arazoa halako batez leher-tuko zela...

Eta gure soroa, erditik beretik, ildo sakon batez ebaki zuten Apirileko goiz lanbrotsu hartan, ahobatez pentsatu genuen Ezkizutarrok: «gureak egin dik».

Afalondo hartan, beraz, aitak bere aurpegia harri-garriro ilundurik, eta hizkera bitxian, «berri txar bat» eman behar zigula iragarri zuenean, denok oroitu ginen goizean ikusitako zangaz eta hodia; eta denok eskierki segidan antzeman...

Felix ene anaia gaztea eta biok, hain zuzen, baserri-tik aurki aldegin beharraz mintzatu ginen buruz buru geure gelan egun batzu lehenago. Nork pentsa ote leza-ke hamazazpi eta hamabost urteko bi mutilek horrela-korik somatzen ez dutenik?

— Berri txar bat eman behar dizuet gaur —esan zuen aitak—. Ahalik eta gehienik luzatu dut mementu triste hau. Baina hemendik aurrera, ezin egia izkuta...

Ohizko zazpi mahaikideak geunden han arrats har-tan: gurasoak; Felix, Ana Mari eta ni neu, hiru senideok; Izeba Emili, «neskazarra», betidanik etxen egona, eta denean amaren laguntzaile bizkor, hau ere Arraizatarra; eta Amona Ageda zaharra, garai hartan alarguna, bere 73 urteak burutzen ari.

— Orain dela hamar hilabete erabaki genuen hau, egia esan —jarraitu zuen gure aitak—. Baina denontzako berri goibela izango delakoan, isildu egin nauzue gaur arte; gertakizuna izkutatuz.

Pausa bat egin zuen.

— Saldu egin dut Ezkizu-bekoa hau. Sal erazi egin didate, hobeto esateko. Arraizatarron bizilekua berrehun bat urtez etxe hau izan ondoren, aldegin egin behar orain. «Expropiación forzosa» dela-ta, merke eman

behar gainera: ez gara, ez, aberastuko! Baina, zer nahi duzue egitea? Hala da bizia. Iazko Ekainean egin nuen tratua.

Ume ahots pare bat entzun zen kanpoaldean, garrasi zorrotzetan ari:

— ¡Suelta ya ese balón, la hostia!

Aitari ez zion inork erantzun. Zer erantzungo? Zer erantsiko, hobe?

— Somaturik al zenuten honelakorik ezer? —aitak galdetu.

Jaiki egin zen Amona Ageda, eta goranzko eskaile-ra hartu:

— Gabon deizuela Jainkoak!

— Bai zuri ere —erantzun zuen amak.

— Bazekien dena amonak —argitu zuen aitak—.

Pentsa zazue, beraz: kolpe latza du. Etxe honetara ezkondu zen orain dela berrogeitamar urte... Hementxe pasa du bizia. Hemen alargundu zen orain dela bederatzirte, nik aita eta zuek aitona galdu genuenean. Hemen jaio gera denok. Denoi zaigu latza.

Eta tartetxo bat utzi ondoren, izeba Emilik hartu zuen txanda:

— Gabon guztioi!

Lasaiago aurkitu bide zuen aitak bere burua; eta hizkera doinua aldatuz:

— Gu bostok jaitsiko gara Pasaiara bizitzera. Etxebizitza bat erosi dut dagoeneko, Antxo-erdi erdian; nik lan egingo dudan burdin-almazenetik hurbil xamar. Eros genezakeen pisua erosi dut, noski; ez eta ahal izanez gero hautatuko nukeena. Lekua ezta, izan, politta; baina praktikua, bai. Eta alderdi honi ere begiratu behar nion.

— Zein kaletan dago? —galdetu zuen Ana Marik.

— Eztun lekua ezagutzen; Blas de Lezo deritzon ka-

lian, kaiaren ondo-onduan. Bertan izango dizkiñagu bai autobusak, bai trenak, eta bai «Topoa» bera. Inoiz zuek lanean hastekotan, etxetik bertago izango duzue lantokia, Ezkizu honetatik izango zenuketena baño.

Isil-giroa, beti bere hartan: itsaskor, luzakor.

— Eta, «gu bostok» esan duzunez, nora joango dira izeba Emili eta amona Ageda? —berriz ere arrebak galde.

— Eztiñate iñolaz ere kalera jaitsi nahi; eta Martitxipira aldatuko dira, osaba Jexux eta izeba Arantzarengana. Altzan geratuko dittun, beraz, hortxe inguruan...

Orduantxe senditu nuen garbiki zarratada larria zekarkigula soroa erdibitu zuen ildoak; eta gure egoeraren irudia zehazki idurikatzen zuela.

Pasaiarakoan baserria galtzea, eta izeba eta amonagandik bakandu beharra, uste nuen baino askoz garratzago gertatu zitzaidan. Nigan zerbait oso bihotzekorik urratzen zela erreparatu nuen. Familiaz maiz ni gaizki esaka ari, hara!... Eta gauza bertsua gertatzen bide zitzaien besteei ere; baina Ana Marik lehenengo zotinak azaldu arte, inork ez zuen han txintik atera edo begi-zirkinik agertu.

Euria hasi zuen; erruz.

Eta bat-batean gertakari xume haren zerbitzuko jarriarik, aita eta ama han utziz, gora abiatu ginen batera hiru gazteok, «leihoak ongi hetsita ote zeuden ikustera»...

Handik oso aste gutxitara, Altzako kaxkoari, eta bloketzarren atzean geldituak ziren baserri haurrideei bertirako agur esanez, tarrapataka hustu genuen Ezkizubekoa.

«Traste zaharrak» bertan behera uztea erabaki zuen

aitak. Eta moble zaharrak, eta aspaldiko kutsua zuen guztia, hantxe gelditu zen; buldozerrek paretekin batera porroskatu arte. Gainean lapitzezko gaina eta behe-rean ohol zulo borobila zituen mahai bitxi hura, hantxe utzi genuen; koloka zeuden aulki ilunak eta zizelua bezala.

Buldozerrak iristean, egun pare batean erauzi omen zuten dena. «Omen» diot; ez baikenuen guretako inork adorerik aski izan, hara igo, eta eraaxketa dorpe hura geure begiez begiztatzeko.

Eta Antxoko zulora jaitsi ginen.

Nik neuk, lan egin behar nuela-ta, 1968ko udazkenaz geroztik hasi nintzen «Bengoetxea» garajejan. Bar-kazio motxak...

Lau langile ginen. Hamazazpi urte nituen nik orduan; eta ezertxo ere ez nekien mekanikaz, gizarajo honek. Geroago ikasi nuen soldatzen. Artean, jakina, morroin zintzo, peoin-lana egiten nuen; eta mutiko sendoa omen nintzelako, egiteko gogorrek eta txarrak tokatu ohi zitzaizkidan. Etxera orduko, birrinduta normalean.

Felix eta Ana Mari, berriz, «oraindik oso gazteak» zirela bide (bi eta hiru urte adin-aldeaz!) ama laguntzen gelditzen ziren etxen. Noski: aurten ere, bi urte luze pasa ondoren, hortxe daude biak, libro, guri, maxkal, minbera; beti ere amaren laguntzaile... Baina bego hori horretan. Hobe dut.

Etsita bizi izan nintzen hogitamar hilabete triste hartan...

Eta orduan erabaki nuen Lezoko Santro Kristoren mezatara, baserritarren meza goiztarrera, joatea...

Eta atzo, horrela, Urriaren laua eta igandea zelarik, inori ezer esan gabe, barne-epel bila hurbildu nintzen

Lezora; nolazpait senitarte eta sorleku giro bila. Horretarako are alizara joan behar banu ere... Etxe-zuloko deserriaz okeginik, herri-kidetasuna behar nuen. Ito egiten bainintzen aspaldisko hartan...

Eta igande goizeko isiltasun luzakorrak esnatu ninduen.

Bafore baten dei etsia entzun nuen gela ilunetik. Eta berehala, gero eta zaratatsuago, «Pasajes-Molinao»ra zertorren «topoa» entzun nuen:

— Azkar! Jaiki hadi! —esan nion neure buruari.

Eta etxazpian bizikleta lagunaren bila joan, eta Lezorako bidea hartu nuen hego-haize giro epelean...

3

1970eko Azaroa aurrera zihoan.

Eta behin hola lantegian kulata zahar bateko azkon herdoilduak nekez askatzen ari nintzenean, mixterio handiaz deitu ninduen Germanek; eta bere arropa-armairu metalikoaren ate luzeska zabalduz, zintzilikaturik zeuzkan bere galtzetatik, itxuraz eskasa zen paper ximur bat atera zuen. Eta, harrigarria, emanaz batera, euskara eta erdara tartekatuz esan zidan:

— Tori! Gorde zak ondo, eta irakurtzak. Baina ez hemen.

Eta handik piska batera:

— Se está cociendo algo muy gordo.

Ixtante labur bat aski izan zen paper hura zertsu zen nik konprenitzeko. Igitaia eta mailua ageri ziren goian. Behereago, eta letra koxkorretan, hauxe irakur zitekeen: «Las vidas de 16 patriotas españoles en peligro. Por haber luchado por las libertades democráticas». Tartekako idazpuruetan, «Burgos» eta «militares fascistas»

hitzak nabarmen. Agiriaren sinadura bitxiaz oroitzen naiz: «Coordinadora Democrática de Pasajes».

Eta poltsikuan sartu nuen ezer esan gabe.

— Ale gehiago nahi baldin baduk —Germanek, euskaraz berriz— esaidak; eta mordoxka bat lortuko diat. Zerbait egin behar diagu denok.

Ez nion ezer erantzun.

Eguerdian, lanetik irteterakoan, elkarrekin baxoerdi pare bat hartzea proposatu zidan. Eta orduan mintzatu zitzaidan garbikiago:

— Tú todavía no te das cuenta. En Burgos se va a dar, por fin, la ruptura con el nacionalismo burgués. Ha llegado la hora de una estrategia realmente revolucionaria, de la única verdadera; de la que parte de que la clase obrera es una por encima de naciones, lenguas y opiniones...

Ez nion kaso handirik egiten. Arrotz zitzaidan hizkera hura, atsekabe, nardagarri osotara: «gure lagun maiteak, ‘demócrata español’ bihurturik... Tira, tira! Aski genian!»...

Baina arratsaldean, berriro heldu zion hariari:

— Zer? Irakurri al duk? Ale gehiago ekartzea nahi al duk?... Abenduaren 2an zabaldu behar dizkiagu; datorren astean, beraz. Pasaiko portaletako buzoi guztiak bisitatu behar dizkiagu. Baina, hago lasai: guretako bakoitzari kale pare bat baizik etzaiok tokatuko. Eta etzegok arrisku handirik; hasi baño lehenago, inguruetan grisen ‘jeep’ik ote dagon begiratuko ditek gure lagunak bi kale-muturretan... Ordu erdi batian, kitto!

Ez nuen nik ezer esaten:

— Zer diok, Antton? Bai, ala ez?

— Ez —erantzun nion zakarki.

— Ezetz? Zergatik ez, ordia? —Germanek niri.

— Orri hori goitik behera erdaraz datorrelako.

Hori esan banuen, esan nuen... Alajainkoa! Hura erdal erretolika oparoa nire kontra:

— Ya suponía yo que eres un sentimental pequeño-burgués... Te lo diré más claro: tú eres, objetivamente, un burgués; y te limitas a hacer el juego al enemigo de clase... Pero, eso sí, hablando una lengua muerta...

Sekulako zauskadak nabaitu nituen neure barrunbean. Baina ez nuen ezer erantzun. Hizkera dotore hura ez nuen ongi ulertzen; eta ez nekien nola eman zitekeen arrapostu egoki bat, eta erdara dotorean. Erantzun bakarra muturrekoka hastea zitzaidan. Eta hura ere...

— Mila esker, mutiko! —eztenka nahian—. Lasai! Hi gabe ere moldatuko gaittuk... Erdaraz bada ere...

Gure etxean, beste askotan bezala, «La Voz de España» erosten zen. «El Diario Vasco» baino «hobea», omen... Sekula ez dut jakin zergatik edo zein alderditatik...

Eta biharamonean, ordura arte sekula egin ez nuen egin nuen egun hartan: bazkal ondoan bakarrik gelditzean, «Editorioala» irakurri nuen arretaz.

Berehala hasiko omen zen epaiketaz mintzo zen. Burgosen zen ospatzekoa.

Artikulua gezurrez josirik zetorkeela uste nuen. Hura prediku okaztagarria! «El mal más grave que amenaza a toda comunidad civil es, siempre, la violencia sistemática ejercida por quienes, al amparo de supuestas ideologías, no tienen el menor reparo en apelar a métodos terroristas...»

— Eta zuek? —galdetu nuen.

«La sociedad española, apoyada en sus leyes, en su autoridad, en sus Tribunales de Justicia, debe defenderse

de quienes la atacan... Pedimos al Señor que a todos ha de juzgarnos, que ilumine a los jueces de Burgos para que la justicia resplandeza»...

«Amen» erantsi nuen.

Eta kaseta hura mahai ganean uzterakoan, lehengo begiraldian itzuri zitzaidan titulu txundigarria erreparatu nuen: «¿Ha sido secuestrado el cónsul alemán en San Sebastián? Anoche desapareció de su domicilio». Eta aurrerago: «Hay indicios de que el señor Beihl pueda ser víctima de un secuestro de ETA».

Albistek dar-dar utzi ninduen. Eugenio Beihl Schaefer kontsularen fotoa zetorren barruko orrialdeetan.

Nire pozaren handiak norbaitekin hitz egitera bul-tzatzen ninduen. Norekin, ordea? «Zergatik ez ote du gure aitak aipatu ere egin ezer bazkaritakoan? Betiko izkutukeria! Orain dela aste batzu ere, Elosegiren sur-tako jaurtiketa kanpotik ikasi nuen. Ez etxen. Ez ote ze-kien berria gure aitak?» Isildu-behar itsu hark sutu egi-ten ninduen: «Areago kiskaltzen nau isiltasun horrek edozein solasek baino».

Ezin nezakeen Beihl-en ekintza ahantz: «gaitza izan du kolpea! Aparta! Orain Burgoskoen bizia segurtatu arte, ez ditek aleman jauntxoak askatuko»...

Eta pozez gainezka abiatu nintzen garaje aldera; oraingoan Germanek zer asmatuko ote zuen jakin mi-nez...

Agur ziztrin bat hasteko. Eta bera haserre bizian, hau: «Una vez más tus amiguitos nos han cortado la dinámica de masas».

Hura amorrua!

Ni, bizkitartean, eta egia esateko: zorutzen!

4

— Pozik egon haitteke! —bota zidan Germanek bi-haramonean, eztenka nahian.

— Zer, bada? —nik.

Berak ere gogoan zituzkeela uste nuen kontsularen gorabeherak, iñoxo honek.

— «Zer bada» diok? Ahaztu al zaik, hortaz, bart «buzonada» egin behar genuena? Hiri bai, itxura de-nez; baina guri ez.

— Ta? —nik.

— Erraza duk somatzia, ordia: kontsularena dela-ta, bazter guztietan zeudean bart txakurrak buru-belarri; eta ezin izan genian zabalketa egin. Horra! Horra hire lagunen balentrien fruitua!

Erabat ahaztua zitzaidan, egia esan, paperen zabalke-tarena. Hala ere, kontsularen bahiketa eta izkutaketa ekintza ezin aproposagoa iruditzen zitzaidan; zeren-eta, beste biderik ba al zegoen bada hamasei aberkideak sal-

batzeko? Eta disimulatu ezinezko pozkarioak betetzen ninduen.

German, aldiz, haserre bizian bigarren aldiz.

Gure arteko arroila gero eta sakonago agertzen zitzaidan. Gertakariak mamitu ahala, bi mundu desberdinetan mogitzen ginela ageri zen. Nik ez nuen bera konprenitzen; eta berak ni ere ez.

Presoekiko jarrera berotuz zihoan herrian. Alde zeudenak, gero eta aldeago atzematen nituen; eta aurka zeudenak, era berean, gero eta kontrago.

Irratiz eta prentsez entzuten eta irakurtzen nituenak oro, ez nituen nik hitzetik hortzera sinesten. Gezur asko zabaltzen zela nengoen etsita; baina Londres eta Parisko irratiak genituen gertakarien bideratzaile. Egia batzurekin nahasirik, propaganda lotsagabea besterik ez ziren lelokeriak zabaldu ziren egun haietan: URSS-eko sindikatoek agiri bat atera zutela euskal presoen alde, adibidez; edo-ta preso honek edo hark marxista-leninistatzat jo zuela bere burua Tribunalaren aurrean. Zernahi! Baina, auskalo!

Prentsa ofizialaren esanek, batetik, eta kanpoan hedatzen zenak, bestetik, oro har, zalantzatan gelditzera bultzatzen ninduten. Nola sinets, esate baterako, frankisten ikusmoldea: «Hace cuatro o cinco días se publicó en esta columna un artículo editorial en el que denunciábamos que el pueblo vasco, los jóvenes estudiantes y los trabajadores, estaban siendo engañados... Denunciábamos que una confabulación en la que entran elementos radicalizados del separatismo, grupos activistas del comunismo y los fariseos de siempre, han montado una campaña de agitación que puede tener graves consecuencias para toda la comunidad, tomando como pretexto el proceso de Burgos»...

(Horiek hori esaten badute —pentsatzen nuen nik— bazekiat egia zer ez den)...

«Euskal Herria —ekiten zuten— es la raíz más honda, la esencia primera de la nacionalidad española». Eta ideiak borobiltzekotan, etorkizko bikote gogoangarri hurra: «Vasconia es madre de Castilla y abuela de España». Amonatasun bitxi horrek barregura galanta ematen zidan. Baina... brometan ibiltzerik ez zegoen: Eibarren Abenduaren 4ean zauritutakoa, hil egin zen. Heriotza hori «senditu» egin omen zuen Gipuzkoako gobernariak. Baina sendimendu horrek ez zion Pérez Jauregi gazteari bere bizia itzuli.

Abenduaren hamarrean, eguerdi irian, izeba Emili agertu zen gure etxera. Ezkizutik aldegin genuenez geroztik, «Martitxipi»enera bildu ohi ginen Arrazatarrok Eguberriz; eta gure izeba Gabon-gaueko afariari buruzko xehetasunak zehaztera omen zetorren.

«Omen» esan dut; zeren-eta hizketa-gaia berehala aldatu baitzen bestetara:

— Zer diok orain, Hilayo? —galdetu zion aitari.

— Zer nahi dun ba esatea?

— Orain garbi geldittu duk. Gutarrak dittuk horiek erroetaraño. Ala ez?

— Nor?

— Burgosko neska-mutillok!

Gure aita isildu egiten zen normalean horrelako kinketan. Geroxeago, halaz ere, amore egin nahi ez balu bezala, atzera egiten zuen:

— Bai. Azkenian, heriotzaren erpia hurbil senditu dutenian, prediku jakintsuak alde batera utzi eta bihotzaren zolatik sortzen zitzaien «Eusko Gudariak» kanta-

tzeko beharra senditu ditén. Baina...

— Oraintxe esan duk: «bihotzaren zolatik etzekiat zer»...

— Bahunan garaia!

— Lehenago ere bai, Hilayo. Lehenago ere abertzale hittuan horiek. Gazteak dittuk, ordia; eta, zer nahi duk, abertzaletasuna beste modu batera senditze'ittek, eta ez gure garaikoek bezala...

— Eztun adin kontua bakarrik.

— Zer etzuten karkak esan zuetaz? «Gorriekin bat» egin zenutela... Ala hori ere ahaztu zaik?

— Eta Burgosen entzun diren «vivan los trabajadores españoles» eta gaiñerako txatxukeriez, zer?

— Egia al da, ordia, hori esan dutenik? Zer dakigu?

— Parisko irratiak kontatu din.

Izeba Emili, iruditzen zitzaidanez, berotuz zihoan:

— Etzekiat nik politikaz gauza handirik. Baina heriotzako pena gañian izan, eskuak katez eta grilluz loturik; eta, hala ere, militarren aurrian, kostata aulkitik jai-ki, jendearen aldera itzuli aurpegiak, eta ukabillak altxatuz «Gora Euskadi Askatuta» bota ondoren, «Eusko Gudariak» kantatzen hasi... ba, mutillak, egin egin behar duk hori!

— Gure gazteak asaldatzera etorri bahaiz —amak moztu— hobe dun oraintxe hanka egittia!

Hotz bala batek gurutzatu zuen jangela.

Izeba Emilik, orduan, hizkera mota aldatu zuen arrunt; eta Gabon-gaueko afariaz puntu pare bat baietsi zuen.

Eta «Gabon» soil bat esanda, joan egin zen.

Ez nintzen ni izebarekin erabat ados. Baina eztabaida hura interesgarri izan zitzaidan oso.

— Sorgin horrek seme-alabak izan balitu, etzükian

horrela hitz egingo...

— Ixo! —aitak.

Betikoa: «Ixo! Umiak aurrian!». Benetako arazoez hitzik ez. Leporaino nindukaten; amak bereziki: «Kontuz! Zuhur ibili»...

Oherakoan, eta nola edo zergatik ez dakidala, zailantza bat sortu zen nigan bat-batean: nola ote zekien izeba Emilik hura guztia?... Ez ote zegoen zerbaitetan «sartuta»?

Eta harekiko halako mirespen isila nigan hozitzen ari zela erreparatu nuen.

Eta bihotzondoan, ximiko baten itxuran, beldur apur bat senditu nuen.

Santomasak iritsi ziren horrela, aidea bera gelditurik zirudielarik. Eta guk, Antxoko Arraizatarrok, Martitxipirako prestakuntzak hasi genituen hirugarren aldiz.

Osaba-izeben baserri hura ez zen, izan, gure etxea. Lurreldez Altza barruan egon arren, desberdin xamarrak ziren Martitxipitikako bista eta ingurua, eta Ezkizutikakoak. Niri dagokidanez, gainera, «izeba Emilirena» zen baserritik, nahiko beherean bazen ere, Martuteneko ibarra eta auzoa ikus zitezkeen; baina... Pasaia-ko arrastorik ez.

Hots, Pasaia gorroto nuen nik. Martitxipitik urrun somatzen zen oraindik Altza ito duen etxegintza eroa. Bestela esanda: neure jaiotetxearen inguruan dastatutako belar, zuhaitz, isiltasun eta bakardade kutsu bera dasta nitzakeen Martitxipi-enean. Hots, horietxek zitzaizkidan, hain zuzen ere, gero eta beharrezkoago.

Nerabe garaian, oraindik ere Ezkizu-enean bizi ginenean, sarritan hurbiltzen nintzen Martitxipiraino. Ba-

rruki zahar hura maite nuen. Hauxe egia. Nahiz osaba Jexux, bertako etxeko-jauna, nik batere gogoko ez izan (zehazki zergatik ote zen oraindik ez banekien ere). Egu-
rrezko habe eta gapirio haien babesean, arnasa hartzen nuen 'gostian' (aittona Anttonen hitzez esateko); eta etxazpian gordetzen zen aziendak hedatzen zuen usain sarkorrek, horditu bezala egiten ninduen.

Osaba Jexux, Ereñozuarra jatorriz, Urdanpilleta deituraz, gure aita baino zaharragoa zen (1916koa osaba, aita berriz 1921koa zelarik). Hogei urte besterik ez zue-
nean, gerratea egin zuen Euzko Gudaroztearekin, Bizkaiko frentean. 1937an Santoñan preso erori; eta hiruzpalau urte pasa zituen gartzelan: «El Dueso» delakoan gehienak, oker ez banago.

Gure aitak, gazteago zelako, ez zuen 36ko frentea ezagutu.

Nigandik urruti oso antzematen nuen osaba Jexux; urrunago, egia esan, gerra egin ez zuen gure aita baino. Ez dut uste isilpean kuotarik ordaintzen zuenik, Alderdiaren kuotarik, alegia. «Ezertan sartzen» ez zela esan behar nuke, berak erabiltzen zuen hizkera erabiliz. Osoki irmo eta ziur mintzo zen bere buruaz, baita iraganaz eta geroaz ere. Zalantzatan egotea zer izan ote daitekeen ez zekien gizon hark. Eta Euskal Herrian azken urteetan jaio eta agertzen hasia zen gazteria borrokalariari buruz, erabat uzkur agertzen zen.

«Horiek gabe ongi jaioak gintezkek», pentsatzen nuen nik. Berak, alderantziz: «ero horiek gabe, baketan gintuzkek» esango zukeen.

— Zer dakizue zuek gauza horietaz? —galdetu ohi zigun harro-harro—. Intxortan zer gertatu zen ba al dakizue zuek, gazteok? Ez dakizue, ezta? Hortaz, ixo!!

Eztabaidak horretara lerratzen zirenean, joan egin

ohi zen Izeba Emili. Josu, berriz, nire lehengusuak («Josu frailea», gure artean deitu ohi genuen berberak), ez zion normalean ezer erantzuten. Gutxitan etortzen zen Martitxipira Arantzazutik: «diziplina, badakizue... ezin dugu nahi duguna egin». Ikernek, Alaznek eta Jonek, berriz, hiru lehengusu-lehengusinek, ezer ez.

Iñaki Urdanpilleta, ni baino urte pare bat zaharra-
goa, ez zen aisa kikiltzen; eta haserretu ere egiten zi-
tzaion. Eta bero-beroan erantzuten:

— Nola nahi duzu, aitta, guk ezer jakittea, han izan ziñatenok ezer azaldu ezpadiguzue? Geldirik egoteko esan zizuen Francok, eta zuek geldi egon zerate eztaikit zenbat urtez. Ixiltzeko agindu zizuen, eta zuek xeru-xeru isildu zarete...

— Hi, hi, kontuz hitzokin! Aittarekin hitz egiten ari haiz! —izeba Arantzak ebakitzen. («Arrazoi duk», erantsiko nukkeen nik. Baina isilik egoten nintzen).

— Egon lasai, motel! —ekiten zion osaba Jexuxek bere patxara ernegarrian—. ¡Tranquilo, coño! Aldatu egingo dittuk gauzak pixkaka. Itxaron egin behar.

Eta orduan, beste askotan bezala erdarara aldatuz:

— ¡Calma! Los jóvenes siempre tienen demasiada prisa: queréis que el niño nazca con barba... Astiro! ¡Despacito y con buena letra!

Iñaki, bere amorrazioa nekez disimulatuz, isildu egi-
ten zen.

Nire lehengusu hori bospasei urtez egona da Lazkaon frailegai. Familia beran bigarren frailea zen, egia esan. Baina geroztik Josu Arantzazutik mogitu gabe bazegoen ere, Iñaki, behin ere garbiki konprenitu ez dudan istilu batengatik, irten egin zen Lazkaotik. Bere buruz irte-
na, ala goikoek bota zutelako. Gaur ere ez dakit. Eta Martitxipira bihurtu zen.

Hots, eta itxura zenez, ene osaba Jexuxek ez zion urrats «itsusi» eta «koldar» hura inoiz barkatu. Eta gerroztik ez ziren aita-semea behin ere ongi moldatu.

— Hik beti saltsak gogoko —esan ohi zion—. Hortxe dauzkak heurak, ba. Nahasketa galantak ari dittuk montatzen bazterretan; eta, noski, arrantzale pizkorrek berentzat biltzen. Ez guk. Eta ez zuek ere. Berak ari dittuk biltzen, «La Pasionaria»ren lagunak, los de la dictadura de la alpargata. Konprenitzen al nauk?

6

Ene ustez, Arraizatar bi ahizpengatik joaten zen aita Martitxipira. Bestela gizon harroxo hutsal hura jasan beharra... Eraman egiten gintuen etxeko guztiok Eguberriko festetan, eta kito. Bestela ez dut uste bera maiz joango zenik, eta gu are gutxiago. Ez zuen hori horren gordinki aitortzen, jakina; baina aitak ere, nik bezalaxe, guk bezalaxe, harroputz eta iñoxo antzematen zuen bere koinatua.

Eguberri bezperan, eta izeba Emilirekin elkarraditu bezala, eta afal-tokamen gisa, gure amak prestatu zuen Pasaikook eraman behar genuen arkumea; eta goiz xamar, arratsaldeko laurak alderako, «Seat 600» zuri kaxkarrean, estu-estu elkargainka pilaturik, gu bostok abiatu ginen gorantz.

Abenduaren 24 hotz hartan, Eguberri urria inguruetan. Bitxi somatzen zen dena Euskal Herrian, dena zai bailegoan; baita ilunabarreko aidea ere, harrigarria: perlesiak jota bezala. Dena geldi, eta elurkara.

Askoren aurpegiak (ez guztienak) ilun: zer gertatu-ko ote zitzaien kontsulari eta Burgosko hamaseiei?

Afaltzerakoan, eta osaba ezagutzen genuenez, egu-neko kezka gairi nagusia aipatu gabe utzi behar genuela nabarmen zegoen. Harritzekoa al zen, egia esan, Blas de Lezoko etxean ere, Pasaian, hiru aste luze hartan ia ia sekula aipatua izan ez zelarik?

— Arratsalde on! —bota zuen aitak Martitxipiko ataritik, gure ondotik etorri ziren zakur zuri beltz itsusien zaunka zorrotzak pitin bat moteltzean.

Simaur usainaren azkarrak, behingoan, haurtzaroraino eraman ninduen.

Erantzunik ez barrutik.

— To! Bitxia duk hau! —aitak.

Eta barrura jo genuen, behien agurra luzatzen ez zelarik.

«Ken hortik, zakur arraioa!» —esaten zien aitak oihuka; amaren lapikoa bertagotik usaindu nahiz, hurbildik zerraizkigun zakur goseei.

— Kanpora hemendik, esan dizuet! Utz pasatzera, koño! Hau lana!...

Harritzekoa: familiakorik inor azaldu ez.

Amona Ageda etorri zitzaigun erdi ilunbe hartan. Kostata! Azkeneko aldiz ikusi nuenez geroztik, hiru hilabete paseak agian, konkortuago eta makalago topatu nuen. Zer gertatu ote zitzaion hain azkar zahartzeko?

— Oraintxe etorriko dittuk hiru nagusiak —esan zuen—. Segi aurrera, bai; segi lasai... Donostiara juan dittuk Jexux, Emili eta Arantza. Gazteak, berriz... pentsa dezakezuen, hango eta hemengo Olentzero-taldeetan irten dittuk, eta ezittuk oraindik hona azaldu.

Eseri egin ginen sukaldean; eta saltxitxoi xerra batzu jaten eta sagardo edaten hasi.

— Berri txarrak izan dittugu, ba —ekin zuen gure amona xaharrak—. Gure Iñaki desagertu egin da orain dela hiru egun; eta Donostiako Komisarian ote dagoen galdetzera joan dira. Bi gurasoek joan nahi zuten, jaki-ña; baña Emilik ere bai, azalpenak zuzenki entzun nahi zittuela-ta.

— Zer dela-ta «desagertu» —gure amak galdetu.

— «Zer dela-ta» galdetzen dun? Joan den astelehenez geroztik ezpaittu hemen iñork ikusi. Gero eta ixtillu handiagoak dizkiñagu, bestalde; eta guri ere, zorigaitzez, txanda tokatu ote zaigun beldurrak. Hori dun dena.

— Eta ezer espezialik esan al zizuen Iñakik azkeneko aldiz ikusi zenutenean?

— Pasaian topatu omen ziñaten batzuk joan den astelehen arratsaldian, bidoiez eta gomatikoz «Norte»ko estazioaren ondoko kamiño nagusia moztu nahian. Gazte jendia omen zegonan nagusi. Geroztik, kitto. Etxera azaldu ez... Beste batzutan ere honelako zerbait gertatu izan dun, eta ez gintunan oso larrittu. Baña oraingoan luzeegi joan dun.

— Gizaajoa! —bota zuen ene arrebak. Eta hitz hura entzutean, kolpe latza senditu nuen. Eta ahapeka nik erantzun: «Alu zerriok!».

— Baña, hortaz, «erori» egin a! da Iñaki? —nik galde.

— Etzekiagu, Antton. Agian izkutatu egin duk hor nonbait.

Abendu itogarri hartan, denok estaltzen gintuen bana-bana hatzaparkaden olatu berriak. Ez zegoen dudarik. Disimulatzeko arrazoinik ere ez: berriro genuen kan geure buruen gainean beste «estado de excepción» haietako bat.

Berebil baten zarata entzun zen sukaldetik; eta harri legar hotsa, eta freinu tenkada zakar bat. Berak ziren, noski:

— Zer? Zer berri? Ezer jakin al duzue?

— Lasai! ¡Tranquilos! —esan zigun osaba Jexuxek kotxearen atetik beretik—. Han eztagoela esan digute Gobernuan; beraz, lasai... Egon egin behar orain gure mutillak deittu edo norabait agertu arte.

Eta doinua aldatuz:

— Horrela ikasiko du horrek mundua zer den.

Ezintasunezko keinu bat egin zuen izeba Emilik. Ni sutan nengoen, edozein astakeria botatzeko zori-zorian.

— Vamos a cenar —agindu zuen osabak—. ¡Tranquilos! ¡No hay que perder nunca la calma!

Afaltzeko batere gogorik ez zeukala esan zuen izeba Emilik, eta izkutatu egin zen bere gelara.

— Ziur al hago, Jexux? —galdetu zion ene aitak—. Nola dakik, egia esan, heure semia han eztagoena? Egia esan ote ditek horiek?

Ezin aproposagoa zen galdera.

— Bai, bai. Lasai egon gaittezek. Horretan ez titek zertan gezurretan ibilli beharrik. Gure semea izkutatu egin duk hor nonbait. Eta etorriko duk.

Eta jangelarantz abiatzen zelarik:

— Lasai, mutillak! ¡Tranquilos! Ahora a cenar.

Ez nekien nik azkenean zozo kirten baten aurrean ote nengoenez; ala, benetan, bere semea guk baino hobeki ezagutzen zuenez; ala ene lehengusua izkutuan zigortu nahi zuenez... ala, benetan (eta hau ez nuen sinetsi nahi, egia aitortzeko) egoera gogorretan, Altzako 'yogi', bere buruaren jabe egotea lortzen duten gizon zaildu horietako baten aurrean ote geundenez.

Nolanahi ere, nazka senditzen nuen, ezin gaindituz-

ko nazka; harroputza, ustela, eta zozoa iruditzen baitzitzaidan batera nire osaba.

Ikerne, Alazne eta Jon lehengusuak, anaiaren desagertetzat itxuraz behintzat kezka handiegirik erakutsi gabe, Altzako baserrietan barrena kantari ibili ondoren, bateratsu heldu ziren Martitxipi-enera.

— Kantari ibilli gera, bai; baña korrikalari ere bai...

Denok gauza bera konprenitu genuen, baina inork ez zuen tutik galdetu. Giro galanta genuen...

Eta eseri egin ginen izeba Emili gabe.

Bost zahar eta sei gazte ginen. Josuk abisatu zueenez, Josu «fraileak» alegia, 26ra arte ez omen zeukan Arantzazu uzterik.

Multzo polita gintezkeen, hala ere, etxe-giroa bestelakoa izan balitz. Baina gure hartan nekez lor zitekeen ezertarako umore onik.

Intxaur salda azkarra prestatua zigun amonak, ohi bezala, eta hartatixek hasi ginen. Etxetik eramanez arkume erreka aterata zuten gero, baita oilasko erreka patatekin ere. Eta, bukatzeko, sagar erreak, dexente beztuak; eta ahi gozoa.

Fite jan genuen dena, eta 'ausarki' edan, aittona Antton zenak esan ohi zuen bezala esateko. Sagardo eta ardo botilak, azkar joan ziren; eta txanpaña botila pareare ere berdinean. Oso diztirante jarri ziren Jon eta Ana Mariren begiak, eta beroien mihiak piskanaka askatu. Gazteenenak, alegia. Beste guztionak, berriz, ilun, astun. Pentsa: Martitxipira bildu, galanki edan eta jan, eta hala ere kanta alerik entzun ez. Noiz halakorik? Mututasun hartantxe genuen frogarik nabarmenena... Kutsu txarra ezin disimulatu.

Eta Pasaiara jaitsi ginen.

Gaueko hamaikak baizik ez ziren. Antxoko kalee-

tan, ez zegoen inortxo ere.

Gerlan-edo bagina bezala.

— Non ote da Iñaki? —pentsatzen nuen nik ohean—. Nondik nora sinets lezake inork jendilaje horiek esandakorik ezer?... Osaba zozoa da; edo alu berekoia...

Hantxe neukan, ondoan, Felix anaia; eta berehalaxe hasi ziren lo-zurrunga burrunbatsuak:

— Ezer gertatu ez balitz bezala... Hori gibela!

Ni, berriz, ezin loakar. Hura ezin egona!

Eta jaiki egin nintzen:

— Iñakiri ere «tokatu» ote zaio?... zer tokatu ote?... finegia zen gizajoa...

Eta leiho-berinetako lausoaz kanpo aldera begiratu nuen: huts-hutsa zegoen andena. Eta hantxe, beti bezala, argiturik, «Pasajes-Molinao» letreroa ikusi nuen, bi-haramoneko lehenengo «topo» goiztarraren zai.

Pittin bat nekatu arte egon nintzen han prantaturik, gela barnetik so, pentsakor.

Eta hamaika t'erdiak erlojuan ikustean, ohera bihurtu nintzen, loak hartzeko esperantzatan...

... Eta ilunpe isil hartan, Iñakiren ahotsa, eta algarak, eta keinuak, bururatzen zitzaizkidan; eta haur denboran elkarrekin Altzan bizi izandako pasadizu arruntak...

Zaratarik ez inon.

— Beharbada jo-eta-jo ari zaizkio putakume horiek hor nonbait!

Eta taupadak azkartzen zitzaizkidalarik, baztertu ezinezko moduan etorri zitzaidan gogora antzinako gertakari lazgarri bat...

... Iñakirekin pelotan jostatzen ari nintzen batean, bi mutiko harroxko elkartu zitzaizkigun; erdaldunak

biak, eskola-lagun izanak. Altzara berriki heldutako familia horietako seme ziren. Eta Iñakiren eta neronen kontra hasi ziren kaxkoko frontoian. Partidua galdua zeukaten, 20 eta 5 gure alde, edo horrelako zerbait, 22tan amaitzeko.

Biotako bat ondotik pasatzerakoan, Iñakik «a posta» bultzatu omen zuela-ta, lurrera. Bigarrena orduan, ernegatuta, gu bioi mehatxuka hasi zitzaigun:

— Vascos asquerosos, os vamos a matar a todos...

Urte pila joana geroztik: sei, zortzi agian... Hitz doi-lor haien oihartzuna, aidean bide dabil oraindik.

Borroka hasi da. Eta lurrera oraindik ez zen bigarrena, Iñaki lehengusuaren ukabilkada zakar batez, lurrera ere bai. Izutu egin naiz:

— Gogorregi eman diok. Zorua buruaz jotzean, kolpe-hots itsusia entzun diagu. Ez zaik iruditzen?

— Gogorregi nik horri? Zerri horiei gogorregi nik? Utikan! Geure herritik gu uxatzia, gu guztiok akabatzia, normal zaiek... «Por el imperio hacia Dios». Odolian zeramakitek!

Ume arteko borroka hura ez zaidak inoiz ahaztu. Eta irratian eta eskolan entzunda genuen esaldi anpurus hura ere ez...

Martitxipi-enean hori kondatu zuenean, ikaragarri haserretu omen zitzaion nire osaba Jexux:

— Halako batez, sekulako jipoia hartu behar duk hik, iñoxo horrek...

Eta oroitzapen haietan erdi lotan nentzalarik, oso urrutitik itxuraz, geltokiaz bestaldetik, gazte talde bat entzun nuen, kantari:

«Olentzero joan zaigu
mendra lanera,

intentziyuarekin
ikatz egitera»...

Posible oten zen oraindik inor etxera gabe gora eta behera ibiltzea?

Jauzi egin nuen zoli ohetik, eta andeneko erlojua begiratu: ordu bata ia-ia. «Ezina duk!». Ordura arte baserriz baserri ibilirik? Iheska agian, bide txigorretan zehar etorria? «Zerri alubak!»...

Baina garkulu txiki bat egin nuen, eta bezperako egoeraz oroitu, eta garbi ikusi nuen:

— Ez duk posible. Edo irratiren batetik heldu zaizkidak oihartzun horiek, edo ametsetan ari nauk...

Hots, gogoeta horiek bukatu ez al nituen, berriro ahots multzo bera, oso urrutitik ari:

«... gaztañak erre artian,
gaztañak erre artian,
txipli-txapla-pun»...

«Sirocco» pasa ondoren ihintz hozkirria bezala pausatzen ziren hitz haiek ene belarrietan. Lezoko baserritar aurpegi zailduz oroitu nintzen, eta baretu ere bai:

— Ez negok bakarrik! Ez gaudek bakarrik!... Ez hago bakarrik, Iñaki! Eutsi!

Eta izenez baizik ezagutzen ez nituen Izko, Gorosti-di, Onaindia, Dorronsoro, gizauren haiek guztiak, neure gau betean entzun nituen ozenki:

— Eutsi! Ez hago bakarrik!

Espero ez nituen kanta hunkigarri haiek erabat barretu ninduten... eta gaztetango Altza irribarretsu hartara hegaldi isilean eramán... Zehatz-mehatz ikusten nuen berriro neure herri zahar eta maitatua; eta Ezkizu-bekoan pasatako Gabon-gau zoriontsuen giro leun bihozkorra, harrigarriro dastatzen...

Berriro, ustegabeán, 1958an bizi nintzen; aittona Anttonekin pasako genuen azkenekoa.

Ni haur ttikia nintzen. Pentsa! Lehengusu eta osaba pilo bat bildu ginen Ezkizu-enera, Martitxipikoak barne. Ereñozutik etorri ohi ziren bi izebak, eta Biriaturtik gugana heldu ohi zen «ttantta» zaharra; «frantsesa» gure artean. Hirurak hilak geroztik. Hilik daude. Eta agian tristeago dena: gure artean ez dira sekula aipatu ere egin.

Eta hegaldi leunean Ezkizu-bekoara joanda, bezpera alai eta anaikor hura dastatu nuen berriz.

Olentzero potoloaren bisitaren ondoren, afariari ekin genion.

Xaharkiturik, baina beti ttente eta argal, eta oso erne oraindik, nik oso maite nuen aittona Antton izan genuen mahaipuru. Legezko bere izen-deituraz nire kide zehatza zena (ni harena, hobeki esateko), bera ere Antton Arraitza baitzen, 1958ko Eguberrietan ere figura gailena bihurtu zen.

Amona Agedaren senarra, etorri handiko gizona zen; eta benetako bertsolari maila aitortzen ez bazitzaion ere, hiztun iaioa zen, eta zirtolari nekagaitza. Adarra jotzen hasiz gero, beldurgarria zen.

Denen gainetik, nik uste, gauza batek ematen zion berebiziko pena; hain maiz ahotan erabili ohi zituen Txirrita, Marrus, Arrues, Azaldegi, eta gainerako bertsolari herrikoiak, benetako kide gisa ezin tratatu izanak.

Aittona Anttonek inguruko istorio guztiak zekizkien; eta berari esker dakit nik, garai hartan oso gazte izanik ere, aspaldiko «Altzáa»-ri buruzko kontu zaharra franko.

Senitarteko Gabon-gaueko afari haiei, berak erasten zien bixigarria.

Orain dela bost urte hil zen gizarajoa, ordea, nik hamalau urte eskas nituenean.

Aitonak ez zekien bertso berririk asmatzen. Baina urte haitan baserrietako sukaldeetan eta azoka-eguneko tabernetan errepikatzen ziren bertso guztiak, buruz zekizkien; eta bere eskuetara erortzen ziren bertso-paper guztiak, arreta osoaz gordetzen zituen. Dena zekien buruz; eta hutsik gabe ahots egokiz kantatzen.

Urte hartan sekulako euri-jasak eta trumoiak entzun genituen afaritakoan. Eta giroaren eskasak zirikatzen bide zuen aittona mintzaraztera.

Eta berehala hasi zitzaigun kantari:

«zer dirala uste dek
ardoaren saltsak?
bart nola ibilli aizen
akordatzen al zak?
komunera juanda
galdu zaizkik galtzak,
ezkontzeko egindako
oialezko beltzak»...

— «Txirrita», entzun zen batera afalkideen artean.

Bertsoen eta gertakari xelebreen soka lotuta zegoen:

— Ba al dakizue Txirritari behin zer gertatu zitzaion?

— Auskalo! —batak.

— Hari? zernahi! —besteak.

Eta aittona Anttonek hariari eutsi:

— Kalera joan da Txirrita, Donostiara. Aspaldian illundurik. Eta berandu ote zen jakin nahiz, kaleko norbaiti galdetu: «Aizu, zer ordu da?». Eta arrapostua derrepente jaso: «Amarrak amar gutxiago». Eta Txirritak orduan, eztenka nahian: «Ortaz... batez!»...

Haiek algarak!

Txirrita famatua ez nuen nik ezagutu, jakina, istorio haien bitartez baizik. Zoritxarrez! Ni jaio baino aisa lehenago hil zen bera aldameneko Gaztelu-enean.

Eta Altzako bertsolari giro harrigarri hura neure begiez harrapatu eta ezagutu ez nuelako, agian, xarma berezia hartzen zuen pasadizu xingle haien kondairak.

— Segi, segi —eskatzen zioten orduan aitonari.

— Hara! Orain dela urte batzu, bospasei agian, bazihoan hemendik «Aldarix» adiskidea...

Eta kondaira moztuz, eta gu umeoi begira, galdezka hasten zitzaigun:

— «Aldaritz» baserria non dagoen ba al dakizue zuek?

— Baietz, aitona! —denok, garrasika—. Segi aurre-
ra!

— Tira ba! —ematen zuen amore. Eta kondairari
ekiten—: Bazihoan, beraz, Ameriketarantz Aldarix adis-
kidea. Eta, despeira egokia egittekotan, larogei bat la-
gun bildu gara Otxoki-enera. Hortxe, zera... nola azal-
duko nizueke nik?

— Baietz! Badakigula! Ametz-gañaren ondoan.

— Alzatik harutza urruntzen zen laguna nola agur-
tuko genuen eta, neroni bururatu zitzaidan soluzioa: afal
ondoren, beraz, ondoko bertso hau kantatzea:

«Motel, Amerikara

juan beaukala ik —ahots xorrotzez ari—

sentimentu aundi bat

artutzen diat nik,

bañan esperantzetan

natxiok oraindik,

alkar joko degula

nundik edo andik»...

— Bapo aittona! Bejondeiola!

— Bertso hori —aitonak galde— argitu beharrik ba
al dago? Txirritarena da. Ba al zenekiten?

Erantzunik ez oraingoan.

— Ongi ezagutu al zuen berorrek Txirrita hura? —
galdetu zion orduan Iñaki lehengusuak.

— Ongi, ongi... horixe etzekiat! Baina makiña bat
aldiz topatu izan diat Altzako sagardotegietan. Pena-
garria yuan azkeneko urteetan: bere bi makuluen gañian
ere, mogitzeko... nahiko lan! Oso kostata ibiltzen yuan.
Ezpaitzen harritzekoa: 140 kilo zeukean!

— Alajainkoa!

Eta orduan aittona Antton jaiki egin zen, bere pol-
tsikutik patrika xahar bat atera zuen; eta foto horikka

bat gure artera zakarki bota:

— Atzeko aldean letu daiteekenez, 1932koa da fotua. Egizue kontua!

— 26 urte juanak —erantzun zioten gaxteek berehala.

— 26 urte, bai. Martillunen aurrian egiña da. Erdian baldarki exerita dagoen potolo hori, Txirrita duzue. Bere ezkerretan «Gaxtelu» dauka. Ikusten? Bazter guztietara laguntzen zion koiñatua, Xaturdin Erauskin egiazko izenaz. Oso ezaguna... Barka! Gu zaharrontzat oso ezaguna! Ezkerretara, berriz, hurrengua, gezurra baddirudi ere, flakuxka itxusi hori, ni nauzue; orain baino gazteago, hori bai... Eta zutik gure atzian ageri diren bi morroxko horiek, Arrieta eta Garmendia, biok bertsolari familiakuak.

Erronda osoa egin zuen foto xahar hark, eta sortu zuen interesa ez zen axalekoa. Ume purtzila nintzen ni oraindik; baina gaurtxe ere oso ondo oroitzen naiz foto ximel ximur hartaz.

— Xaturdiño hori eta Txirrita, etxe berian bizi ziren, Gaztelu-enean. Mutiltzar amorratuak biak. Gerra aurreko urtietan karruan ateratzen zuten Gaztelu-enetik; eta modu horretan garraiatzen zuten eztaietara eta gañerakoetara. Milla festatara deitzen baitzuten Txirrita.

— Gizarajoa!

— Halere, ezindurik ere, etzuen iñoiz bere umore ona galtzen. Eta bere buruaz ere galanki trufatzen zen.

Baina aittona Anttoni han eta hemen entzun nizkion istorio guztien artean, batek eman zidan zauskadarik bortitzena. Eta sekula ez zait ahaztu.

Marrusek berak kondatu omen zion.

Bigarren karlistada hasi gabe zegoelarik, hantxe, Al-

tzaan alegia, errezebitu omen zuen behin Marrusek Santakurtz apaiza, beronen partidarekin; eta gau batez ondoko bordan etzaleku eman ere bai. Inoiz aitortu ez bazuen ere, Altzaatik aldendu zen batzutan gerra garai hartan. Nora ote? Fama zenez, Santakurtzekin batera eta bestera ibiltzera.

Hots, beste behin, oraindik zutik dagoen Mirazune sagardotegi horretantxe, Marrus mutikoak topatu omen zuen Xenpelar famatua; eta bere belarriez aditzeko parada ukan zuen. Zer iruditzen zaizue?

Barne zirrara bat senditu nuen nik. Gertakari batzuren berri higatua jasorik, arrunt aspaldikotzat jotzen bainuen nik garai hartako guztia: Santakurtz apaiza, Xenpelar bertsolaria, eta abar. Karlista gerrateko mundu hura, etxen batzutan aipatua izan arren, antzina eta osotara suntsitutako aitonaren mundua zitzaidan.

Neure aurrean neukan gau hartan, ordea, aittona Antton. Eta beronen lagun batek, bigarren karlistada hasi baino lehenago (kontuak atera!) Xenpelar bera Mirazunen, hortxe etxe ondoan nolazpait esateko, kantari entzun zuela jakiteak, zurturik utzi ninduen. Elkarketa hark giza-kate luze baten katenbegi bihurtu ninduen. Eta denboraren joanaren zorabioa senditu nuen lehenengo aldiz; eta, une berean, barne-barnetik, neure hankak Altzaako lur-sailetan sustraiturik neuzkala...

Fama zenez, maiz xamar igotzen zen hara Xenpelar famatua; eta, beraz, halako batez baliteke gure Ezkizubekoara ere sartua izatea... Jakin egingo zuten etxeoek, horretara balitz... Xenpelar, Marrus, Txirrita... Altza bide zen orduan Euskal Herri bertsolariaren hiriburua. Eta susmo honek harrotu egiten ninduen...

... Zergatik ez nekiela, erloju-kanpai hotsak entzun nituen, eta... esnatu.

Eta hausnarketa eta gogoraketa liluragarrien soka etenda, Felix anaia topatu nuen neure ohearen ondoan.

Lo sakonean zetzan, beti bezala, zurrunga, lasai asko. Zergatik ez ba?

«Topo»rik ez. Eguberri bezpera.

Jaiki egin nintzen, eta leihora hurbildu. Kanta az-tarnarik ez. Zirrikitutik begiratu, eta geltoki hutsean inor ere ez. Zorua blai. «Pasajes-Molinao» letreroa agiri, alferrikako argitan diz-diz. Erlojuan, hirurak. Hostorik gabeko adaska ihar busti batzu, istiletan dardarizoan: «hotza zegok, nik uste».

Eta, ustekabean, horrelakorik inolaz ere espero ez nuelarik, larridura muzina azaldu zen nire aurpegira. Elkarren segida zolian, bi tximistek gurutzatu zuten ene arima, ilaran bi kolpe zatar emanaz, eta hanarteko gogoeta leunak errotik eta behingoan erauziz: non ote zebilen Iñaki? Zertan ote ziren Burgosko hamaseiak?

Hura bai ahantzi ezinezko Eguberri gaua! Hura bai goiztiri berankorra!

Ondoko asteburua luzea izan zen.

Pasaian tentsioa gora zihoalarik, antxintxiketan hedatu zen albistea: agertua zen Beihl kontsula. Onik eta osorik agertu, eta Eguberri egunean zirudienez. Eta non agertua? Eta Wiesbaden-en! Alemanian bertan.

Iparraldera jotzen zuten zurrumurruek. Are zehazkiago: kontsula Montorin Zuberoan egona zela esaten zen Pasaian; eta pijaman leiho batetatik ihes egin ondoren, bertakoek eraman zutela jendarmeengana...

Xehetasun hauek umore txarrean jarri ninduten. Alde batetik, nola jakin zitekeen hori guztia horren azkar? Eta bestetik: zergatik epaiketa ezagutu baino lehenago kontsula askatuko? Egon egin behar zuten, ene ustez, kontsula preso atxikiz; eta Burgosen inor kondenatze-kotan edo hiltzekotan, orduan, bertatik bertara, behar bezalako arrapostua eman, eta Beihl garbitu. Eta kitto.

Irrati bidez ezagutzen nituen Montzonen eta Anai Artearen hiru baldintzak: heriotzarik ez Burgosko epai-

ketan; nolabaiteko amnistia ETAko preso batzurentzat; eta poliziak ordu batzutan ez-ikusia egitea muga gurutzatuko zutenei.

«Ongi duk, bai», pentsatu nuen. «Baina non dira segurantziak? Fazisten hitza sinetsiko ote? Otoi».

Eta Martitxipiz oroitu nintzen, eta osaba Jexuxez... Gauza bera? Urduri nengoen, oso. Jauzkor, haserrekor, zainetan. Eta ez nuen inorekin hitz egiteko gogorik. Baina etxen egoteko ere ez.

Anaia gelditzen zitzaidan. Baina anaiak, zer senditzen ote zuen funtsean? Zer konprenitzen egoera nahaspilatsu hartan? Batean eta bestean, nik baino gutxiago.

Astelehenean (hau argitu beharrik ba al dago?) ez nintzen garajera azaldu. Goizean goizik, hara gaberik ere jakin nuen Bengoetxea garajeak ez zituela bere atea zabaldu ere egin.

Beste lantegi askok ere ez. Eta herria geldirik agertu zen.

Bizpahiru lagunekin, eta oinez, joan-etorria egin genuen Errenderiraino. Han ere geldiketa giro bera: igande goiz batez egon zitekeena. Bera, bai; baina isilago eta hutsago.

Denok geunden zai.

Geure etxen ere bai, nahiz inork ezer esan ez. Irratia eten gabe piztuta (amak artean bizpahiru aldiz itzalduraren); eta aita, almazenera joan gabe, disimuluan entzule arretatsu. Zer egingo ote zuen Diktadore zaharrak?

Iñaki gizarajoa, artean, erdi ahaztuta!

Arratsean, eguna ilundua zelarik, berri lazgarria zabaldu zen bazter guztietan. Nik neronek ere, neure be-larriez entzun nuen komunikatu ikaragarri hura.

Irratilariak, beldurrak bailegoan, oso laburki eta oso

bitxiro, erabakia irakurri zuen: «En relación con el Juicio Sumarísimo que se sigue en Burgos contra dieciséis encausados por terrorismo, la sentencia que acaba de conocerse es la siguiente: Gorostidi, dos penas de muerte y treinta años de prisión; Uriarte, dos penas de muerte y treinta años de prisión; Izco de la Iglesia, dos penas de muerte y veintisiete años de prisión; Onaindía, una pena de muerte y treinta años de prisión; Dorronsoro, pena de muerte; Larena, pena de muerte; Abrisqueta, sesenta y cuatro años de prisión; Echave, cincuenta años de prisión»...

Ez nuen besterik entzun nahi. Ezin!

Eta kalera irten nintzen:

— Nora hoa, ero hori? —esan zidan gure aitak garrazki—. Argi ibilli! Egoera eztuk txantxetakua!

— Kontuz ibiliko naiz. Lasai!

Blas de Lezo kaleko sotoetatik hitzerdika mintzo zen jendea, eta madarikazio atal itoak baizik ez ziren gugana heltzen. Orduantxe ari zen berria inguruetan zabal-tzen.

Kalean, berriz, pertsona bakar batzu, inor ez ia-ia. Ezindurik itxuraz; «grisak» eten gabe pasatzen baitzi-ren harantz eta honantz bazter guztietatik.

— Mañana por la mañana —entzun nuen neure aldamenean— temprano, a las seis, en la cuesta de Capuchinos. Habrá que cortar la carretera como sea. Pero ahora no. Somos pocos. Véte a casa... Etxera, bai!

Ez nuen gizon sendo hura ezagutzen. Berak ni ere ez, seguru asko.

Irundik zetorren trena gelditu zen kaiaren ondoko geltokian. Baina inortxo ere ez zen hartatik jaitsi, ez hartara igo. Etxe ondoko kaleak kurritu nituen gora eta behera: Zumalakarregi, Amarretxeta, Javier Markina...

Inor ez! Ikaratzeko modukoa zen.

Ilun hartan, are beltzago eta itsusiago iruditu zitzaidan erreka, eta inoiz baino kiratsago.

Biharamonean, seietarako preseski, hantxe nengoen ni, Kaputxinoetako aldapan, zai.

Felix ere bai! Anaia, bai; bera.

Gazte jende pila zetorren emandako elkartokira, botilaz eta gomatikoz horniturik, batera Pasaiatik, Lezotik eta Errenderitik. Hain gazte ez zirudien jendea ere bazetorren guganantza, erruz: makilak eskuetan batzu, esku hutsik gainerakoak.

Ez ziren «grisak» oraindik azaldu. Beharrik! Eta egitekoea azkar zihoan:

— ¡Rápido!... Aguro!... Enbor hori hona, azkar!... Telefonika bobina horiek, pirritaka hara, eta han laga, beherean!... ¡No encendáis todavía esos neumáticos, coches!...

Sekulako barrikada eraiki genuen aldenik alde. Eta gauza bera gertatzen zen une hartantxe Gipuzkoako ha maika puntutan. Ez kamioirik, ez kotxe alerik... Hura xe iruditzen zitzaigun bide-mozketen frogarik onena. Itxuraz bederen: dena gelditua.

«Aquí no trabaja hoy ni Dios», hemen eta han entzuten.

Luzuriagarako bidean, pikete batzu sarrerak eta irteerak zaintzen ari.

Eta orduantxe, zazpiak baino lehentxeago, «berak» agertu ziren, «txakurrak» alegia. Donostiatik zetozen; eta beren faro luzeak pizturik zeramatzaten. Motoreak burrundara gorgarrian entzuten ziren, eta Bidebietako aldapatik beretik nabarmen gugana hurbiltzen. Pasaia «garbitu» nahi bide zuten bidenabar.

Gu aldapan behera Errenderia aldera korrika, zeharkako kaleetan izkutatu ginen multzoka. Beldurrak geunden, dudarik ez. Baina ausartenak harriak bildu, eta kale kantoinetan kokatu ziren.

— Goazen barru aldera, Antton —proposatu zidan anaiak—. Atzetik itzuliko gaittuk etxeraino. Eziñezkua izango duk aurki —bere dardarizua nekez disimulatuz mintzo zitzaidan.

— Ni behintzat bania! —ekin zuen ahots harrigarri—. Ni bania! Jota natxiok!

Irrati bat entzuten zen gure inguruan: «... el orden ha sido restablecido en Rentería, donde un grupo de revoltosos había intentado...»

— Gezurra! —bota nuen goratik.

Ezagutzen ez genituen portaletan izkutatu ginen. Berehala ikusi genituen kamioien argiak, kaleburua zeharkatzen ari. Urrun zegoen eguerdia, eta hotza zegoen.

Eguerdiko manifestazio-deia, hamabietarakoa, «Pannier Fleuri» jatetxearen parean egina zen; erreka kiratsaren ondoko kamino nagusian. Ehunka geunden zai, multzo txikitan, zahar eta gazte.

Eta esandako tenorean, erloju-kanpaiak entzuten hasi ordukoxe, bapatean, kale-kantoi guztietatik batera, galtzarara agertu ginen, isixilik... eta, planto! Bertan «eustea» zen kontsigna.

Hura ametsa! Hura lokamutsa agian!

Ezkizu-bekoaz eta Iñakiz oroitzen nintzen. Eta batera betetzen ninduten pozak eta beldurrak.

Berehala, ehun bat metro Pasai aldera, «berak» agertu ziren. Dozenaka, ehunka nik uste. Eta, beren isku-luak tiratzeko moduan prestatzen zituztelarik, bidea hetsi

ziguten. Eta hantxe geneuzkan, ilaran, guri begira.

— Aurrera! —agindu dute gure aurretik.

Geure besoak elkarri lepoen atzetik pasa, eta abiatu egin gara. Banituen nik neure aurretik bospasei manifestari lerro.

Lanbro artean, zuri somatzen zen Jaizkibel gaina; eta etxeetako teilatuak berak iristen bide zituen elurrak. Gure artean, halere, izerdi usain azkarra nabaritzen nuen nik.

— Aurrera! —berriro, aurreko aldetik.

Lehenengo lerroan zihoazen lagunez tematu naiz. Emakume zahar batzu deliberatuenak, oihuka eta goraki aurrean ikusten zituzten gris kaskotuei hika mintzo.

Bozgorailuz helerazi zaigu mezua:

— ¡Tienen ustedes medio minuto para disolverse! —entzun da garbiki.

Isilik gu, baina aurrera oso poliki ibilki.

— ¡A por ellos! —entzun da metro gutxitara.

— Eutsi! Eutsi! —gure artean.

Korrika amorratuan abiatu dira txakurrak guganantz, bizpahiru lerrotan agian, eta leherketen eztandak hasten zirelarik. Gure artean erori diren ke bonba batzuk, sekulako eztulgalea eman digute. Baina ez gara askatu.

— Eutsi!

Sekulako ukaldia hartu dut ezkerreko besaburuan, metalikoa antza; eta korrika abiatu naiz, atzeraka, han eta hemen eteten hasten ziren giza kateen artetik, garrasi jarraikorrari ezin eutsirik.

Banaka batzu balkoietan, xeletan.

Hura oinazea! Abenduaren 29 hartara arte, oinazea eta gorrotoa batera bortizki senditzea zer zen ez nekien.

Zerbait, hezurren bat, nik dakita zer, puskatu ote zidaten beldur ni.

Etixerakoan, hala ere, ez nuen gertatutakoa aipatu nahi: «azalpenak eman behar orain... hori falta diagu!»

Eta zer esan gabe, gelara sartu naiz.

— Zer gertatu da han? —galdetu dit Felixek. Eta nire min-muzin hura erreparatu duenean, fite du konprenitu:

— Eman ditek ala?

— Horixe eman!... Kulatakada gogorra, uste diat. Enintzela allegatuko uste nian. Ez ezer esan, ordea. Badakik!... Amari falta zitzaiona!

— Ez, ez. Lasai egon, alde horretatik. Afaltzera etorriko haiz?

— Geroxeago ikusiko diat.

— Medikuren batek ikustia nahi al duk?

— Egon, egon. Pasa egingo duk... Geroxeago erabakiko diagu.

— Nik neuk —Felixek— hanka egin diat. Egia. Zer nahi duk?

— Gogorra izan duk, bai. Eztidak ezer azaldu behar, gañera. Ama non da?

— Etxen etzegok ñor. Martitxipira juan ote dira. Badakik: aittak etzian eguna hemen pasa nahi.

Biharamonean hobekixeago zegoen ene besaburua, nahiz sekulako ubeldura agertu. Ikutu ere ezin; baina hobeki. Kolpe hutsa, nonbait.

Ez nintzen lanera joan. Orokorra zen greba; bezperan baino hobea agian. Noiz arte iraungo ote kinka gaizto hark? Inork ez zekien.

Arratsean, ordea, tximistaren habailan, hitz bakar bat zabaldu zen bazterretan: «Indultados».

Urtezaharrez, irrati guztiek eman zuten hitzaldi berbera. Xaharkiturik eta herbaildurik, lelo bera errepikatzten: «De nuevo, como otros años, en estas fiestas familiares, ante el umbral del nuevo año, me dirijo a vosotros para que a cada hogar español llegue el eco de mi voz con un mensaje de esperanza y felicidad para toda la gran familia española... A España llegan las salpicaduras de los aires de convulsión que vive el mundo»...

Hura erretolika aspergarria!

Azkenean bakarrik: «... Las clamorosas y multitudinarias manifestaciones de adhesión que me habéis ofrecido, y el inmenso plebiscito de adhesión en la Plaza de Oriente de Madrid, han reforzado nuestra autoridad de tal modo que nos facilita el hacer uso de la prerrogativa del indulto...»

Ez nuen besterik entzun nahi:

— Izorra hadi!! —bota nuen ozenki.

Afaltzera gindoazelarik, etxeko atean jo dute. Tarta bat eskuetan, Urteberri ona desiratzen zetorren izeba Emili:

— Propio etorri naiz hau ekartzera! Urte berri on Jainkoak! —Eta bati eta besteri musuka hasi da—. Badakizue, noski, zergatik indultatu dituzten...

— Oso bero zegoen herri hau, eta jendea hoztu eta desmobilizatu egin behar zen —erantzun du aitak.

— Bai, zera! —moztu du izebak—. Alemaniak esijitu dik hori: Beihl-en bizia salbatuko bazen, Francok etzeukean beste erremediorik.

Gurasoen isilak aztoratu egiten zuen:

— Ez al dituzue ezagutzen Anai-Artearen baldintzak ala? Irratiz jakin erazi zizkiaten orain dela egun batzu.

— Bai —erantzun nion nik, bakarrik.

Izebak xehe-xehe azaldu zizkigun hirurak. Nik sinetsi egiten nituen. Besteek ez, nik uste.

Eta ia-ia garrasika ari, izebak ekin:

— Hala ere, beste berri on bat ere ematera eta ospatzera etorri naiz. Iñakik deitu digu telefonoz; eta ‘ongi eta seguru’ dagoela abisatu.

Jauzi egin dit barrenak, eta ‘ongi eta seguru’ errepi-katu dut nik, ia oharkabeen.

— Ospa dezagun, beraz!

Eta izebak moltsatzarrean zekarren txanpan botila erakutsi digu:

— Ufi!

— Eta non dagoen edo, eztu esan? —nik galde.

— Etzekiagu, Antton. Baiña, badakik: bestaldian dagoela esango nikek nik.

Eta kortxoa kentzen ari zenean, hotzikara bat senditu dut bapatean: «Martitxipin ez zegok telefonorik. Nora telefonatu du, hortaz? Nola zekien berria izebak?». Baina isildu egin naiz.

Ez dut uste txanpañik inoiz gogozago edan dudarik; eta edango dudarik ere ez. Hura poza! Alai eta baikor nengoen, aspaldiko partez.

Gurasoengan uzkurtasuna somatu zuen izebak, isilaldi luzakor haietan aisa antzeman zitekeenez. Eta alde egin zuen:

— Urte berri on, berriz.

— Bai zuri ere.

Afal ondoan, logelara sartzean, Felix anaiari esan diot:

— Begira zak hau!

Eta bi besoak gurutzatuz, eskuinekoa ezkerrekoaren azpitik pasaturik, gizon helduengandik ikasia nuen kei-

nada «itsusi lotsagaldu» hori egin dut bi aldiz:

— Izorra daitezela!

Une berean, barne kraskada mingarria senditu dut besaburuan: «Alua!». Guztiz nekez jasan nezakeen oina-
zea:

— Oso minbera oraindik, ezta? —Felixek.

Piskanaka beratu da mina ohe epelean. Eta loakar-
tu egin naiz.

Egun batzu joan ziren. Eta nire susmoak mamitu. Osaba Jexux eta izeba Emili propio horretara joanak, Donibanen elkartu ziren Iñakirekin:

— Bihar ama etorriko duk. Bakarrik egon nahi omen dik hirekin.

Ondo omen zegoen. Lanik gabe oraindik, jakina. Donibane erdi-erdian omen zeukan bere lo-lekua, Anai-Artearen etxebizitzan.

Jendarmerian presentatzean, galdera batzu egin omen zizkioten; modu onean, dena dela. OFPRA-ren erantzuna heldu artean, hilabeterako «récépissé» delakoa eman zioten, eta... kalera!

Sinetsi ezina zitzaidan.

Garajea, betiko martxan. Ahalik eta gutxiena hitz egiten nuen Germanekin; eta horrela hobe.

«Neure» baserritarren mezari bi hilabete luzez edo utzi ondoren, udaberriaren lehenengo zantzuak harta-

raturik, itxuraz, Lezora bihurtu nintzen igande goiz hozkirri batez.

Nigan zerbait aldatu egin zela erreparatu nuen. Pozik nengoen han, hori bai; baina aurreko hilabeteetan baino hutsago izan zitzaidan giroa.

Meza bukatutakoan, bestean bezala bizikleta neure besoaz bultzatuz plazan presarik gabe luzatzen nintzelarik, meza emalea zen On Jexux Bereziartua apaiz gaztea hurbildu zitzaidan; eta, aspaldidanik ezagutu banindu bezala, ustekabean bota:

— Kaixo! Aspaldisko honetan etorri gabe, eta gaur azaldu haiz. Ezta hori?

Egia esan, pigura arraroa neukan nik, kaletar honen, baserritar zaildu haien artean. Hori baino okerrago; Ezkizutarra izanik, ez bainaiz sekula osotara kaltetartu.

Hala ere, nire etortzeari utzia niola apaizak bere buruz erreparatzea... gehiegitxo, ez da hala?

— Bai —erantzun nion—. Egia duzu. Eguberriz geroztik edo, enintzen hona azaldu.

— Bazekiat, bai. Konturatu egin nauk.

Nire aurpegian muzinen bat nabaituz edo, bere jorkabidea azaltzeko beharra senditu bide zuen:

— Ez hadi kezkatu, mutil! Ongi ezagutzen diat hire familia. Josu hire lehengusua batez ere.

— Zein Josu? —nik.

— Nor izan daiteke, ba? Josu Urdanpilleta, Martitxipi-enekoa, frantzizkotarra, hire lehengusu propioa. Azkeneko hilabeteotan, Arantzazutik Atotxara aldatu dutenez geroztik, maiz xamar ikusten diat.

Handik jaitsia zenik ere ez nekien.

— Beraren bidez jakin diat hire berri, hain zuzen. Eta orain dela hiru aste, gutxienez, hementxe neukean

pardeltxo hau, hi azaldu zai, halako batez eskuz esku emateko esperantzan. Josuren esanetara, interesgarri ger-tatuko zaik.

Eta liburuxka berde bat eskuetara zidan. Kaxkarra, itxuraz; zaharkitua, orri gutxitakoa, eta paper eskasez egina.

— Hemen daukak, beraz. Gustatuko zaik, nik uste.

Eta azalean, zeharka idatzirik, eta argazki borobil higatu baten azpian, hau irakurri nuen: «Txirrita-ren Testamentua, Tomo I; 5,00».

Harrituta geratu nintzen.

— Beste bat bazegok —ekin zuen On Jexuxek—, osoagoa, dotoreagoa, lortzeko ere errazagoa, «Auspoa» Sortak orain dela zenbait urte argitaratutakoa. Baina nik neuk, zahar hau nahiago diat. Eta hik ere, oker ez pa-nago, nahiago izango duk bilduma txiro hau, gaurko apañago horiek baino. «Bertso papera» kutsua dik.

Eta itsumustuan zabaldu orduko, hau irakurri nuen:
«Illbeltz illaren ogeita seyan,

San Polikarpo eguna,
makiñat jende Antxo aldera
pausua eman duguna»...

Blas de Lezo kalea, Bengoetxea garajea, «Pinturas Beissier»en ondoko erreka beltz kiratsa... Txirritak eza-gutu zituen, beraz...

Ez nekien erregalia hura nola eskertu:

— Milla esker, On Jexux —ia ustekabean nik esan.

On Jexuxek opari hura erruz gustatu zitzaidala erre-paratzean, liburu ekartzeari eutsi zion; eta hurrengo igandeetan, «uztekotan» bakarrik, dena dela, eta ez le-hendabizikoa bezala «betirako ematekotan», Bera-Mendizabalen hiztegi bikoitza eman zidan, orri-multzoa

saihetsetik gorri-zurikoa; eta, honetaz dexente lagundurik, euskaraz irakurri nuen xeheki, neure bizian lehenengo aldiz. Besteak beste, Etxaideren «Joanak joan» ezagutu nuen, eta Etxahun gizajoaren patu hitsa; Txillardegiren «Leturiaren egunkari ezkutua», Miren, Joseba; Loidiren «Amabost egun Urgainen», izugarri gustatu zitzaidana; eta beste zenbait liburu. Etxaide gertatu zitzaidan zailena, euskaldunena. Etxaideren hizkerazailtasun hartan, hain zuzen, poztu egiten nintzen.

Nik uste nuen baino «gorago» zegoen euskara. Gure hizkuntzaz gauza interesgarriak eta modernoak idatzi direla jakiteak, berebiziko konfiantza eman zidan, eta harrotasun piska bat ere bai.

Neure hizkuntz jakinduriaren urritasunaz orduan jabeturik, espiral-karnetatxo bat erosi nuen; eta hartan apuntatzen nituen liburuetan topatzen nituen hitz ez-ezagunak. Esaera jatorrak ere bai, jakina; askotan Altzako zaharrei bakarrik entzunak. Ni baino zaharxeago den Juan Mari Irigoien herrikideak ere, Josuri behin entzun nionez, nobela bat prestatu omen du, euskaraz. «Irakurri egin beharko»...

Lantegitik irtetean, hitz batez, baneukan bolada hartan zer eginik: arratsero etxera bil, eta euskara neure kasa ikas.

Hitz-aspertu galantak izaten nituen Lezoko erreto-rearekin, hizkuntzari buruz normalean; eta, batetik eta bestetik, «jantzi» egin nintzen apur bat, nolabait esateko.

Zelebrea xamar gerta badaiteke ere, bertsolariekiko nire jaiera itsu hura, Ezkizun bertan jaso, pittin bat ematu eta hoztu egin zela aitortu behar dut. Zeren-eta, azken funtsean, eta apurka ulertu nuenez, nolako maila izan zezaketen nekazari ez-ikasi haiek? nolako maila beroien esanek eta lekukotasunek? Etxen bertan ikusia

nuen gazte denboran senitartekoen artean.

Eta «Txirritaren Testamentua» bigarren aldiz irakurri nuenean, beste jarrera uzkurrago batetik egin nuen. Erdarakadak topatu uste nituen barra-barra, eta haseurretu ere egiten nintzen. Zertara zetorren «mutil malizioso» hura? zertara «eztira basta bi ordu»? zertara «emakumiak lasto petresto»? Ezina ote da, hortaz, horiek euskara jatorrez esan?

«Zeruko Argia» erosten nuen astero, eta bertako idazleen hizkera goitik behera miatzen.

«Harri eta Herri» irakurtzen saiatu nintzen. «Oso ona» zela esan zidaten. Baina erdarakada haiek atzera eragin zidaten. Euskara euskalduna nahi nuen nik, landua, garbia, borobildua; zaila ere bai, baina erdal kutsurik gabea, gurea. On Jexuxek halako batez opari gisa, «betirako», eman zidan Orixe-ren «Mireio»ren tankerakoa.

Nire eguneroko hizkeran ere, «zerbait» nabaritzen bide zen; zeren Felixek berak, anaiak alegia, ohar hau egin baitzidan:

— Baina, nondik kristo ikasi duk hik «igaro» zera hori?

Gure «gabon pasa» esan beharrean, «gabon igaro» hasi nintzen eta.

Konturatu orduko, horretara, erdal prentsari uko osoa egin nion («zer dakarte, ba, gezurrez oratuak diren panfleto nazkagarri horiek?»); eta, bide beretik, munduko, are Euskal Herri bereko, berri nagusiak baikik ikasten ez nituela erreparatu nuen geroago.

Nire euskal egarria findu bezala egin zen.

Uda etorri zen.

Uztailean, «langile gisa» lehenengo aldiz, bakazioak hartu nituen. Garajeari alde! Eta hiru astez txoriak bezain libro.

Bero gaitza 1971ko urte hartan.

Lantegira presaka joan behar-ez hartan, zoragarria zen, eta loriaturik esnatzen nintzen; eta beti ere neure bizikleta (neure «txirrindua» esaten nuen garai hartan) lagun leial, inguruak eta ez horren inguru hurbilak hobeki ezagutu nahiz, batera eta bestera abiatzen nintzen. Neure txirrindualdiak eroso egiteko, eguraldia hozkirriago eta hobe; eta goizean goizik irten ohi nintzen etxetik. Goizago eta zoriontsuago. Etxalarraino, Sunbillaraino joan nintzen behin, Bidasoan gora. Donostiaraino bizpahiru aldiz, itzulera Astigarragatik egiten nuelarik. Bakarrik beti.

Bazkal ondoan, «topo»aren zaratak esnatzen ez nin-

dueno behintzat, losusta goxoak egin nituen ilaran, egu-
nero.

Libururen bat besapean hartu gero, eta Ulia aldera jotzen nuen, eta ilunabarrera arte, itsasora begira itza-
lean irakurtzen ari. Harakoan, lotsagarri izanik ere aitortu behar dut, Trintxerpeko lan-giroak zoriontsuago egi-
ten ninduen.

Behin bakarrik gurutzatu nuen Altza, eta Martute-
neraino iritsi. Behereko «poligonoak», Antxo inguru-
ko industri-lekuen antzekoa zelako agian, tristura gai-
tza ematen zidan: bai Altza aldera fabrikaz eta tresna-
tegiz betetzen ziren mazelek, bai beherean behinola irri-
barretsu eta alaia izan omen zen Urumeako inguruek
berek. Agertu ere ez egitea onena.

Arratsalde batez, Donostian bertan sartu nintzen,
eta Kontxa aldera hurbildu. Gaineko pasealekutik joan
nintzen oinez, Nautikotik Perlaraino. Itsas haize fresko
ederra zebilen; eta ume garrasiak eta olatu errepikako-
rren arnasa erritmikoaren zurrumurrua, batera heltzen
ziren ene belarrietara. Erlojuen ondoan gelditu nintzen,
eta hondartza aldera begiratu. Gizasemez inguratuta
nengoela erreparatu nuen; eta egarritu bezala egin nin-
tzen. Toldo-oihalen arteetan, kolore bizitan erdi jantzi-
rik, soin lerdinak laztandu nituen begiradaz behin eta
berriz... «Horrela etzatea... puta hutsak dituk!»...

Horrela zihoazen bakantza egunak, beraz; Madale-
netakoak barne. Nagikeria osoan.

Orduan ere, orain bezala, festa jendetsuen kontra-
koa nintzen; eta horregatixek Errenderiakoen kontrakoa
ere bai: «Dena mukurru! Utikan!».

Dantzari txarra nintzen, bestalde; batere dantzaria
ez nintzela jator ez aitortzekotan. Eta neskaren batekin
buruz buru (eta farragarri gertatzeko arriskutan, beraz)

egokitzeko beti herabe, ihes egiten nuen mota guztietako dantzatokitatik.

Hots, Madalenetan dantzaz gain, zer egingo? Mozkortu?

Uda hartan, Uztailaren 26an, hain zuzen, Ana Mariaren jaiotegunean, xantillizko tarta puska galanta eta ardo goxoa Antxon ausarki hartu ondoren, zerrepeldurik, Errenderiara jo nuen.

Eta han, kaleetan barrena nindoalarik, eta Altzako lagun zahar batzurekin baxo-erdi zenbait edaten ari nintzenean, «Gurutze» izeneko neska polit bat agurtu zuten nire adiskideek. Beste neska batekin zihoan, egia esan; baina nire inpresioetan, bakarrik balihoa bezala.

Buruz buru utzi gintuzten, koadrilako gainerakoak aurreratzen zirela; eta plaza aldera jo genuen guk biok, kalaka harrigarrian.

Erdi txantxetan, dantzan irakatsi behar zidala esan zidan. Gurutzek hura esan, eta ni, enkas, ezer ere ukatu nahi ez nionez gero, dantzan hasi nintzen berarekin.

— Oso azkar ari zera ikasten, benetan —errepikatzen zidan behin eta berriz.

Beraren begirada iltzatu zen nigan, haren barre algarak ere nire buru-muinetan sustraitu bezala egin ziren.

Eta ondoko egun pare batez elkartu ez ginelako, halako kezka mingarri berri bat hozitu zen ene barnean. Gurutzeren irudiaren eta keinuen beharra itsasi zen nire barruan; bera ikusi gabe, bapatean, oso bakarrik edo zinez umezurtz banengo bezala.

Eta, sinetsi ezina, «Madalenak» ia amaitzear zedenean, Errenderiako kaleetan barrena ibili nintzen kezkatu-rik, agurtzen ninduten lagunei nik hizpiderik inolaz ere ematen ez nielarik: libro egon nahi nuen.

Horretan, Gurutze topatu nuen. Izozki koxkorra eskuetan, mutil argal batekin zihoan, presarik gabe itxuraz; honek ere tamaina bereko izozki bat mihikatzen zuelarik. Ez bide ziren presatuak.

Bestetango irribarre alai berberaz agurtu ninduen Gurutzek.

Eta ni, ezustean amorratua, bizikleta hartu, eta Pasaiako zulora bihurtu nintzen.

Egunargia oraindik: zortzi t'erdia agian.

Lotarakoan, bizpahiru egun lehenago Kontxa-gainetik betetsitako neska soin mardo kilikagarri haiek ahalik eta zehazkienik gogoratzen saiatzen nintzen. Eta gero eta xamurrago eta urduriago erreparatzen nuen neure burua: «Eztitek barkaziorik!... Gorantz begira... Baina ederrak zeudek, alajainkoa!... Iztar luze beltzaran haiek...»

Atsegin bala iheskor batzuk inarrosi naute, eta barrekeria ez-tian lasaitu naiz.

Berehala, ordea, tristura eta damua jabetu dira nitaz.

Eta izen bat ahoskatu dute nire ezpaineak: «Gurutze».

Biharamonean, festen bukaera tristakorra mamitzen zen orduetan, arrastiri urrikorrean, etsita pentsatzen nuen: «Ez diat Gurutze aurkituko. Edo-ta, bestela, zozo kankailu horrekin topatuko diat berriz».

Baina karrikak oro bulla ezin zalapartatsuagoek betetzen zituztelarik, Gurutze agertu zen. Bakarrik zeto- rren nire aurretik.

Taupadak azkarregi nire bularrean; baina, ez bat eta ez bi, proposamen bat egin nion; eta aittona Anttonek esan ohi zuen bezala esateko, «deplauki» egin nion:

— Bihar, larunbata. Zergatik ez joango elkarrekin Donostiara, eman dezagun... Etxetik mokauren bat eram- an, hango kaian txalupa hartu, eta uhartera, Santa Klara- ra... Ezagutzen al duzu?

— Ez. Enaiz sekula han izan.

— Ni bai. Bi aldiz. Gustatzeko bezalakua da, ene ustez. Basatia eta xarmanta batera. Ikusiko duzu. Igeri egiten ba al dakizu?

— Hori bai.

Egia hutsa esatekotan, «nik ez» erantzun behar nion. Baina ez nuen egin. Zakurrek baino itsuskiago lortzen nuen kostata ez hondoratzea...

Horrela, atzera egingo ote zuen beldurrez, alde egiteko beharra senditu nuen. Eta baiezkoan, biharamonean elkarrekin joatekotan, gelditu ginen; goizerako zita eginda.

Ohean nengoela, barne-asaldu batek harrapatu ninduen.

Eta Irun alderako azken topoaren burrundara aspaldian suntsitu ondoren ere, ni esnai. Kezka hura ikara bezalako zerbait zen: «Azalduko ote da Gurutze esandako topoan?... eta, etorriko ez balitz?»...

Eta behin eta berriz, eta hamaika bider, erantzunik ez zuen galdera bera egiten nion neure buruari.

Errenderian bizi zen Gurutze. «Oreretan», izeba Emilik zuzendu ohi zuenez esateko. Eta hemeretzi urte zituen.

Bere herrian hamaikak hamar gutxitako topoa hartu behar zuela, eta aurreneko bagoian sartuko zela erabaki genuen.

«Pasajes-Molinao»ko geltoki hits haretzek goiz hartan, neure gela-leihotik hainbestetan madarikatuak, hainbeste aldiz asperraldi etsian ikusitako berberak, dir-dai harrigarria hartu zuen. Etorriko ote zen Gurutze, agindu bezala?

Hamaiketan, leihatila batetik bere besoaz agurka... bera zen!

Sartu naiz bagoira; eta, pentsatu ere gabe, jenderik begira egon ote zitekeenez oroitu gabe, estu-estu besarkatu dut, eta musu luze bat eman. Segituan, nire ausardia hura Gurutzek gaizki hartuko ote zuen beldurrez, hitzik gabe gelditu natzaio begira. Geroxeago bakarrik:

— Egun on, Gurutze —esan diot ahots hari behe ba-

tez, ia-ia erreguka ari banintzaio bezala.

Barre-algaraz lehertu da bera orduan.

Eta ni neu ere, algaraz hasi naiz besterik ezinean.

Hura izua!

Orduantxe erreparatu dut lehenengo aldiz gu biok jendeak inguratzen gintuela, eta batek edo bestek begiratu ere egiten zigula jakin-minez.

Zoragarri zegoen eguraldia. Zerua garden, urdin, sakon. Airea, berriz, epel, nabarmenki berotzen ari, eta giro osoa sargorirako abian.

Oinez abiatu gara Amaratik Urgull aldera. Easo kalea bukatzerakoan, eta Londres Hotela ezkerretan uztean, Kontxako badia agertu da gure aurrean, baita Santa Klara uhartea ere; eta atzean Kantauri itsaso ezin urdinagoa. Une berean, kresal usain sarkorrezko haize bala batek errezebitu gaitu, gu gazteok eta bera ere gazte, gure zainetako odola irratzarriz.

Bizi nintzela senditu dut azkarki, eguna eta geroa nireak zirela.

Nautiko zuri dotorearen parean gelditurik, gizaseme buruzuri pare bat ari zen berriketan, mainu arropak besapean. Eta gaztelania aberats eta harroz mintzo zirela iruditu zait, geure parajeetan entzun ohi ez den doinukoa: «Madrileños... veraneantes... españolitos...»

Kaira heldu gara, eta hamar minutuz egon behar izan dugu zai eskailera luze ilunean:

— Hoy no hay peligro de galerna —esan dute sasi-jakintsu batzuk.

— Zer diozu zuk, Gurutze? —galdetu diot.

— Eztakit.

Patagoniatik heldutako piztia bitxi gisa begiratu digute gehienek.

Motorezko ontzia hartu dugu orduan, «Virgen del

Carmen»-edo izenekoa; eta erdiko hagan gailen piper-potoa kulunkatzen zela, Santa Klara aldera abiatu gara. Goragalea senditu dut; baina ez dut txintik atera. Zertarako?

Barra erdian, itsas-haize galanta ari. Noiztenka ziprztinek bustitzen zituzten gure aurpegiak.

— Zirgilu zuri horiek —esan dit Gurutzek— uste baño aise handiagoak dira. Pasaian ikusi nittuen behin, lehorrian, eta harrittuta geldittu nintzan.

— Bai —erantzun diot.

Besterik neraman nik arretan: gure ezkerretan, «Azor» yate famatua ageri zen, gugandik ehun bat metrotara. «Azor» zuri gorrotatua: «Horra hor zerriaren ontzi sakratua!».

— Zer duzu, horren ixillik? —galdetu dit Gurutzek—. Arestian alaiago zeunden.

— Ezer ez.

Itsaso txikia zegoen. Uharteko arroketan, halere, aparrik ez ia-ia. Uraren gainaldea ozta-ozta gailentzen zuten harkaitz ilunak ikusi ditugu eskuin aldetik, uharteko baradera gisa. Ezin gardenago agertzen zen ura; eta, txandaka bezala, hondar-guneetan berdaska eta arroka-guneetan moreska bihurtzen zitzaigun.

— Honela freskoago nago —esan dit Gurutzek.

Eta neure arreta itsas-gainaldearen berde-more hartan neukanean, ustekabean, neska soin eder bat eta hiru triangelu urdin diztirante topatu ditut neure ondoan, hirurak zein bere modura kilikagarri, eta zauskada zakar batek jo nau.

— Ondo nago? —berak irribarre gaixtoz galde.

— Primeran! —irten zait barnetik. Eta Kontxa gai-netikako ikuskaria nigan arrapizten zela senditu dut.

Zozo batek ere somatuko zuen bigarren ulerkera li-

zuna nire erantzunean.

Uharteko tabernaren ondoan, beherekoan, harkaitzen kontra utzi ditugu geure arropak eta moltsak; eta ume-ostearen erditik pasaia nekez irekiz, uretara abiatu gara nasa gainetik.

Ezkerretan Kontxako uztai horia geneukan, zabal, jendez mukurru; eta aurrean, eskuarrearantz, Miramar gorria, eta Ondarretako xaletak eta hondar txokoa.

— Hotza!! —bota dut nik oihuka, honetaz ere erraiak berak mintzo zirelarik.

Gurutzek, berriz, sekulako itsastarra bailitzan, jauzi egin du eskaileratik, eta uretan deliberatuki murgildu:

— Eztago batere hotza, ustel hori!

Sartu egin behar nik ere; eta espanturik gabe sartu behar. Zer espero zezakeen neska ausart batengandik koldar honek «macho ibérico»aren lurraldean?

Elektrokuzioa-edo bazetorkidala egon nintzen etsita lipar batez. Baina Gurutzek ez dit pentsaketarik egiteko paradarik eman:

— Tira, ba! Barrura!

Eta zipriztinak bota dizkit bi esku ahur txapalez.

Oso ondo egiten zuen igeri; eta nik, berriz, lehorreko alimale honek, trakets, nekez, gaizki. Gurutze buruz behera jauzterakoan, xuxen-xuxen sartzen zen; ni, berriz, ezin baldarkiago. Kankailu galanta ni pizpireta arin harekiko.

Nasaz bi aldeetan, hondarretan eta uretan, bainari asko. Haur pilo zalapartatsuak nagusi. Zakur beltz bat ere bai gure lagun, etengabe zaunkari, etengabe uretara begira, urduri, jiraka, bueltaka.

— Nik gomitatzen dut orain —proposatu dit— tabernan Martini bana hartzera. Goazen!

Eta gorputzen zorientasun lodian sinetsi dut.

Eguzkiaren errainu beroak, uxoleko ur xirripak har-kaitz gogorraren gainean erortzen diren bezalatsu pau-satzen ziren gure larruan. Eta hozten hasten zena ema-tzen eta epeltzen. Bazetorren Donostiako kaitik beste motora urdin bat, jendez gainezka:

— Hobe dugu gora aldera jo —proposatu dut—. Bes-tela mahai guztiak beteko dira.

Eta mazela beherean, aldapan gora doan bideska ha-rritsua alde batera utzi; eta ezkerretan, Igeldora begira, ongi gerizatutako txoko bat hautatu dugu. Landare he-si trinko batez ia osoki hetsita, huraxe bilatzen nuen nik. Karraskiloz, sastrakaz eta kainaberaz inguraturik zegoen. Erdiko mahai handi berdea, egurrezkoa zen; eta xafla txiki batetan, oholei iltzatua, hau irakur zitekeen: «Srs. de Fernández Cuéllar». Bi alde luzeetan, egurrezko bi aulki.

Hosto berdeen artetik, urdinago zirudien itsasoaren urdinak; eta hozkirriago ematen ere itsastikako haize fi-nak.

— Galernarik ez gaur, dudarik gabe —esan dut.

Eta aulki berean exeri gara biok, elkarren ondo-ondoan; eta haren ezkerreko besoaren berotasun leu-na, tarteka neurean dastatzen nuelarik.

Igeldotik, Txubillotik hobe, noizean behin, musika bala etenkorrak heltzen ziren guganaino. Harbizketako harroken gainetik notarik gehienak suntsiturik, azken aztarna ahulak baizik helduko ez bailiren.

— Zer iruditzen zaizu, Gurutze?

— Zoragarria, benetan.

Eta musu luze bat eman dit ahoan.

Gurutzeren iztarrak nirea ikutu du pittin bat, eta goi-ko bi triangelu urdin diztirante eta tenteek, nire larrua istant batez hozkirri ezkotu. Hura atsegin hedakorra!

Haiek barne-olatu ez-ezagunak!

— Oraingoan nik dut gomitatuko —esan dut doto-reago izan nahiz.

— Alajañetan! Hori da euskara landua!

Damutua nengoen jadanik esandakoaz, baina beranduegi.

— Goiko tabernara noa, bi kafetxo eta bi patxaran eskatzera. Zaude hemen. Oraintxe heldu naiz.

Landare hesiaz bestaldetik, haize balak eta ahots urrunak zetozkigun. Eguterako lurgorrietan, surangilak elkarri segika korrikaldi harrigarritan. «Txoko izkutu honetan, geure tamainako mundutxo bat aurkitu diagu. Bapo!».

Baina ni neure erosketarekin etorri orduko, mahaia-
ren ondoko belardian topatu nuen Gurutze:

— Mahaiaren «jabeak» azaldu dira. Hori esan di-
date behintzat; eta kanpora bidali naute...

— Lasai. Hemen ere ongi egongo gara.

Toallak belarrean zabaldu; eta eguzkitan, baina itsas-
-haize fina beti ari, inguruan genituen beste bikote leun
batzu bezalaxe etzan gara gu ere: zerura begira, eta es-
ku batetik heldurik:

— Ongi zaude, Gurutze?

— Bai.

Eta nire eskua piska bat estutuz, eta begiak ireki gabe,
beste musu luze bat eman dit ezpainetan.

Arratsaldea poliki-poliki lerratzen zen bere amaie-
rantz. Aidean, kresal lurrina eta arrain ontzien burrun-
dara nahasirik, amets eragiten zuen denak. Txubillotika-
ko musika balek eta beherean mainatzen ziren haurren
garrasi zorrotzek, bizi erazi egiten zuten inguramendua.

Ez nuen poz bare hura ordura artean behin ere das-
tatu.

Neure alboan neukan Gurutze, lozorroan agian; eta haren masaila larru gazteak hartzen zuen diztirak, gainditu ezinezko moduan erakartzen ninduen. Musuak, su-durraren ñimiñoak, azalaren gaineko bilo mehe urraide eta berdin hark, denak deitzen ninduen. Beherago, hirugarren triangelu urdin diztirantearen aldera begiratzeko ausartzen nintzenez, zorabiatu egiten nintzen.

Ulertu ezinezko soinua batzuekin egin ondoren, begiak ireki zituen Gurutzek.

Areago ezinik, neure aurpegia jarri nuen harenaren gainean; eta ero moduan besarkatuz, musuka errabiatuan hasi nintzaion:

— Kontuz, Antton! Mesedez!

Eta indar harrigarriaz berezi ninduen.

— Min handia eman didazu. Gaiñera hemen jende asko dago. Ez al duzu ikusten?

Egia zuen. Piskanaka, arratsaldea aurreratu ahala, bete egin zen uhartea; eta mahaietan eta zokoetan ez-ezik, belazetxoetan ere andereak, haurrak, bikoteak eta irrati zalapartatsuak, ugari. Ugariegi.

Matxitxako aldean sartzera zihoan eguzkia; eta haizea freskatu egin zen behingoan, bustiago bezala bihurtu bailitzan.

Gona urdin ilun estua jantzi zuen Gurutzek, eta ahantzi ezinezko egun gogoangarri hura eguzkiarekin batera amaituko zela konprenitu nuen. Eta itzultzeko tenorea —beti tenore tristea, baina areago ilunabar hartan— etorri zela:

— Gaiko bide txigorretik jeitxiko gera, nahi baduzu —proposatu nion—. Torreroaren etxe zaharkituaren ondok jauten da, eta handik gero, behera. Horrela, Gazteluaren aldetik duan bideska eta eskallerak ezagutuko dituzu.

Aldapa ospel hartan, temagarri egiten zen pikondo usaina.

Hots, usterik gutxienean, eta behereko harroketara iristean, sekulako kolpea eman zidan bihotzak: «Ene!! Bera duk!!!... Bera, bai!»...

Mainu arropan, katalejoak lepotik zintzilik, Kon-txako kolkoaren erdirantz begira, harroka zapal baten gainean eserita... Iñaki zegoen, Iñaki Urdanpilleta, bai, bera, nire lehengusu propioa, Martitxipi-eneko ihesla-ria! Hantxe, bakarrik itxuraz, bideskaren azpiko harroketan.

Zer esan zidaten, hortaz, familiakoek? Donibanen zegoela, lasai bizi zela, lan bila ari zela... Zer ziren ipui haiek? Dena gezurra zela konprenitu nuen. Eta ez zue-la Iñakik beharbada muga sekula santan gurutzatu. Edo-ta, bai, Iparraldean omen. Baina batzutan bakarrik, ez beti... Eta «sartu» egiten zela Hegoaldera, alde hone-tan «ekintzak» egitera...

Eta izutzeko moduan senditu nintzen errudun.

Ideiarik desberdinenak, lokamutsetan bezala zerraiz-kion elkarri. Baina beti esaldi batera biltzen: «Iñaki duk!!».

Zer egingo ote nuen? Agurtuko? Ez agurtuko? Hu-ra istilua! Ez-ikusia egitea onena. Bestela, zer azalduko Gurutzeri?

Kinka larri hartan, gelditu egin nintzen segundu batez:

— Dasta dezagun Donostiako bista paregabe hau — esan nuen.

Iñakik behin eta berriz hartzen zituen katalejoak, eta behin eta berriz «Azor» aldera begiratzen. Zerraldo ero-riko ote nintzen pentsatu nuen.

— Maite zaitudala uste dut —entzun nuen une horretan.

Eta Gurutzek bere bi besoak nire lepoaren atzeko aldetik pasa zituen:

— Maite zaitut, Antton.

— Bai —erantzun nion, aitorraren garrantziaz batiere jabetu gabe.

Nik ez nuen «Azor» besterik ikusten, eta Iñaki tinoko begira.

— Nola «bai»? —Gurutzek, minduta.

— Barka, Gurutze. Txit gaixorik omen zegoen adiskide bat topatu dut hortxe, behere horretan, horko harroka baten gañian; lasai, itxuraz. Eta ia hildakotzat neukan pertsona bat ustekabian hemen topatziak, izugarrizko ukaldia eman dit.

Ez zuen ezer erantzun; eta isilune hura, Iñakiren ikuspen beldurgarrian, jasanezin egiten zitzaidan.

Bai Iñakirentzako, bai niretzako, hoberena, eta errazena batez ere, ez agurtzea izango zela iruditu zitzaidan. Eta nasan jendea kargatzen ari zen motoraren aldera abiatu ginen.

— Jende asko dua orain —esan nuen—. Illuntzerakuan, denek batera nahi...

— Bai, Antton. Baña hain gaixo omen zegoen zeure adiskide hori, zergatik eztuzu agurtu ere egin? Etzaitut ulertzen.

— Beste batean azalduko dizut hau guztia, Gurutze. Barka nazazu.

At nengoen, erabat, inoiz ez bezala: «Ni hemen neska honekin iji-eta-uju, musuka, disimuluarekin bular horiek pittin bat bederen ikutuko ote dizkiodan tematurik... Kaka-zarra nauk».

Lotsa bezalako zerbaitek gailendu ninduen. Eta Pa-

saiko puntetan egindako zinaz oroitu nintzen: «Ustela!».

Itsas haizea hotz bihurtzen zen.

Motorak barra gurutzatzean, dar-dar hasi nintzen harrigarriro:

— Baña... zer duzu, Antton?

Eta toalla gainerik jarritz, estutu egin ninduen bere kontra. Busti kutsu hozkirriarekin batera, kresal usaina eta berotasun leun harrigarria senditu nituen.

Baina ez nion azalpenik eman. Ez nintzen gauza. Ez nekien zer esan. Toalla larrosa busti-aire hura ez zen, izan, ni inarrosi ninduen gaitzari buruz oso lagungarri egokia.

— Pasa egingo zait —esan nion.

Eta Gurutzeren eskuek nire esku hotzituak bildu zituztenean, ia-ia kiskali egin zizkidaten.

Udazkena joan zen.

Sarritan ikusten nuen Gurutze, nahiz gero eta epelkeria nabarmenagoan.

Normalean nik deitzen nion telefonoz etxera; berak niri, berriz, lantegira egiten zuen. Bengoetxearekiko beldurez («saltsa nahasle» deitu baininduen behin, eta ongi nekien zergatik) noiztenka bakarrik egiten zuen, nik propio Gurutzeri hala joka zezan eskaturik.

Kezkatzen ninduten gertakarietatik eta kezketatik urrun oso antzematen nuen Gurutze. Euskaraz irakurtzea edo gure herriaren berri izan nahia, «txorakeria» iruditzen zitzaizkion; eta «poliziaren aurkako borroka ergeletan» arriskatzea, erokeria hutsa. «Istiluak» zitzaizkion denak: gure nazio arazoari buruz ez zuen beste hitzik erabiltzen. Eta halako batez, Burgosko epaiketa sonatuaren urtehurrena bazetorrela-ta, hamasei haietaz «zoroak» zirela esan zidan argi-eta-garbi.

Ez nion, horregatik, uharteko gertakaria inoiz ze-

hazki azaldu; gertakari ahantz-ezinezko hartan, ziur nago, beste «istilu» bat besterik ez baitzuen somatuko. Adibidez, eta nire ustea egiatik hurbil dagoen seinale, behin ere ez zidan ezer galdetu Santa Klarako nire izualdi bitxiaz eta han topatutako «hil-bizi» hartaz.

Egun batez, Oihartzunen Artze, Laboa eta Lete ariko ziren kantaldi batetara joan ginen biok, buruz buru; eta bai kontzertuan barrena, bai irtetean, joera bera somatu nuen. Entzulegoa berotzen hasten zenean, eta nik «hauek gutarrak dituk» esan nahi nuen mementuetan, bera haserretu ere egiten zitzaidan:

— Horra! Horrelaxe etortzen dira gero «istiluak».

Etxen sutan jartzen ninduten «umeak aurrean» beldurti haiek (isildu behar askoren iturburua). Eta, egia esan, gauza bertsua ziren Gurutzeren etengabeko «istilu» bedeinkatu haiek. Berdin!

Arrats hotz batez, euri fin-fina ari zuen; eta Errenderian bertan zinera elkarrekin joan ondoren, etxeraino lagundu nuen.

Agur egiterakoan, beste askotan bezala, musuka hasi nintzaion.

— Triste nago, Antton. Eztakit konturatu zeran. Baina ezta gaurko kontua.

Arrats hartan, eta portalaren ondoan, bion masaila beroa bustitzen zuen euri hotzak.

Eta «triste» hitzak eta xirimiriak bultzaturik nonbait, aurrerago joatea erabaki nuen bertan. Aspertzen hasia nintzen ni, dudarik gabe; eta bera ere bai, nik uste. Eta musuak ematerakoan, Gurutzeren galtza lodien erdi aldera jo nuen eskuineko eskuaz; eta kalentura bitxi batek hartu ninduen brauki.

— Hori iñola ere ez!

Eta nire eskua baztertu zuen zakarki:

— Oraindik eztidazu behin ere esan maitte nauzunik...

Egia hutsa zen. Ez nuen sekula esan beharra senditu.

Eta ohar argitsu hark, gure arteko airea bera ebaki zuen. Esaldiak hormatu egin ninduen.

Etxera joanda, pentsaketa egin nuen luzaz, oso luzaz. Gau guztian barrena ia-ia. Gurutzerekikoa faltsua zela iruditzen zitzaidan. Gero eta beranduago irteten ginen; eta gutxi hitz egin ohi genuen geure artean. Eta funtsean, etxen bezala nengoen: barne-muinak kiskaltzen zizkidaten gertakariak, gorde egin behar. Ondorioz: mutu askotan.

Sexutasun egarri hark, beraz, maitasunik eza salatzen zuen garbiki; eta hutsunea disimulatzeraz zettorren.

Eta propio ezer esan gabe, elkarrekin irteteari utzi genion. Nik ez nion berari deitzen, eta berak niri ere ez.

Eta Gurutze gabe neure burua triste edo umezurtz atxeman beharrean, libro-edo aurkitu nuen.

1972ko udaberria heldu zen; eta udaberriarekin batera, odolaren irakin berezi hori. Urduriago nengoen, sendiberago, eta arratsetako itzala ilunago iruditzen zitzaidan.

Aspaldidanik Gurutzek lantegira deitzen ez zuelarik, lantegi barruko bere bulegotxo kaxkarretik hots egin zidan behin Bengoetxeak berak eguerdi irian:

— Antton! Telefonora! Hirezako duk!

«Gurutze duk», pentsatu nuen. Eta, harritzekoa, halako poxak betetzen ninduela aitortu behar dut, eta tau-padak dexente azkartzen zitzaizkidala. Telefonoa hartu dut:

— Bai! Esan!

— Antton... hi haiz?

— Bai, bera.

— Izeba nauk. Izeba Emili.

— Bai, bai. Berehala ezagutu dut zure ahotsa.

— Oso berri txarra eman behar diat, Antton... Iña-

ki hil ditek!

Arnasa falta zitzaidala nabaritu dut, barrutik zer-bait urratu zaidala, bertan hilotzak erori behar nuela.

— Aittu al didak? Iñaki, Martitxipi-enekoa, lehen-gusu propioa, hil egin dutela.

— Bai, izeba. Aittu dut —ni nekez ari.

Ez nekien zer erantsi. Ez zitzaidan deusik ere buru-ratzen. Ezta hitzik bat ere.

— Gaur goizian izan bide duk —izebak—, oso goiz, eguna zabaltzerakuan, dirudienez.

— Nola, ordia? Nola izan da?

— Esango diat. Lantegitik sarri irteterakuan, juan hadi «Altzibar» tabernara. Badakik non den. Han egongo nauk hire zai.

Eri banengo bezala antzematen nuen neure burua; eta esku artean neukan lana bera bukatzeko, ezin: erabat jota nengoen. Jasan ezina zitzaidan ordu erdiz oraindik besterik ez jakitea: «Iñaki garbitu ditek!... Iñaki garbitu ditek!»...

Itolarria zen hura, itomena bera. Bapatean hitz bakar batek osatzen bide zuen ene hiztegi osoa: «putakumeak».

Tabernara agertu ordukoxe, berri hitsa zehazteari ekin dio izeba Emilik:

— Gaur goizian gertatu duk: Zornotza onduan, Bizkaian, goizeko seiak aldian. «Enfrentamentu» bat, esan dutenez.

— Enfrentamentu diozu?

— Bai. Baña gu beldur gaittuk, egia esan, ez ote duten txakurrek Iñakiren komandoa lokalizatu; eta, besterik gabe, ez ote zaizkien tiroka hasi. Eyuke lehenengo aldiz izango.

Xuxenki ezer konprenitzen ote nion ez nekien.

Uharteko azken irudiak zetozkidan trumilka: Iñaki harroka txapal haren gainean, mainu arropan eta kate-lajoak lepotik zintzilik; eta neure koldarkeriaz lotsatzen nintzen. Berriro ikustea eta mintzatzea betirako ezinezkoa izango zela konturatzeak, erotu egiten ninduen.

— Eta... gorputza... non dago?

— Etzekiat. Zornotzan, noski. Aurki eramango ditek kuartelillora, nik uste. Baña eztuk segurua txakurrak gorputza ikusten utziko dutenik, badakik: «enfrentamentua» izan dela esan, eta gero tiro-zuloak atzekaldetik agertu direla, eman dezagun... eta, badakik. Beste mutil bat ere, zaurituta bide zegok. Odol tantoak aurkitu omen dizkittek, ugari; baña hanka egin bide ziek gure mutillak.

— Putakumeak! —nik.

— Hire etxera niak orain. Baña eyai etor nirekin. Hobe izango duk. Martitxipira juan nahiko ditek hire gurasuak; eta mementu horietan berekin ni bakarrik egotia, hobe. Pentsa dezakek hire osaba nola dagoen: erotu egin duk, ziñez. Etengabe errepikatzen dik lau hai-zeetara: «Eztute urde horiek nire semiaren heriotzaz erre-kuperazio politikorik egingo. Ez horixe! Kristau elizkizunak egingo zaizkio, eta kitto!... Semia ohostu didate aurrenik, eta gero hil!».

Biharamonean, oraindik sineskaitz gertatzen zitzaidalarik, «Diario Vasco»n irakurri dut bezperako hilberria:

*«El joven
Ignacio Urdampilleta Arraiza
falleció
ayer, 17 de Mayo de 1972,
en Amorebieta
víctima de accidente.
R.I.P.»*

Eta beherago: «Sus desconsolados padres, Jesús Urdampilleta y Aránzazu Arraiza; sus hermanos»...

Ez nuen jarraitu. Koldarkeria nazkagarri horretan, berriz ere, osaba Jexuxen eskua somatzen nuen: Ignacio, dena erdaraz, «ez-beharrez hila»... «Ustela duk osotara... harroa bezain ustela eta faltsua»...

Ezin ederrago zegoen goiza. Bertakoez gain, gazte jende asko agertu zen Altzako elizara.

«Elkar maitatu beharra» aipatu zuen apaizak. Behin eta berriz, edonor asetzeko eta nardatzeko moduan, ene ustez, «maitasun» hitza entzuten zen:

— Senide eta adiskide maiteok:

«Iñakiren heriotza gogorarazteko bildu gara gaur eliza honetara. Eta, ongi dakigu, heriotza beti ere gertakari garratza eta mingarria izanik, Jaungoiko maitearen kontra altxatzeko tentazioa sor dezake gudan.

«Kontuz, beraz!

«Kristauak garenez, bestelakoa izan behar du gure iokabideak. Alde batetik, maitasuna bera den Jaungoikoagandik datorkigun guztia onartu behar dugulako, are heriotza bera ere; Jesukristok berak Galbarioan onartu zuen bezala. Eta beti, zenbait aldiz ez badirudi ere, dena Jaungoikoak maitasunez eta onginahiz bidaltzen digulako.

«Eta bestetik, anaiok, gu bizi garen gizarte nahasi honetan, geure euskal gizarte honetantxe, gorrotoa eta mendekatu-nahia gorantz doazelako».

Jendeak zirkinik egin gabe entzuten zituen zozokeria haiek.

«Guk, aldiz, Jesukristoren haurrideok, barkatzearekin behar diogu, maitasunez. Beti, eta zernahi gertaturik ere, justiziaren eginkizuna Jaungoiko maitearen eskuetan utzi behar dugu.

«Hots, Iñaki gizajoak, giroak hartaraturik, gorrotoaren eta hilketaren bitartez garaitu eta zuzentasuna nagusi eraztea pentsatu zuen. Ez bere buruz, ene ustez: ongi ezagutzen dugu denok Iñaki nolako familia prestu eta santuan jaio eta hezi den. Oker zegoen soilik, guztiz oker; nahiz borondate zuzena ezin uka. Jaungoikoak barkatu egingo dio, guk ere barkatu behar diogun bezala»...

Eliz aurrean, zotinka egiten zuen negar izeba Aran-

tzak, Iñakiren amak alegia; osabak sermoia tente aditzen zuen artean.

«Jesukristok garbiki esan baitzion Pedrori, honek mendekuan barrena abiatu nahi izan zuen unean: ‘Sartzak oraintxe ezpata hori bere maginan. Zeren ezpata hartuko duten guztiak, ezpataz hilko baitira»...

Gomito-larria senditzen nuen neure barruan!

Behin eta berriz, erronda begirada eginez, aurpegien itxura aztertzen nuen; eta beroietan inolako amorratorik edo higuinik azaltzen ez zela iruditzen zitzaidan. Izeba Emilik, berriz, etengabe salatzen zuen bere zotin etsietan barrua kiskaltzen zion ezinegona.

Estolan muin egiteko prozesio faltsua hasi zen eratzten. Eta ni ez nintzen hurbildu. Ez nuen fartsa hartan parte hartu nahi.

Euskal kanta txepelen bat ere entzun zen. Eta kale-
ra denok...

Iñakiren gorputza kanposantura eramateko tenorea heldu zen; eta, abiatu aurretik, elizaren atzekaldera bildu zen segitzaileon multzoa.

Ezustean, gizaseme ahots ozen bat nabarmendu zen atarian.

— Hemen ere gauza bera errepikatuko dut...

«Bera duk», nik neure kolkorako.

— ...nire semia zen Iñaki. Eta badakizue: no toleraré que se dé a este entierro el menor color político...

«Hire semeak berak bizia zergatik eman duen, berdin zaik hiri. Hik heureau!»...

Segitzaileen artean, sasi-dotore eta zelatari lotsagabe, beltzaran bigotedun pila bat:

— Kontuz ibilli behar, gañera. Badakik —esan zidan Josu fraileak—. Horiek guztiok txakurrak dittuk...

Eztittuk etorri, ez, nire anaiaren alde otoitz egitera...

— Ez, ez. Baña azala badittek... Ia bere lagunak nor zittuen...

— Eta ia buruberoren bat —Josuk niri— etzaigun orain deskuidatzen...

— Agian ez!

Elizaren ondoan bertan, haurtzaroan bezalaxe (harrigarria Altzan!), «Goikoetxea» etxea zegoen, betiko bere hartan; eta berdintsu ere txikitan hainbestetan jostatutako frontoi maitatua.

Han beherean, berriz, Ezkizu-bekoa egon zen lekua-
ren inguruetan, zahar kutsu arrastorik ez: ez sustraitu-
tako zuhaitzik, ez belar gizenik, ez buztinezko bidetxio-
ririk... Ezer ez horrelakorik. Arrilu gorriz jantzitako do-
rretzar gorrotagarriak bakarrik. Hura herra etsia!

Aldapan behera abiatu gara.

Eztarriak, zinez, min ematen zidan.

Donostia aldera, urratu berria zen autobide-ildo gai-
tzak, oraindik lan itsusitan itorik, lurrazpi horiska irauli
berria erakusten zuen bere ertzetan, gruak eta karretil-
lak ere, erruz han-hemenka abandonaturik, antza.

Mendebaldean, kanposantuko gurutzeak urrunean
inguratuz, Ulia soila ikus zitekeen, eta Urgull zuhairsua,
eta, atzerago, Txubilloko eta Gudamendiko bi dorre za-
harrak.

Gainetik, xerrenda urdin bat osatuz, itsaso zabala.

Kanposantura sartzerakoan, uste nuenaren aurka,
erdi-ahantzita baizik ez neukan izen multzo hura. Larra-
-Larrea familiaren hilarria topatu dut aurrenik; eta
Zinkunegi-Leterena gero; eta Filiberto Bonetena aurre-
rago... Eta haurtzaroan izen hura irakurtzean guk, mu-
tikook, egin ohi genituen barreez oroitu naiz.

«Aurki, berehala —pentsatu dut— ‘Iñaki Udanpilleta’ izen-deitura irakurriko dira hor, atze horretan, beste guztiak bezalaxe, hotz-hotzean, batere zirrarak senditu gabe. Batek edo bestek, agian, galdera hau egingo dio bere buruari: ‘nor ote zen horren gazterik hil zen Urdanpilleta zoritxarreko hori? Hogeitabi urtetan hil beharra»...

Noiz irakurri ahal izango dute Alzako gure ondorengoek: «Iñaki Urdanpilleta, betikoen putakerien bitima erori zen»?

«Aita gure» bat esan dugu denok, apalki, apaizarekin batera. Eta isiltasun betean, zerraldo beltz ditzirantea zintzilikatu dute, eta polliki-polliki hobi sakonegian ehortzi.

Malko aztarnarik ere ez nire begietan.

Bihotz ondoari, sua zerion.

Eta, tarteka, oraindik ere Iñaki hila ez ote zen esperantza eroa: «Agian lokamuts hutsa duk hau guztia... agian esnatzea bazeukeat... agian Santa Klara uhartean zozoki galdutako aukera gertatuko duk berriz, eta zeren bila etorri zen, edo barruan zer zeraman jakingo diat... Agian, bai... Agian!»

Iparraldean, oraindik ezagutzen ez nuen Zokoan, Iñakiri beste elizkizun bat eskainiko zitzaiola jakin nuen.

Eta bigarren hau Iñakik nahi zukeen bezalakoa izango zela: abertzalea, eta ez Alzakoaren txepelkerietan oratua. Anai-Arteak antolatua omen zen; eta Aita Lartzabal famatuak esango omen zuen meza.

Eta nola edo hala haraino iristea erabaki nuen.

Izeba Emilirekin hitz egin nuen:

— Denbora gutxitxo zegok dena antolatzeko —esan zidan—. Baina saiatu egingo nauk, eta hire billa juango dittuk mugara. Eta, nolnahi ere, esan beharrik etzegok: guk biok eztiagu honetaz iñoiz hitz egin.

— Noski!

Maiatzaren 6a. Larunbata.

Dantzarinera agertu naiz. Hegoaldeko alderdian oraindik, eskuin aldeko benttara jo dut. Arratsa gorriz-

tatzen ari. Baina ateri.

Larunbata zenez, bazegoen joan-etorria franko zubi nagusian.

Barrera zuri-gorria, altxata.

Emakume batzu erosketa batzuekin irtenez geroztik, kalakan gelditu dira hiru gizaseme taberna iluneko barran; eta «normal» iruditu zaizkit. Txakurrak ez zirela, alegia. Txapel bana zeramaten, eta euskaraz ari ziren beren artean...

Benttatik irten, atzeko aldeko egurrezko zubitxora hurbildu, erreka xumeaz bestalderaino pasa, eta... Iparraldean! Hura poza! Hura askatasun kutsua! Bizi guzti guztian Francok kontrolatutako lurraldetan barrena ibilia bainintzen.

Ezkerretara jo dut bideskatik; eta zubi nagusiko kaminoraino joan. Aurrean neuzkan jendarmeak, beren artean kalakan.

Matrikula frantsesezko kotxe bat ondoratu zait mentu horretan. Barruak zauskada bat eman dit.

Txoferrak horretan, hogeitamar bat urteko gizon gazte batek, lagun modura esan:

— Antton, ezta?

— Bera, bai.

— Sar hadi. Goazen Donibanera. Lasai egon. Gaur, larunbata, etzegok-eta inguru hauetan kontrol handirik.

Abiatu gara.

Baina ni kezkatuta nindoan:

— Barka nazak... eztiat ezer konprenitzen...

Eta katramila betean sarturik, lotsaz bezala galdetu diot neure gidari sendoari:

— Etzekiat nola esan...

— Nola esan, zer?

— Nire billa «Monique» etorriko zela esan zidaa-

ten beste aldean. Eta neska bat topatuko nulakoan...

— Ni nauk Monique —moztu du brauki.

Eta barre algaraz hasi gara biok.

Moniqueren nortasuna salbu, Izeba Emilik auresanda bezala gertatu da dena.

Pasaportetik sekula ezin lortuta, egundoko poza ematen zidan txakurradari hala iruzur egin ahal izateak.

Arrastiriko argi epelean Ainhoa isila topatzean, eta euskal tankerako etxe-ilara bikoitz hura erreparatzean, pozkario harrigarria senditu dut. Gaizki idatzirik ere, euskal izenak antzeman ditut non-nahi: «Etché chou-ria», «Soubigagnéa», «Harotçarena»... «Ene herria duk hau», sinetsi dut.

— Zer moduz bestaldian? —galdetu dit txoferrak.

— Han? Ahal bezala bakarrik.

—Zurumurrurik edo?

— Jeneralen baten kolpea... Francok minbizia omen duela... nik dakita zer? Guk han baino aixago jakin dezakezue zuek hori guztia hemen, Iparraldean.

— Hemen. Zer ba?

— Etzekiat. Hura berdin zegok: txakurrez betia, eta kitto! Ittogarri!

Eta isilune bat gertatu zen lipar batez:

— Hemen, berriz, zuek... —nik ekin.

— Hemen gu, zer? Betiko leloa... Han «la España fascista», hemen «la France démocratique»... Ezta? Tira, tira! Hemen okerro, motel!

— Eztuk posible!

— Guretako erdia zegok hemen batere paperik gabe! Nik neuk ere, bi hilabetetarako «récépissé» alu bat besterik etzeukeat...

Eta irribarre egin zuen eztenkari:

— Begira: hemen ikurriña ikus dezakek agian fron-

toietan, batzutan; dendaren batzutan ere bai, agian; baina beti frantsesaren ondoan, biak lagun min... Eta agian («agian» bakarrik, eta hitz honi hemengoek ematen dioten esperantza-kutsuaz erabiltzen diat) euskaraz entzungo duk zahar pare bat herri txikiren batetan. Baina hau Frantzia duk, osoki, «La France»; eta hemengo gure jendea, zoritxarrez, Etcheverry-tarrak eta Durruty-tarrak, frantses porrokatua. Gu, jakina, «español kriminel» gorri batzu gaituk...

— Fazistak dituk, beraz?

— Gehienak eztituk urrun. Eta oso lan zaila diagu hemengo jendea esnatzen.

Zalantzas eta tristuraz begiratzen nituen bide ertzetan hain txukun zaindurik agertzen ziren baserri ederrak, eta kaminoaren ondoko muino eta pentze leunak:

— Etxe hauek, ordea, politak dittuk, euskal tanke-rakoak.

— Ikusten dituan etxe horiek, paristarrenak eta bordaldarrenak dituk, ez gureak; eta aspaldidanik galdu ziaten beren baserriartasuna. Gehien-gehienak frantsesen «résidence secondaire» delakoak dituk.

— Nola esan duk hori?

— Berdin duk hitza. Bakaziotan baizik irekitzen ez-tiren jauntxo-etxe arrotzak direla. Askotan, horietxetan bizi dituk gure etsairik handienak.

Ezin nezakeen hura guztia kolpez sinets:

— Egurra behar ditek hauek —erantsi zuen Moniquek—. Egurra! Eta orduan esnatuko dituk. Ez lehenago... Gu bezalaxe!

Eta isildu egin zen une batez. Geroago, berriz:

— Orain «Anai-Artea»n utziko haut, Donibaneko erdi-erdian. Afaldu hortxe egingo duk, eta lo ere bai. Eta bihar goizean goizik, neronek eramango haut Zo-

koara. Gaur gauean, dena dela, ez hadi kalera irten. Badakik... Eztakik, egia esan...

— Ez, ez. Enauk irtengo.

— Eta pisu horretan topatuko duan jendeari, ez galdera gehiegirik egin. Hi bezala zeudek batzu, gaurko gaua pasatzeko etorririk. Koltxoneta piloa aurkituko dut bazterretan. Eztuk normalean horren beterik egoten... Hemendik aurrera zer gertatuko ote zaien eztakiten etorri-berri batzu ere bazeudek... Batek edo bestek hiri galdera gehiegi egiten badik, ez erantzun. Eta kitto!

— Ondo zegok.

Sukaldean bakarrik gosaltzen ari nintzenean, mezu izkutu bat pasa dit Koldok, pisuaz arduratzen zen gazteak:

— Monique daukak beherean, zai.

Jaitsi egin naiz. Bezperako kotxe bera sotoaren ondoan:

— Kaixo! Ongi lo egin al duk?

Herria atzean utzi, tren geltoki bat ezkerretan, eta ibai bat agertu:

— Nola du izena ibai honek? —Moniquek galde—.

Ez esan, mesedez, «Nivelle» denik...

— Etzekiat —nik.

— Frantsesentzat, Nivelle; guretzat, Urdazuri.

— Ongi duk.

Eskuin aldean hondartza txiki-txiki bat agertu da, eta itsas-hegian jatetxe bat, hondarraren gainean erai-
kia.

Urrunago, itsas aldean, kai bakarti bat eta baradera luze bat; eta beronen muturrean, dorretxo borobil bat, zaharra oso itxuraz.

— Hauxe duk Zokoa. Ezkerretan daukagun aldapa

horretan gora joanda, hortxe duk parropia. Eliza apala da, berria, zuri-zuria. Ikusten al duk?

— Bai, bai.

— Nik etzeukeat horrera azaltzerik. Sarri artio, gero arte.

Aldapan gora jendea erruz igotzen ari.

Lehenengo aldiz gertatzen nintzen erdi-deserriko egoera hartan; eta jakin-minez begiratzen nituen aber tzale ez-ezagun aurpegi haiek, eta entzun-minez neure belarriak ernatzen. Txapela asko erreparatu nuen; baina erdara, Pasai Antxoko kale ilunetan bezalaxe, urrundik nagusi. Eta bihotzean min latza hartu nuen:

«Gaur ere, hemen ere... euskara bazterturik... Ez ote dute hauek nik bezala senditzen?» Hegoaldetik heldutako jendea zen, ene ustez.

Elizara sartu; eta... hura zirrara! Aldarearen aurrean, erdian, tamaina handiko fototzar bat ageri zen. Fotoa baino, zehazki hitz egitekotan, fotoaren gainean egin dako marrazki zakar bat zen. Antza bazuen, ordea; handia. Eta azpian, letrero bakar hau: «Iñaki». Eta ikurriña handi bat zintzilik, erdian krespoi beltz batez horniturik.

Elizako bi saihetsetako balkoi luzeetan, gizasemeak ageri ziren erruz, zahar eta gazte.

— Ba al dakik —batek belarrira— makilla eskuan daukan jaun hori, eskaillera ondoan ia-ia, nor den?

— Kaixo, hi! —izua nekez disimulatuz—. Ez, etzekiat.

— Telesforo Monzon duk. Bere onduan daukana, berriz, Ixidro, anaia.

Mementu bat pasa zen isilean; eta nik berriro heldu:

— Baña, zer ari haiz hi hemen?

— Ez hekien ala? Orain dela hamar hillabete egin nian eskapo. Baionan bizi nauk... Oraingoz!

«Ezin izenaz oroitu! Hau marka! Antxotarra, baina jatorriz Loiolatarra edo... Baina, izena?»...

— Poztutzen nauk hi hona etorrita, Exkixu —erantsi du ahapeka—. Enekian nik hik ere...

Eta orduantxe konturatu nauk:

— Xanti Markuleta? —galdetu diot ahotsa sobera altxatuz.

— Bera! —arrapostua.

Kantak eman ditugu, eta otoitzak... Denak euskara hutsez.

— Bere bizia lanjeretan emaitako heinean maite zuen Iñakik Euskal Herria —esan du Aita Lartzabalek—. Orain dela bi hilabete eskas ospatu genuen Jon Goikoe-txea «Txapela»ren heriotza latza. Hori baita herri honi tokatu zaikon ifernua.

«Iñaki Urdanpilletak ere, gure populua zafratzen duen mandilkeria ezin jasanez, gudarien alderdia hautatu du. Bere bizia eskaini zion herriari, eta bizia galdu du faxismo pean...

«Bedeinkatuak zuek justiziarengatik sofritzen duzue-nok, erran zuen Kristok, loria zuena izanen baita.

«Gaztetasunak etorkizun ezinago ederra proposatzen zion mementuan, bere odola eman du Iñakik martiriek bezala.

«Eta, bihotza zauritua, berritz eta berritz, galdera bera egiten diogu Jaungoikoari: zeruko Aita, noiz artio zure zigorpean bizi beharko du euskal populuak? zer hobenen gatik, zer kalte eta nori eginik, euskal jendetzak merezitu ote du, gaur bizkarrean daukan gaztigua? Bertzen menpean bizi behar, bereak dituen bezalaxe, bere etxean auzokoen morroi eta eskale, bere itu-

rriez agortua eta bazter-iturriez itoa!... Noiz artio lapur harroak ditu hola zafratuko, espetxeratuko, tirokatuko gure seme-alabak?»...

Hotzikarek hartzen ninduten goitik behera.

«Badakigu badirela borrokatzeko hainitz jokamolde. Gure fedezko erakaspena da borroka gaiten ahalaz bakezko moldez. Bortizkeria dela azkena; eta ez dela hartaratu behar jokamolde baketsu guziak higatu ondoan baizik.

«Gaur hemen elgartzen gaitun mutil honek, eta gutarik askok, pentsatzen zuten, eta pentsatzen dugu, ez dela Euskaldi libratuko beso armaturik gabe. Alabainan, bakezko bide guziak, hetsiak, zerratuak ikusten ditugu»...

«Agian ikusiko dugu guk, luza gabe, Iñakik ikusi ez duena: gure populua bere buruaz jabeturik; eta Euskadiren barruan jauntxokeriarik gabeko herri bat.

«Agian bai, behin eta mila bider!»

Eta ezagutzen ez nuen kanta martxoso bezain hunkigarri bat entzun da orduan elizatzon:

«Arrotzek ezpataz hiltzen banaute
izituko gaituztelakoan,
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz
nere hiltzailearen aurrean»...

Altzako kanposantuan jarri zitzaidan oinaze bizi berbera kokatu zait eztarrian, han baino azkarragoa; eta nire begietatik geldo erazi ezinezko malko-ttanta bat isuri da, eta masailan behera abiatu:

«Neuri dagokidanez bederen, zin egiten dut, berriro, Iñakiren heriotza ez dela alferrikakoa izango».

«... mutilak: ez gero nigar egin
erortzen banaiz gau ilunean,
izar berri bat piztutzero noa
Euskal Herriko zeru gainean»...

Eta gero, behin eta berriz errepikatzen zelarik:
«lepoan hartu eta segi aurrera».

Elizaren ondoko zabalunean eta aldapan, eta atzeko belazean, pilatu da jendea. Giro harrigarria niretzat. Borrokalariz eta gudariz inguraturik, ez nuen handik aldegitoko batere gogorik.

Markuleta hurbildu zait horretan, eta hauxe baka-
rrik esan:

— Moniquek bidali nau higana. Eztela komeni hi hemen luzatzea; eta hortxe beheko bide-gurutzian da-
goela zai.

Dantxariaraino eraman nau inon gelditu gabe.

Neure barrua hustu diot harakoan, sobera beharba-
da; eta Espainiarekiko neure herra aitortu diot, osoa eta
hazkorra.

— Berezi egin behar dituk hobeto España eta espa-
ñolak. Hauetako askok, gehienek, espāñatar burgesen
zapalketa pairatzen ditek; eta eztituk gu baino errudu-
nago.

— Egia duk, beharbada. Baina ni Alzatarra nauk,
eta gaur Antxoko kalia bizi. Eta hi, nongua?

— Eztuk komeni xehetasun horiek gure artean jaki-
tea. Aldatu egin behar duk piska bat.

Lotsatu egin naiz, eta erabat isildu.

Muga atzerantz gurutzatu dudanean, kontrolik ez ze-
goen zubi nagusian; eta are gutxiago benttetako zubi-
txoetan. Igandea zen, eta eguzkiak ez bide zuen jendar-
meengan eta guarda-zibilengan muga madarikatua zain-
tzeko gogo berezirik sortzen.

Berandu iritsi nintzen etxera, oraindik ere etengabe
Zokoako kantzak eta hitzak neure barnean hausnartzen
nituelarik.

Eta horretan ama etorri zait gelara:

— Baña, nun ibilli haiz? nun pasa duk gaua? Abi-
satu ere gabe... Esan zak zerbait! Nun ibili haiz?

— Hortik! —nik.

Atekada bat, eta joan egin da.

Handik egun batzutara, Ekaineko egun luze eta be-roak Euskal Herriaz nagusitzen hasiak zirelarik, sospresa galanta izan nuen garajea: atea zabaldu dut, eta... Monique bera neure aintzinean. Hura izua!

«Zer gertatu ote da?» nik pentsatu.

Asaldaturik, «Altzibar» tabernan itxaroteko esan nion, eta, denak utzita, bertan behera irten nintzen harantz:

— Motell! Nolako ikara eman didakan! Hi hemengo aldian?...

— Neskabila xarmant bat ikustera heldu nauk, badakik...

— Tira, tira! Eztittuk txantxetako gauzak! —nik.

— Zer nahuk, beraz? Umorea ere galtzea? Horrenbesteraino ere eztuk. Lasai!... Nork daki hemendik nabillenik?... Hirekin hitz egin behar nitek. Hori bai. Eta bihar baino gaurtxe hobe; joan egin behar diat eta.

Une hartatik aurrera esango zidanaz, «zer gerta ere»

behin eta berriz errepikatuz, ezertxo ere inoiz ez salatzea aginerazi zidan; eta nire agintza hura nigandik garbiki entzun arte, ez zuela txintik aterako.

— Eztiat honetaz sekula fitxik esango —esan nion—. Zin egiten diat.

Informazioa bildu behar zutela esan zidan, zertarako zen batere zehaztu gabe. Niretzako arriskurik gabeko betekizuna izango zela, baina berentzako oso inportantea.

— ETAKoa nauk —esan zidan orduan, brauki.

— Zer uste duk? zalantzatan nenbillela ala?...

— «Joxemi» jarriko duk hirekiko harremanetan. Eta zuek biok, segidan, ahalik eta azkarrenik, baina korrikegi ibiltzeagatik xehetasunak oro ahalbait ongienik bildu arte etsi gabe, «Ramírez y Ochoa S.A.» enpresako langileen ordainketa noiz eta nola egiten den jakin behar duzue.

Errenderi ondoan zegoela-ta, baneukan entzutea enpresa hartaz.

— Datu bilketa-lan hori amaituta —erantsi zuen— hi lasai egon hadi: informazioa Joxemik berak heleraziko ziguk.

Eta isilune bat utzita:

— Beldurrak al hago?

— Ez, ez —erantzun nion irmo—, Beldurrik horrek?

Ez.

Eta baiezkoa eman nion.

Iñaki Urdanpilleta buruz buru ez zuela inoiz gurutzatu esan zidan; baina organizazio barruan sekulako entzute ona zeukala, eta berorren heriotza «galera gaitza» izan zela «euskal mogimendu iraultzailearentzat».

Logalea erabat galduta nengoen gauean; eta Felixek zerbait erreparatu zuen nigan:

- Antton!
- Zer?
- Arnasa ongi hartu ezin ala?
- Ez, ez: katarro apur bat harrapatu diat.
- Maiatzeko udaberri giro honetan, eta katarrua harrapatu?
- Bai. Harrigarria duk.

Aste pare bat beranduago, «Portu-ondo» taberna-ko barran, eta ordu bata ta laurdenetan juxtu, haraxe azaldu zen gazte sendo bat. Potolo xamarra zen. Eta ezkerreko eskuan, txilibitu luze antzean bildurik, eguneko «La Voz de España» zeraman, letra horiek agirian uzteko moduan.

- Kaixo, Pepe.
- Kaixo, Joxemi —nik.

Oso makal zebilen euskaraz; eta edozein gauza azaltzeko, nik behar nukeen baino hiru edo lau aldiz denbora luzeago behar zuen gizarajoak. Halaz guztiz ere, hitzik ere ez zuen erdaraz bota nahi izan:

— Euskaraz nik zeuk bezala baneki... ez nintzateke zuen belaskeriatan ibiliko... Beti euskaraz, eta kitto!

Barre egin nion nik batzutan; baina berak ez zuen amore eman, eta euskara hutsari eusten zion gure lehen-dabiziko elkarketa hartan.

Hemendik eta handik, «Banco de Santander»ak Errenderiako ordainketarako erabili ohi zuen furgoneta ezagutu genuen; eta diruketaren heltzea hiru aldiz jarraitu genuen zehatz-mehatz. Eta txosten bat pres-tatu genuen, planoak eta guzti. Eta «gora» bidali genuen. Joxemik bidali zuen, egia esateko. Ez nik, eta ez biok.

Eta zenbait astez desagertu egin zen Joxemi nire bizeratik.

Egunero egunero, prentsa erosten nuenean, edo-ta irratia entzuten, «Ramirez y Ochoa» hitzak bilatzen nituen aurretik.

Zai egon hartan udako egun batzu joan ziren, asko ene ustez. Eta berri hura noiz helduko edo mamituko aspertu ere egin nintzen.

Abuztua aurrera zihoalarik, ordea, kartazal urdinska kaxkar bat jaso nuen lantegian.

Ahalik eta ongienik disimulatu nuen neure kezka; eta galdera bakar hau Germani egin:

— Nork utzi du?

— Etzekiat. Hirezako dela emakume gazte batek esan, eta alde egin dik. Zahar xamarra hire aldean, nik uste. Baina ona zegoan oso!

Amorru handia eman zidan eztenak. «Nota hori German alu honen bidez iritsia... German «zerbait»en jakinaren gainean utziz»...

— Hau suberte txarra! —pentsatu dut—. Berehala jakin eraziko ziek bere laguntxoei...

Komunera joan naiz; eta han azala zabaldu.

Paper-xerrenda ximur bat. Eta makinaz idatzirik, hitz madarikagarri hauek: «Joxemi hospitalizado stop Monique».

Dar-dar jarri naiz segituan. Ordura artean ezagutua ez nuen dardaraldi harrigarrian: «Ustel hori!»...

Baina esanahi izkutuak ez zuen baikor gelditzeko tar-te handirik uzten: Joxemi «eroria» zen. Eta txakurrada nire bila etxera edo lantegira agertu baino lehenago desagertu behar nuen batetik eta bestetik.

Joxemi «erori», ordea... nola? noiz? Oraindik ezer

eginik ez neukala, eta... ihesi!! «Ramirez y Ochoa» fabrikaren berririk agertu baino lehenago, hanka egin behar... Ez nuen konprenitzen. Eta amorrazio izugarriak bete zituen nire erraiak.

Filosofatzeko astirik ez, ordea. Eta buzoa erantzi, eta Germani bakarrik «berehala itzuliko nauk» labur bat esanda, desagertu egin naiz antxintxiketan.

Egoera horietan etxera inolaz ere ez azaltzeko agindu hertsia zegoen; eta izeba Emiliri telefonatu nion kaletik:

— Zuk ikusiko duzu gurasoei zer edo nola esan; baña oraintxe nua pedidua jasotzera.

— Ondo zegok. Moldatuko nauk. Lasai juan. Oraintxe arte.

Diru piska bat eman zidan; eta Errenderiako geltokian bertan hartu zidan taxi bat, eta Dantxarinearaino.

Taxista harrituko ote zen ere ez zitzaidan bururatu. Geroago konprenitu nuenez, oso zuhurra izan zen kotea izebak eskatzea, eta ez nik.

Inguru hartan, lehengo eguneko bake berbera; nahiz bakardaderik ez, frantses, holandar eta alemaniar kotxeak elkarri jarraitzen baitzitzaizkion gora eta behera. «Alarmarik ez, itxuraz. Hobe, egia esan, joan-etorri bizi honetan».

Errekatxoa pasa, eta Moniqueri deitu nion «Chez Lilianne» tabernatik. Etxen ez zegoen: «kaka zaharra!», pentsatu nuen. Hemen egon behar ordubetez, ordu pare batez beharbada.

Neure biziera guztian pasa (eta pasako, nik uste) dudan egonaldirik luzeena eta neketsuena izan zen hura. Garagardo mordoska bat edan nuen ilaran, kafe pare bat ere bai... Besterik, ordea, zer eska? Turistak ez ziren urri, beharrik!

Jendarme bikote bat sartu da horretan tabernara. Eta, besterik gabe, niri begira paratu. Neure ezinegona gora zihoalarik, begirada aldatu dut nik, nora begiratu ez banekien ere.

— Bon soir, Lilianne —esan dio irribarrez bigotedunak etxeko-andre artifizialari—. Deux «ricards» s'il vous plaît... Il fait très beau, hein?

Disimuluan erreparatu nuenez, behin eta berriz begiratzen ninduten biek. Ez neraman turista itxurarik bati. Alferrik izango bazen ere, hara zertara joan ote nintzen asmatzen hasi nintzen: «Donostian ezagututako frantses neska bat... neska leuna bera, Jeanine izenekoa, baionesa... «Alderdi-eder»en ezagutua, bera nekez barkillo zabal bat erosten saiatzen zenean... eta...». Papeirik gabe, ordea, ipuinok oro... eta 21 urteak oraindik bete gabe, eta soldauzka egin gabe, eta... Askil lan!...

Alde egin dute biek usterik gutxienean.

Eta berehalaxe, telefonoa seigarren aldiz hartuz, Donibaneko zenbaki berera deitu dut. Eta oraingoan, bai. Ez dut neure burua ikusi, baina aurpegia, ziur nago, argitu egin zait nabarmenki:

— Hemen negok, motel... Antton, bai; bera... Bahekie, beraz?... Ba, hori duk, bai, lehengo leku berean... Pentsa! Azkarrago, eta hobe.

Gogoz hartu dut arnasa, eta mahaira itzuli naiz. Lehenengo aldiz erreparatu dut pareta-pegartegi zaharretako ontzi multzoa.

— «Ricard» bat, otoi! —eskatu dut—. Ez, ez: oraingoan urik gabe.

Likore famatua nazkagarri zitzaidan; baina Moniqueren aholkua segitzen ari nintzen: «Iparraldean, 'ricard' beti». Edari horixe omen da harako pasaporteak, eta ekin egin behar. Napar ardoa izanik... Baina Moni-

que berehala helduko zen esperantzan, eta lehengo jendarme-bikotea baino lehenago agertuko zelakoan, edangarri iruditu zait zuku gozo itsaskor hori.

— Ondo egin duk —esan dit azkenean Moniquek, bizkarrean esku-ukaldi zatar pare bat emanetz—. Goazemak!

— «Ramirez y Ochoa» —nik galde—. Ezer ba al dakik horretaz?

— Bai. Komandoko bat erori duk; eta bik egin ditek eskapo. Oraintxe entzun diat irratian albiste ofiziala. Txakurrak gure zai bide zeudean Errenderian; eta gureak hara azaldu ordukoxe, tiroka hasi bide dituk besteak. Erantzuteko erarik ere ez titek gureek izan; eta deskalabroa gertatu duk. Lauzirika delakoa, «Joxemi» beraz, bertan harrapatu ditek. Eta honek eman bide dizkik gero izen eta zertzelada batzu.

— Horren azkar Joxemik kantatu?

— Pentsa, beraz, nola tratatu duten. Onean ezpaitzuen Joxemik ezertxo ere salatuko.

— Eta nire izena azaldu ote da?

— «Pepe»?

— Ez, ez. Antton Arraiza.

— Enian nik higandik hori guztia jakin behar. Izena banekian, baina deitura ez.

— Barka!

— Etzekiagu. Balitekek komandoko beste batek, «Joxian» gaitzizenez, polizi-inguraketa hautsi izana. Nola? Kamiseta zuria eta kirol-galtza diztiranteak jantziarik, zakur zaindarien erdi-erditik pasa bide duk... «footing» eginez. Egin egin beharra zegok hori. Bikaina izan duk!

— Eta, hirugarrenaz zer?

— Zaurituta omen zegok. Irratiak esan duenez odol-

-tatxa ugariak utzi dizkik, eta mendian gora desagertu omen duk. «Joxian» salbu zegok; baina honetaz etze-kiagu ezer oraingoz. Diru-zaku pare bat omen zeukea-ten kotxean sarturik. Baina tirokaldia hastean, bertan utzi behar dena: bai bi diru-zakuak, eta bai «Stein» be-rrri bat. Tamalgarria izan duk!

Pentsakor gelditu nintzen.

— Eztakienak ezтик kantatzen. Dakienak, berriz...

— Gaizki egin diat, bai. Berritsuegia nauk.

— Jarri egingo haiz piskanaka.

Etzekoez oroitu nintzen, izeba Emiliz. «Gehiegi ze-
kik hark, dudarik gabe». Eta izutu egin nintzen.

Donibanerakoan erreparatu ere ez nituen egin Ain-
hoa, Senpere, Azkaine... Jendez mukurru, kanpiñak be-
terik, ez nuen ezer senditu.

Donibanera heldu ginen. Kaleak eta Louis XIV pla-
za, udatiarrez gainezka. Arratsa, berriz, bero, bikain,
argitsu. Udaletxearen ondoko terrazetan, turista asko eta
asko, ehunka, pozarren itxuraz. Neska ederrak «short»
motz-motzetan, larrua ongi bezturik, eta begiradak
ausart; hamaika mahaitan ilunabarreko aide epela das-
tatzen ari.

— Hemen daukak, Pepe, hemengo errealitatea! Ito
egin gaituzte, eta barre algaraz ito!

Etxe hormetan, kartel berbera mintzo: «Août 1972
— Saint Jean de Luz, Côte Basque — La Fête du Po-
ttok — Danse jusqu'à l'aube».

— Ikusten duk, Pepe? Que c'est beau le Pays Bas-
que!»...

Erdi gupidaz agurtu nau Koldok, etxe zaindariak.
Hori iruditu zait behintzat:

— Berriro hemengo aldian?

«Oraindik ezer espezialik egin gaberik, eta ni he-

men... Ihes eginik... berriro arrotz... berriro putakumez inguraturik... putakume desberdinez, barka!... Baina neure herrian arrotz!... Hogeitabat urte bete baino lehenago, herrigabeturik.

«Anai Artea»ko etxe-bizitzan plaza alderako balkoia daukan gela bat eman dit:

— Orain dela hiru hillabete baño hutsago zegok hau. Hobe hiretzat. Aprobetxa zak!... Bederatzi t'erdietan afalduko diagu. Ordubetetsu badaukak, beraz, itzuliño bat egiteko. Nahi baduk... Tenoria baño lehenago azaltzea, hobe.

«Tenore» horrek barregura eman dit. Baina berehala, egoeraz jabeturik, lehengora etorri naiz:

— Noiz arte ihesaldi hau?

Kalera jaitsi naiz, eta hondartzaraino hurbildu; kale eta kalesketan turista oste gaitzak gurutzatuz.

Hondarrean eseririk, maitale bikote bero batzu ikusi ditut, musuka amorratuan. Eta Gurutzez oroitu naiz; baina lipar iheskor batez bakarrik.

Ezkerraldetik, zero horiskaren gainean gailentzen zelarik, Zokoako dorre borobilaren hizla erreparatu dut. Tarteka itsas haize bala hozkirriek agurtzen ninduten. «Lepoan hartu, eta segi aurrera»... hiru hilabete jadanik... Eta Iñakiren oroitzapena iltzatu da nigan.

Andere zahar pare bat pasa da une horretan ene ondotik; eta bide-lagun zeramaten zakur luze itsusiak, zaunka egin dit brauki, atsekabe eta zorrotz. Erretolika bota dio atsoak zakurrari. Ez dut ezer ulertu.

Eta atzerritar paseiariz inguraturik, bakardade kutsua zerion ilunabar ederrean, niretzat atzerrialdi hotza hastera zihoala konprenitu dut.

«Goiko»en aginduz, Anai-Arteako etxebizitza utzi, eta aldatu behar nuela esan zidan Koldok. Erorketa larria gertatu zela Bizkaian, eta Hegoaldetik jende asko zela etortzekoa. Nire kasua argitu artean, Hendaiara joan behar nuela.

«Hondar-gain» xalet txikira eramán ninduen Moniquek. Euskal tankerakoa zen, pisu bakarrekoa. Frantses turistak joaten hasiak ziren; eta udazken hasera garai hura, oso egokia omen zen halako etxe batetan sartzeko; pila bat gelditzen baitzen hutsik. Udara arte bakarrik, jakina; eta horregatixek, merke xamar alogera zitezkeen.

«Hondar-gain»etik atzeko aldetik irtenez gero, «Avenue des Magnolias» delakoa gurutzatu, eta Xingudiko kolkoa neukan berehala; eta atzean, uraz bestaldera, Irun, Urdaburu, Aiako harria:

— Ia-ia Ezkizu-bekotik bezalaxe ageri duk inguru berbera: Jaizkibel ere hortxe zegok. Eta «l'Espagne»,

hemengoek esaten duten bezala.

Egunero «Hondar-gain» gainetixek pasatzen zen Hondarribiko hegazkinak, askatasun egarri sakona piztutzen zuen nigan.

Aurreko aldetik irtenda, berriz, «Mimosas» kalea lehendabizi; eta eskubitara «Plaqueminiers» kale laburra muturreraino kurrituz gero, Hondarraitz hondartza luzea ageri zitzaidan, eta itsaso zabala bera. Harago, Donibane aldera, Galbarretako harkaitz bikote berezia (frantsesek «Deux Jumeaux» bataiatua), eta Abbadia-ren gaztelu miresgarria; eta atzekaldean, hondartzatik ezin ikusia, Lohia kolkoa, zinez lohitsu eta labaina. Iparraldean harroketan etengabe lehertzen ari, olatu apartsuen ilara azkengabea, beti ere lur-muturra erasotzen ari.

Leku atsegina zitzaidan Hendaia, bakarti, baketsu (ez bainuen oraindik uda betean ezagutu). Egunak nabarmenki laburtzen diren urte-sasoïn hartan, leku malenkoniatsua, nire barrena bezala. Horixe izan zen behintzat nire lehenengo inpresioa.

«Hondar-gain» barruan, ordea, besterik topatu nuen.

Bost lagun bizi ziren han. Gaitzizenez bakarrik eza-gutu nituen; eta nongoak ziren ere ez nekien. Baina bostotatik lau, erdaldunak, hori bai.

Etxe hartan, hitz batez, erdara hutsez bizi ziren. Lasai, itxuraz; «ezinbestean», azaldu zidatenez. Eta zertzelada honek, besterik gabe, uzkur jarri ninduen:

— Euskaraz ikasteko asmorik ere eztuzue?

— ¿Cómo dices?

— Dice que si no tenéis ni intención de aprender euskera —itzuli zien taldeko euskaldun bakarrak.

— Un revolucionario tiene muchas cosas que hacer —bota zuen batek.

Germanen hizkera bera zen hura.

Ez nuen ezer erantzun.

Euskaraz zekien bakarrarekin harreman berezia lortzen saiatu nintzen. Baina biok buruz buru gertatzea zaila zen; eta, horrez gain, «barrura» pasa zen handik egun batzutara. Eta geroztik ez nuen behin ere ikusi.

«Hondar-gain» inguruan pasa ohi nuen eguna. Etxe hartakoek zeukaten irrati bakarrean —ordu berezitan «Radio Pirenaica» eta «Radio Paris»ez aparte— «Radio Nacional de España» entzuten zen ordutan barrena; baita kante flamenkoko aire batzu letrak eta guzti segitzen. Frantses irratirik ez zen inoiz entzuten:

— ¿Para qué quieres oír a los gabachos? No se les entiende ni hostia...

Jangelako paretak oro posterrez estalirik zeuden. Batean Marx, Engels (uste dut), eta Che Guevara. Beste batean Lenin ageri zen, euskal txapela buruan zeramalarik; eta beronen bi alderdietan, pieza bakar eta ñimiño bakar batez jantzirik, bi neska zoragarri, zutik, irribarrez.

Tarte batean, elkargainka, Mao ea Gramsci (betaurrekodun hau nor zen beherean irakurriz jakin nuen, noski).

Ikurriña handi bat pasiloan, bost puntatako izar gorri eskerga batez ia estalirik.

Komunean, berriz, beste poster handi bat topatu nuen, atearen barruko aldean eskegita: apaiz gizen bat ageri zen, aurpegia guztiz gorri, bere sotana bi eskuez atzetik altxata, eta lekuari zegokion «operazioa» kuku-bilko egiten.

Sukaldean, bestalde, paretaren kontrako altzo batean, hogeit bat liburu ikusi nituen: denak erdaraz, eta ia denak marxismoaz.

Etxe hartan arrotz antzematen nuen neure burua; erabat arrotz. Eta kalera irteten nintzen maiz; ahalik eta maizenik, hobeki esateko.

«Chita» kaferaino joan ohi nintzen bazkal ondoan; eta han musean ari zirenek, beren artean frantsesez ari baziren ere, euskaraz botatzen zituzten jokoaren hitzak: «jokoa bai», «hordago»... Eta xehetasun ximple honek poz handia ematen zidan. Bertako nagusiarekin ere euskaraz mintzatu ohi nintzen; eta hark, kostata batzutan, euskaraz erantzun ohi zidan.

«Hondar-gain»dik ihes egiteko asmoa etorri zitzaidan halako batez. Ihesi joango, ordea, nora? nola, batez ere? Bertan ikusten nuen Hondarribia; eta «Enbata» kafetik ongi berezten ziren hondartzaren gainetik pasean ibiltzen ziren irundarrak eta onddarbitarrak. Bertan, bai. Baina...

Donibanera joan nintzen arratsalde batez, «Le Basque Bondissant» izeneko autobus batean; eta Monique-arentzako zita bat utzi nuen Anai-Artea-enean. Azalpenik eman gabe, ahalik eta azkarrenik ikusi behar nuela idatzi nion.

Niretzat bezperan heldutako eskutitz bat eman zidan Koldok:

— Presa omen dik; eta Hendaiara gaurtxe bidaltzeko asmoa nian. Irakur zak oraintxe.

Kartazala ireki, eta berehala izeba Emiliren letra eza-gutu dut:

«Kaixo, Antton: larunbat honetantxe (etzi, beraz) Hendaiara joango nauk hire gurasoekin. Non bizi haizen bazekiat; baina zita Hendaiako «Sotua»enean egingo diagu; «Argoity» liburu-dendaren aurrean, badakik. Hor bertan laurok afari-merienda eta hitz-aspertu bat egiteko. Zazpietan, beraz, hantxe egongo gaituk hire zai. Be-

sarkada handi bat, eta aurki arte. Emili».

Alimaleko kupelen arteko jangela bakarrean eseri ginen; eta arrain-zopa eta okela piperrekin eskatu.

Uste nuen baino trankilago topatu nituen gurasoak; nire jokamoldeaz edo ihesaldiaz ez baitzuten ezertxo ere esan. Afaritakoan hitz gutxi egin zuen aitak; baina baikor agertu zitzaidan:

— Eztittuk hire billa etorri: ez etxera, eta ez garajera. Bazirudik, hitz batez, hire izena ez dela agertu. Bengoetxearekin hitz egin diat; hi berriro garajea hartzeko prest zegok. Heuk ikusi behar duk, jakina, heure lagunekin; baina «falsa alarma» izan dela zirudik.

— Hobe hola! Hemengo neure lagunekin hitz egingo dut; eta, zertan nagoen abisatuko dizuet.

Jangela oso zabala izan arren, jendez betetzen hasia zen. Eta horretan kantari talde bat aurkeztu da bertara. Zaharrenak soinua jotzen zuen; eta oso ausart eta lotsagabe zirudien.

Kanta bakoitzaren aurkezpena frantsesez egin ondoren, euskarazko eta frantsesezko batzu bota dituzte, artean mahainen artean irriz eta oihuz pasatzen zirelarik. Jaleak loriaturik zeuden, esan beharrik ez dago. Ni, berriz, ezin ezer esan; baina euskal-frantses adiskidekeria horrek, Hegoaldeko «Coros y Danzas» edo horrelako zerbait gogorarazten zidan.

Okerrena falta zen, ordea.

— Et maintenant —esan du goratik soinu-joleak— tout près que nous sommes de l'Espagne, on va chanter très fort, mais tout le monde ensemble, «Que viva España!»...

Goragalea senditu dut, bortizki; eta izebak berehala igarri du:

— Lasai, Antton! Turistak dittuk!...

— Eta soiñu jolia? Euskaraz badaki, guk bezain ongi...

— Hala duk, bai; baiña... badakik!

Eta behin eta berriz errepikatu dute denek beren indar guztiez: «que viva España», «que viva España»...

Kanta bukatzean, eseri egin dira denak, umorerik ezin hobean.

Eta sortu den isilaldi berrian, izeba mintzatu da gure mahaian:

— Hilayo: joan egin beharko diagu. Ez duk uste? Bestela berandu egingo zaiguk.

Zabaldu bezala egin zait zerua. Hura zuloa!

— Egia esan, arrain zopa ona zegoen —amak esan. Kalera irten gara.

Gure «Seat 600» zuri kaxkarra, eskola aurrean zegoen, eskolaren aurrean. Eta hartzerakoan berriro irakurri dut gerlaondoko oroitarriaren testua: «1939-1945 — Aux héros de la Patrie». Eta, beherean, berrogei bat izen, euskaldunak maiz oso: «Morts pour la France».

Nardaturik, familia agurtu dut laburki; eta Xingudi kolkoa uraren ertzetik inguratuz, eta eskuin aldean nabarmenki zainduta zegoen «Consulat d'Espagne» delakoa eskuin aldean utziz, «Hondar-gain»era hurbildu naiz.

Arratsa, epel. Haize arrastorik ez. Jaizkibelgo hegia, beltz eta zehatz zeru horiaren gainean.

— ¡Buenas noches, gudari! Gabon! ¿Qué tal con los aiatxus?

Ez diet ezer erantzun.

Eta zuzenean bildu naiz gelara.

Handik bizpahiru egunetara, «Hondar-Gain»era azaldu zen Monique bere «Peugeot» zaharrear:

— Berri onak zeuzkeat —esan dit.

Eta «Chita» kafera irten gara kafetxo bat hartzera:

— Hire izena eztuk agertu. Beraz, barrura joatea badaukakala esan ditek.

— Oso berri ona duk, baina...

— Baina, zer?

— Barrura niak, lasai. Eztuk alde horretatik.

— Hortaz, zeinetatik?

— Barka egidak, Monique; baina disimulurik gabe hitz egin nahi nitek gaur... Nor dira nirekin dauden lau horiek?

— Izen-deituraz nor diren etzekiat.

— Noski! Baina, zer dira, nondik etorri dira?

— Organizaziokoak dituk. «Frente Obrero»koak dituk. Langile mundutik zetoztik; eta beste sendikera bat ditek. Eztituk euskaldunak, bestalde, gu garen bezala.

Baina helburuetan ados dituk gurekin.

— Etzekiat, ba.

— Badakik dagoeneko: «nosotros tenemos otro concepto del abertzalismo... nosotros somos marxistas... solo siendo marxista-leninista se puede ser abertzale»... Ez al diek oraindik horrelakorik entzun?

— Horixe! Eten gabe, motel.

— Gure arbasoek «euskaldun, fededun» esaten ziaten. Eta hauek, beste muturrean, hori. Zer axola?

— Nola diok «zer axola»? Abertzaleak al dira?

— Zergatik ez? —Monique gaitzi antzean erantzunez—. Ez haiz hi PNVkoak bezala hasiko, ezta? Faborez! Txatxukeria horiek: «Ezinezkoa da abertzalea eta marxista izatea». Tira, tira, Antton!

— Nik etzekiat ezer teoriaz, eta ezin erantzun. Baina nire galdera hauxe duk berriz: abertzaleak al dira?

— Bego galdera hori. Eta nik orain beste hau egingo diat: «PNVkoak abertzaleak al dira? Jokabide abertzalea al da hemengo euskaldunekin hartua dutena hartzea? Jokabide abertzalea al da PSOekoekin ez haserretzeko, gu zapuztea? Jokabide abertzalea al da euskaldun abertzaleak «Servicios» delakoen bidez, amerikarren eta CIAren beraren esanetara jartzea?

Barne-oreka galtzera nindoala iruditzen zitzaidan:

— Nola esan duk? «Servicios»... Zer da hori?

— Zuek eztuzue hori ezagutu. Baina organizazioan haseratik ibili direnek oroitzapen txarrak dizkitek horretaz. Galdegiek, bai, PNVkoei.

Ezer ez nekien gai hartaz. Ezer ez nekien ezertaz!

— Aspaldiko kontuak dituk, jakina: gerraondoko «konddarrak»... Baina hori ere egin ziaten PNVkoek. Abertzaleak al dira, beraz?

— Enekian hori.

— Orain badakik. Areago esango diat: euskaldun burges bat, langileak bere lantegian esplotatzen dituen bat, izan al daiteke abertzale? Zer axola zaio langileari Rodríguez del Coscojuelok zein Etxeburuak esplotaturik bizitzea? Hik esango didak...

Egia zela senditzen nuen. Baina ez zuela horrek nire galdera osoki erantzuten.

— Lasai, motel. «Politiko» horiek, gutarrak direnean ere, hitz hanpurus asko; eta gero... ziriña! Ez kasorik egin. Horiek horrelakoak dituk. Emaiek pakea!

— Berek ez guri, ordea. Ideia horiek zabaltzen dizkitek...

— Ideiak!... Egurra ematen dutenak: horiek dituk inportanteak organizazioan. Bai Euskal Herrian, eta bai Madrilen ere.

Ez ninduen guztiz komentzitzen.

— Gainera, egia esan, zertarako nahi dugu Euskadi askatu?

— Geure etxian gu geure buruaren jabe izateko — erantzun diot brauki—. Geure etxian arrotz ez bizitzeko.

— Zer iruditzen zaik arrotzago esplotatzen hauena baino? Langilea esplotaturik dagoeno, aberririk ez berarentzat. Burgesek ditek aberri bat, ez guk. Berek bai beren etxea nahi bezala gobernatzen dutelako, politikariak barne. Eta berek ere aisa salduko ditek lau sosetan...

Isilunea luzatzen hasten zen.

— Zergatik eztidak ezer erantzuten?

— Zer erantzungo, ordia?

— Esaten dudana arrazoizkoa duk, etzaik iruditzen?

— Bai, hala duk... Baiña... lau horiek, abertzaleak al dira? Prestatzen dituzten «panfletoak» abertzaleak al dira?

- Etzekiat. Berdin duk.
- Nola «berdin»?
- Inork eztizkik letzen. Eta letuta ere, jai zeukatek: ezin konpreni. Hara! Neure iritzia emango diat orain-txe: eraiki nahi dugun Euskadi horretan, denak izan behar dik denona, aberastasunak barne, fabrikak barne. Marxismo-leninismoak borroka horretan laguntzen badigu, betor ordu onean!
- Sobietar modelo Euskal Herrira?
- Tira, tira, Antton! Eskuindarrak bezala mintzo haiz.
- Ni ez. «Hondar-gain»ekoek hitz egiten ditek horrela.
- Zer diote ba?
- Marxismo-leninismoa dela soluzioa, partidu bakarra eta guzti.
- Lasai, Antton. Guk euskal marxismoa mamituko diagu, eta kitto!
- Horren erraza balitz...
- Zergatik eztugu guk lortuko? Ho-Chi-Minh-ek vietnamdarra egin dik, eta Fidelek cubatarra. Guk geurea egingo diagu, euskalduna; sozialista eta gorri-gorria, baina gurea, errotik euskalduna.
- «Bai eta ez» pentsatzen nuen nik. Eta, nolnahi ere, «Hondar-gain»eko jendeekin... putza! Baina ez nekien zergatik!
- Sozialismoan murgiltzeak gorriena ekarri dik Euskal Herrira; eta Euskal Herrian, 1936tik fazismoak bere leloak erein ondoren, anti-komunismo merkea zegok nagusi. Gainditu egingo diagu dena. Lasai, motel!
- Pittin bat lasaitzen ninduen. Baina, berriro ere:
- Ba, egia aitortuko diat, Monique: «Hondar-gain»eko horiek...

— Bai, bazekiat, Antton: eztituk abertzaleak... Kappa haiz!

— Nahukana, Monique. Horiek eztituk hi bezala mintzo. Eta diferentzia esango diat: hi abertzalea haiz, berak ez.

— Horrela baldin bada, kanpora botako dizkiagu!! —orroaka.

«Chita»eneko jendea guri begira.

Horixe entzun nahi nian, dena dela:

— Ia egia den! —nik.

— Eztuk gugan sinesten ala?

— Barka, Monique. Baina lehenago ere, hitz erdika jakin dugunez, gertatuak dittuk horrelako istilluak; eta ni, beldurrak negok.

— Eztuk egon behar. Bota behar dena botako diagu; eta organizazioa aurrera aterako duk. Gure herriak ETA indartsu bat behar baitu bere buruaz jabetzeko. Eta ez-kaituk txantxetan ibiliko: ebaki behar dena ebakiko diagu!

«Chita» tabernatik irten, eta etxeraino lagundu nau, oinez:

— Kurtsillo bat muntatzen ari gaituk, hain zuzen. Eta bazekiat hi ere joango haizena. Ongi etorriko zaik.

— Seguru?

Zalantzaz beterik igo ditut etxaurreko harmailak.

— Gabon, gudari! —agurtu nau Albertok—. Habrá que ir pensando en la afari.

Goragalea senditu dut: «la afari»....

Afaritakoan, mintzagai bakarra izan genuen: ia Ipar-Koreako sozialismoa Viet-Namgoa baino jatorragoa ote zen, ea «marxistagoa» ote zen gauzak zehazki esateko.

Ene leihotik arbola batzu ikusten ziren.

Aztoratuta nengoen, guztiz: «hauek nire borrokakide? Utikan!».

Eta «bestaldera», Hegoaldera alegia, bihurtzeko gogo izugarria senditu nuen: «agian luzatuko kurtsilloa-rena: nik barrura joan nahi diat»...

Bakarrik bizi nintzen goiko gelan; eta goiko gela ere bakarria baitzen xaletaren gainean. Eta nire lagunak ez ziren nire goragale osoaz jabetu.

«Bota behar dena botako diagu» hitzak edoskitzen nituen ohean. «Bota, jaurtiki bakarrik; ala bota, garbitu?»...

«Nik bigarrena nahiago! Zerriok!»...

— Behereko horiek, bederen, kanpora, urrutira, Espainiara —pentsatu nuen bakardadean.

Eta «botaketa» horren esperoan loakartu nintzen.

— Kaixo, Antton —esan zidan Moniquek handik egun batzutara «Hondar-gain»eko neure logelan—. Berri txar bat zekarkiat. Txarra, edo...

— Zer da, ba?

— Astelehenean hasiko den kurtsillorako lekurik ez omen dagoela, eta hi barrura joatea erabaki dutela.

— Hori eztuk berri txarra, motel. Berri ona duk, hain zuzen.

Eta egia esaten nion; Iparraldearekiko nire lehenengo harreman haiek, handik hanka egiteko jorana piztu baitzuten nigan.

— Baina —ekin zuen Moniquek— besterik ere bazegok.

— Besterik, zer?

— Beste lan bat egin beharko duala han. «Legal» gisa, hori bai. Baina beste zerbait eta beste alor batean. Prest hago?

— Desiratzen ari nauk. Ziñez.

— Ederki. Goazemak, beraz, harira.

Eta azalpenak xeheki ematen hasi zitzaidan:

— Etxen jarraituko duk, gurasoekin, orain arte bezala. Eta orain arteko lanean ere bai, ahal bada.

— Bai, bai. Bengoetxea gertu bide zegok, aittak lehenguan esan zidanez, niri bere garajian lan bera emateko.

— Primeran! Hori ere oso berri ona duk. Itxuraz, hitz batez; lehengo bizimodu berbera egingo duk hik. Baina, horrez gain, arratsetan, astean bizpahiru aldiz, «lantxo» espezial bat egin beharko duk organizazioarentzat. «Buzoi»arena, alegia.

— Buzoiarena esan duk.

— Bai, hori duk. Hi garajista ea mekanikaria haienez, inor ez duk harrituko hi, lanaren ondoren, hor nonbait, heure kasa «txapuza» batzu egiten hasten baldin bahaiz. «Gehixeago irabazteagatik», jakina... Honetarako lekua Donostian kokatzea, hobe. Alde bate tik, garaje txiki bat alogeratu beharko duk: heuk hauta. Groseko helbide batzu ekarri dizkiat; prentsa bidez lortuak, ez pentsa. Etzegok miraririk... Eta, bestetik, hemengo batek, Jaki izenekoak, matrikula frantseseko kotxe bat eramango dik Donostiako garaje horretara. Kotxea eztuk... «normala»; gasolina-depositua «trafikatua» zeukak-eta. Gaur, argi hitz eginda, hamar bat litro baizik eztik hartzen ahal. Gainerantzeko kabira (beste berrogei bat litrotako barnera, gutxi gora-behera) «gure gauzak» garraiatzeko prestatu diagu; eta hutsarte horretara heltzeko sarrera izkutua, barnetik dik. Atzeko exerlekua altxa, eta berehala erreparatuko diok. Guk kotxea prest zeukeagu. Orain hiri dagokik garajea aurkitzea, eta giltzaren kopia pare bat guri ematea. Entenitzen al duk plana?

— Bai, bai... Bitxi xamarra, ezta?... Nire adineko batek garaje bat alogeratzia...

— Ez pentsa. Hik txapuza batzu egin nahi dituk. Hori duk dena. Garajea hartzerakoan, hain zuzen, Errenderiako «Bengoetxea»enean lan egiten duala esan dezakek; baina ez hukeela nahi nagusiak hau jakitea... Horrela, isildu egindo duk bera... Eta benetako «lan» batzu ere lortuko dizkiagu; hik heure aldetik lor ditzakeenez gain... horrela garajeak itxura normala izan dezan. Hi hara arratsetan bakarrik agertuko haizenez, eta sartu-irtena egingo duten kotxeak gehienetan normalak izango direnez gero, inor ere eztuk harrituko. Hi mekanikala egitera hoa hara, hitz batez. Hauxe sinetsi behar duk. Tresneria zaharren bat ere erosi beharko duk, noski, pertsiana jasotzean barrukoa itxurakoa izan dadin...

— Eta tresna horiek, nondik?

— Heuk dakik inor baino hobeto zer erosi behar den. Hemen dauzkak larehun mila pezeta dena montatzen hasteko.

— Jaun-da-jabe, beraz...

— Hori duk. Baina azkeneko ohar inportante bat: ez inolaz ere ireki edo miatu «mandoak» ekarriko dizkian paketeak. Somatu egingo duk zerbait, beharbada, zenbait aldiz. Baina inoiz eroriz gero, hik eztakik ezer barruko edukinaz. Konprenitzen nauk? Egurra emanda ere, eztakienak etzekik. Eta hik, zerbait somaturik ere, ezpaduk barrua miatu, jakin eztakik ezer. Hauxe izango duk, hain zuzen ere, hire defentsa nagusia; bakarra, beharbada.

— Bai, bai. Ongi ikusten diat kontua... Baina, inoiz etorriko zeraten nola jakingo?

— Hemendik aurrera Suzanne jarriko duk hirekin harremanetan ausentu hauetarako.

- Suzanne diok?
- Bai, motel: Suzanne. Ongi ezagutzen duk.
- Nik eztiat Suzanne-rik batere ezagutzen, ordia!
- Baietz, ba. Suzanne hau, bai.
- Hire... kastakoa, beraz?
- Justu! Eta hire lagun zaharra, omen; edo aspal-didaniko ezaguna behintzat.
- «Haren» galanta antolatuko diagu martxa hone-tan... Alajainkoa!
- Eta barre algara luzea bota genuen biok.

Karkizano kalean aurkitu nuen garaje apal eta apro-pos bat, Grosen, eta San Inazio parrokiaren ondoan; eta kontratua sinatu nuen. Aldez aurreko diruketa bat eman nion jabeari (90.000 pezeta, ordura artean inoiz ordaindu nuen diru-kopururik handiena), eta aurrera.

Azpian bazeukan halako gordailu itsusi eta ilun bat, garajearen tamaina berekoa. Eta «frantsesak» «gauza haiek» han utzi behar zituenez gero, primeran: han iz-kutatu, eta kitto.

Bigarren edo laugarren eskuko tresneria minimo bat erosi nuen, han eta hemen; baita angular zulatuzko apal batzu ere; eta Karkizano-ko garaje hark «txapuza» apa-lak egiteko lokal-itxura egokia hartu zuen.

Lehenengo egunetan zazpiak ezkeroztik «lana» egin ondoren («La Voz» irakurri, esate baterako), «Iraeta» tabernara joan ohi nintzen, izkinan. Eta gero Miracruz kalean autobusa hartu, eta Pasaiara, eta Blas de Lezo-ko 16ra oinez.

Behinola, lanean ari nintzenez:

— Antton! Telefonora!

«Nor ote da?»

— Hemen negok, txo! —entzun nuen—. «Altzibar» tabernan, hortxe, «kantian». Etorriko haiz?

«Zer da 'kantian' hori? Eztiat hitz hori sekula entzun»...

— Oraintxe joatia nahi duk? —nik galde—. Lanean ari nauk, to!... Nor haiz hi? Hire ahotsa ezagutzen diat, baina....

— Bego hori oraingo. Hator azkar!

— Eta... nagusia?

— Porkulo hartzera bidaltzak!

Presako medizina batzu eroatera nindoala esan nion Bengoetxeari. Egin duen keinuan soma zitekeenez, ezer ez du sinetsi. Nola sinetsiko luke ezer? Baina irten egin naiz.

— Kaixo, Antton! —entzun dut.

— Laputa!! Baina... zer ari haiz hemen?

Xanti Markuleta neukan neure begien aurrean; Zokoan topatutako berbera:

— Nik uste nian hi...

— Han egoten nauk, bai, batzutan; baña hemen ere bai. Badakik...

Lasaitasun osoz hitz egiten zidan, itxuraz; eta ausardia hura miresgarri iruditu zitzaidan. Kontrol batean tirokaldi betean korrika ihes eginda, «txakurrada» guttia atzetik baitzeukan. «Requisitoria» ere agertua zen.

— Zer dio Josuk? —galdetu dit.

— Zein Josuk?

— Lehengusuak, motel. Nork, bestela? Fralleak, bai. Eztiat aspaldi honetan bera ikusi.

— Nik neuk ere ez azkeneko hilabeteotan. Badakik, Arantzazun beti. Baña... zerk ekarri hau hona?

— Suzannek.

Zausk egin dit bihotzak:

— Suzanne esan duk?

— Ni nauk Suzanne. Gaiñerakua... badakik: ahaztu egin behar. Hi gaur Suzannekin egon haiz, eta ez inolaz ere Xantirekin. Eta ni neu, norekin?

— Hi, Peperekin!

— Ongi erantzuna... Bihar, arratsaldeko zortzietan, Jaki etorriko duk manduarekin. Garajeko giltza bazeukak. Baiña irekitzerakoan hi han egotia normalago huke. Jaki hire bezerua duk, badakik; eta gustatu egingo zaik gaiñera...

— Zer? Mundua aldrebes ala?

— Txorakeria zirudik; baiña txakurrada erotu egitten duk.. Jakik barruraino sartuko dik kotxia; «konpontzera», noski. Hik pertsiana jetxi, eta barrukua «konpondu» bitartian, ordubetez edo juango duk bera

bakarrik Parte-Zaharrera, baxoerditara, edo-ta... «ligatzer»a. Erraza dik, nahi badu!...

— Tira, tira... Bigunduta errezebituko diat!

— Ez pentsa!... Biharamonian, ordu berian, ni agertuko nauk neure kotxian, etxazpiko «opariak» jasotzer»a. Giltza bazeukeat, baina ordu horretan nire zai ego-tia... «normalago». Badakik.

Ustekaberik gabe pasa zen 1972-1973ko negua.

Jaki delakoa, hogeitabost bat urtetako neskabila xar-manta zen. Frantses doinu handiaz egiten zuen euskaraz; eta honek ere xar-mantago eta kilikagarriago egiten zuen. Baina ozta-ozta gurutzatu genituen hitz batzu, zoritxar-rez. Jaki aurrean ez zegoenean hustu behar nuen ko-txea; Jakik, teoriar bederen, zer zekarren ez baitzekien. Eta batzutan agurtu ere gabe joaten zen Iparraldera.

Gabon-gaueko afaria, bestalde, ohi bezala, Marti-txipi-enean ospatu genuen. Osaba apalduta zegoen era-bat. Iñakiren izena ez zen aipatu ere egin, ezta behin ere. Baina hantxe egon zen lehengusua gure arteko le-kuko isil; eta izena ezin ahoskatzeak berak argi erakus-ten zuen Iñaki zegoela denon oroimenetan.

Bengoetxea-enean, berriz, betiko martxan. Uztar ba-tzu Germanekin; ez oso larriak, ordea, denbora ez bai-nuen alferrik galdu nahi. Bertako telefonoa, bestalde, nirekiko mutu.

Etxen ere gauzak berdintsu. Anaiak errespetuz be-girutzen ninduen ihesaz geroztik. Eta arreba beldur apur batez. Bazegoen aldaketarik, hortaz, eta funtsean. Amak berak ere, egia esan, urrutiago bezala begirutzen ninduen; eta ez hanarteko kontrol-nahi amorratu her-tsi hartan tematurik. Zerbait konprenitzen eta amore-maten hasia zela zirudien; eta nire autonomia ere hein

batez onartzen zuela.

Karkizano kalean, azkenekoz, ez zen —nik uste— ezer bitxirik antzematen. Hamabostean behin-edo (baina beti ere astegun desberdinetan) mandoa etortzen zen ilunabarrean; eta gero, jendea erretiratzen hasia zenean, Iparraldera itzultzen. Eta biharamonean, inoiz ere hutsik egin gabe, Suzanne etortzen zen; eta «opariak» bere kotxean eramaten.

Behin hautsi nuen agindutakoa, egia esan. Eta «bidalkina» begiratu.

Paketeak, zortzi bat edo, berdinak ziren (egun hartan behintzat); astunak ere bai, eta barruan metalezko zerbait zetorrela ageri zen. Kartulina azala urratu dut batean, eta, berri-berria, guztiz ditzirantea, «pipa» bat, «Star» pistola bat agertu da, 9 mm.takoa. Gainalde leun baina koipetsu hartan, tatxa tankerako tartetxo bat: zenbakia ezabatzerakoan utzitakoa.

«Hostias!... Baina... «Astra» mordo bat mugaz bestaldetik hona... Ez diat tutik ulertzen».

Berriro bere kartulina koipatuan bildu dut: «Ez nian begiratu behar. Orain bazekiat»...

Baina, damua garaiz: alferrik zen orain kezkatzea.

Eta geroztik ez nuen berriz inoiz ere ezertxo begiratu.

Pisuen arteko desberdintasunen bidez soma nezakeen zerbait. Hori bai. Batzutan metala zen edukina. Bestetan soka-borobilak somatzen ziren. Bestetan, azkenik, propaganda mordoak. Nik uste, kontuz! Ez bainuen jakin ere nahi.

Aski zen «La Voz» irakurtzea, ordea, ETaren ekintza-maila gorantz zihoala ulertzeko. Eta gorakada hartan parte nintzela jakiteak harrotu egiten ninduen oso. Eta poztu ere bai: «Bejondeizuela, aluok!».

Egia esan, berehala ohitu nintzen. Eta lo guztiz la-

sai egiten nuen. Nire gainean zintzilik zegoen ezpataz oroitu gabe. Beldurra banuen, haseran batez ere. Baina behin eta berriz errepikatzen nion neure buruari: «Bidea hau duk. Beraz, aurrera!».

Eta nolazpait zoriontsu nintzen.

1973ko Martxoa amaitzen ari zelarik, eta Suzanne Karkizanoko garajera etortzean, kartazal hetsi bat eman zidan eskuz esku:

— Presa omen dik!

Bertan zabaldu dut, eta hauxe irakurri:

«Heldu den Apirilean egingo ditugu geure hurrengo gogo-jardunak. Hamabost egunez iraungo ditek: Apirilaren 9an hasiko dituk, astelehenean; eta Apirilaren 21ean bukatuko, larunbatean.

«Hik parte hartzea erabaki ditek. Beraz, denak utzi, eta pasa zak muga datorren 8an, igandean hortaz. Etxalar gainean egongo duk Jaki hamabietan hire zai. Bertan bazkal elkarrekin, moroak zertan dabiltzan lasai ikus; eta handik etxera ekarriko hau, kotxez.

«Ongi izan, eta aurki arte

Monique».

— Ongi ulertzen da dena?

— Bai, bai.

— Nire laguntzarik behar al duk ezertan?

— Ez, ez. Milla esker.

Kurtsillora joateko gogo handirik ez nuen, egia esan: «teoriak eta ostikeriak»... Baina aspaldisko hartan organizazioaren aldetik oso berex bizi nintzenez gero, hone txek kilikatzen ninduen apur bat: gauzak barnetik zertan zeuden jakin-nahiak. Kurtsilloaren bigarren partea, bestalde, praktikoa izaten omen zen. Eta hau ere interesgarriago iruditzen zitzaidan, hodeietako argudioak baino.

Apirilaren 8an, goizean goizik, esku-makila bat eta motxila urdina hartu, gerrikotik aluminiozko kantinplora zintzilikatuz, eta Etxalartik gora abiatu nintzen. Egun epel eder batzu izan ondoren, bapatean, juxtu ni joateko bezperan, kazkabarra, haizea... eta Iruñea bera elurpean.

Gauean, dena dela, hotzarekin batera, atertu egin zuen; eta egunsentian egun aproposa agertu zen.

Ahuñemendiko gailurrak elurrak zuriturik ageri ziren; eta gauza bera Mendaur eta Ekaitza tontorrek. Bidean gora ere, gero eta bertago neukan elurra; eta gora orduko, kaminoaz bi alderdiak zuri zeuden. Beherean, berriz, ametsetan bezala baserriak belaze eta mazeletan sakabanaturik, alegi-herriska zirudien Etxalarrek.

Txakurrada agertuz gero, prest neukan neure «erretolika»: Palomerasko tabernan mokau bat neska baten 'kunpainian' hartu behar nuela; eta gero, bazkalondoan, behera jaitsiko nintzela, eta handik etxera, Pasaiara alegia. Ikutu gabe nengoen oraindik, eta erantzun «normalak» eman nitzakeen.

Lurrizti eta Gorosurreta beherean utzi, eta eguerdirako Lizarrietako lepoan nengoen. Mendiaren hegia eta muga bera hantxe neuzkan, hogeï urratsetara.

Egurrezko bentatxoan egur usaina zegoen, eta kanpotik sartzean bederen bero ematen zuen.

Eta ardo beltza eta txorixu egosi pare bat eskatuz, mahaietako batean eseri nintzen. Ez bide zeukan inork paraje haietatik goiz azaltzeko asmorik.

— Zer? mendi aldera? —etxeke andereak galdetu.

— Bai. Horixe egin behar noizian behin. Bestela... kale-zulotan sartuta... ondo jaiioak giñake!

— Bai, ongi zegok. Baiña eguraldi txarra heldu duk. Kasu!

— Garai honetan?

— Nahukana. Hotza heldu duk, eta elurra.

Berehala agertu zen Jaki mendigoizale-jazkeran; eta nire ondoan exeri. Eta gure elkarketari naturaltasuna erantsi nahiz, ez bat eta ez bi, musu bana eman zidan bi masailetan. Etxeko anderea begira zegoen.

— Kaixo, maitia! —esan zidan—. Aspaldi honetan zai?

— Ez, ez —nik neure sospresa nekez izkutatuz—. Punttun etorri zara, hain zuzen. Eztago batere gaizki!

Bazkaltzeko tenorea zela, eta zer jan genezakeen galdetu genion bentazainari. Eta salda beroa, eta saiheski bana piperrekin jan nahi genuela esan genion.

Honetaz eta hartaz mintzatu ginen. Jaki oso berri-tsu zegoen. Ordura artean ez nuen behin ere buruz buru hitz egiteko aukera izan. Gustatua nengoela pentsa zitekeen. Buruan zeraman txano urdinska leunak, borobiltxo gorri bat erdian, erakargarriago egiten zuen.

— Kotxea hortxe daukat —esan zidan ahapeka— hegiaren gibelean, bertzalderako mazelan. Goazen.

Irteterakoan haize bala hotz eta zakarrek astindu gaituzte.

— Beherean, Sara aldean, eztut deus espezialik iku-

si. Baina beldurrak igo naiz. Ba al dakizu zer gertatu den?

— Zer?

— Orthez-en, Biarno behere horretan, inprenta bat erori da egun hauetan; eta hiru frantses eta bi errefuxiatu arrestatu dituzte. Makina hori eta propaganda bertzerik ez omen dute atxeman. Baina Baionako xaletaren aferarekilaran nahasi nahi dute...

Baionan inor eroria zenik ere ez nekien; baina ez nuen galderarik egin.

— Dena dela, eztago bi biderik, eta jaitsi egin behar dugu. Eztut bitxirik deusik atxeman, erran dautzut. Lasai, beraz... Beharrezkoa izanez gero, ez ahalke ibil; eta behar adina besarka nazazu...

— Beharrik gabe ere bai! —moztu diot. Baina ozta igarri diot irribarrerik. Eta beherakoan, zoritxarrez, ez da Jaki besarkatzeko beharrik gertatu. Eta «beharrik» esan behar, gainera, berak dioen bezala...

«Hondar-gain»en utzi ninduen. Bertako biztanleek harrera hotza egin zidaten, nik uste. Itxuren azpitik, mespretxu izpi bat somatu uste nuen:

— ¡Hombre, gudari! ¿Qué tal has andado por ahí?

— Ha sido interesante.

— ¿Qué tal recibió el pueblo trabajador, en Enero, el golpe de «Motobic», y la liberación de Zabala? Ahí sí que se dio el salto cualitativo: nuestra ruptura clara con la burguesía vasca.

— Así es. Luego bajaré, y charlaremos de todo — esan nien, gai horietaz berekin hitz egiteko batera gogorik ez banuen ere—. Tengo que preparar mis bártulos. Porque me voy de nuevo... para dos semanas esta vez.

— ¡Vas adentro otra vez?

— No. Pero tengo que preparar un montón de co-

sas antes de irme.

Eta logelara abiatu nintzen.

— No te extrañes —esan zidaten— si encuentras un poco de desorden. Desde hace dos semanas vive ahí otro compañero.

— Vale.

Moniqueren iritsera ez zen luzatu.

— Prest al hago? —esan zidan.

— Ni bai.

— Goazemak, beraz.

Pittin bat urrundu ginen «Hondar-gain»dik Plaqueminiers kaletik; eta Hondarraitz aurrean, xaleten aldean, gelditu egin zuen kotxea:

— Harantz abiatu aurretik, ohar batzu egin behar dizkiat, eta zerbait eman.

— Tira, ba!

Espaloietan istila franko zegoen. Beltzaire agertzen zen itsasoa, eta zerua goibel, elurkara agian. Aurrera zihuan arratsaldea, bai. Baina hori al zen kakoa? Haizea gero eta finago nabaitzen zen.

— Ikastaldiak bi parte izango dizkik —esan zidan Moniquek—. Lehenengoak, teorikoak, astebetetz iraungo dik; eta Iparraldean burutuko duzue. Bigarrena, aldiz, Euskal Herritik at, bizpahiru egunez, laurez agian; eta praktikoa izango duk. Alegia, bigarren honek materialeen ezaguera eta erabilpena izango dizkik ardatz. Normalean ostegunean amaitu ohi duk. Zuena etzekiat.

«Teori saialdian, goiz eta arratsalde, hitzaldiak izaten dituk, goizetikan seiak arte. «Hitzaldiak» esanez, «elkarrizketak» adierazi nahi diat; egokiena jendeak ere bere iritzia argi-eta-garbi bertan ematea baita.

«Arratsetan, berriz, ilunabarretan, —eta afal ondoan, beraz— bisitariak etortzen dituk: gerra egindako

bat edo beste, organizazioaren haseran ibilitako besteren bat, Iparraldekoen bat, kantariren bat ere bai agian... Baina hauek ezitek organizazioaren iritzia ematen, kanpokoek ikusmolde desberdinak baizik. Aberasgarri izaten dituk; hain zuzen ere, gure irizpideetatik at mintzo diren heinean.

«Ohar inportante bat: han inork ezitik benetako izen-deiturarik erabiltzen. Ustekabean norbait ezagutuz gero, itxura gorde behar, eta gaitzizenak besterik ez erabili. «Kanpoko» hizlarietara ere, erregela bera ezartzen zieagu: han etzegok lagunik, ez etsairik, ez jauntxorik. Izenen aldetik ere eztiagu inolako desberdintasunik onartzen. Denok gaituk gudari eta iraultzakide; eta kitto. Herria ari duk borrokan, eta ez Urlia edo Berendia. Norneriak gaintitu behar dizkiagu. Sukaldaritzan edo garbiketara lanetan, berdin: txandaka denok, emakume zein gizasemeok, inolako diskriminaziorik gabe.

Tartetxo bat utzi zuen, eta hariari eutsi zion segidan:

— Nora joango garen ez diat esango. Inoiz hik ez jakitea onena, gainera... Ikusten al duk traste hau?

Begiratu, nik; eta antipar beltz harrigarriak ikusi ditut Moniqueraren eskuetan. Guztiz beltzak etaitsuak, eta beheko aldetik oso hetsiak bezala:

— Bai, bai. Bitxiak dituk. Soldatzeko betaurrekoak ziruditek.

— Horrelako zerbait, bai. Oraintxe jarri behar dituk. Eztuk ezertxo ere ikusiko, jakina; etaitsu egon behar hori, dirudien baino gogorrago izaten duk. Kotxezko bidaia, hortaz, antipar beltz hauek jarririk, gogor eta luze gertatzen duk. Bazekiat. Baina, lasai: hauxe duk organizazioak hara joateko zilegi utzi duen bide bakarra. Badakik: «eztakienak etzekik; dakienak, aldiz, bazekik»...

— Nola asmatuko dut noiz ken?

— Nik esango diat hori. Ikastaroa burutzen den etxera iristean kendu ahal izango dituk. Ez lehenago.

Egia zen. Luze izan zitzaidan bidaia; eta dexente txorabiatuta heldu nintzen. Ordu erdi batez edo ibili nintzen? Bi orduz? Antzik ere ez!

Gelditu egin ziren halako batez bai motorea eta bai kotxea bera.

— Kendu ditzakek antiparrak.

Freskotasun harrigarria nabaitu nuen begietan; eta euskal tankerako baserri txukun bat topatu nuen neure aurrean. Inguru guztian, basoa: ez zen etxerik batere ageri. Ondoko egunetan, kostata somatzen zelarik, mendikate luze eta urrun bat, elurretan.

— Hementxe egongo haiz astebetetz —azaldu zidan Moniquek—. Gero berek eramango haute bigarren egoitzara. Ongi ibili!

Barrura sartu naiz, eta hamabost-hogei bat gazte topatu ditut erdiko areto nagusian, behinola sukalde izana agian. Butanozko berogailu bat piztuta. Ikurriña handi bat nagusi, eta tamaina bereko bandera gorri bat aurrez aurre. Bi foto bakarrik ageri: bata Marxena, beste Fidel Castrorena.

Mementu hartan, afaria prestatzen ari ziren batzu; eta, ustekabean, zartagin handi bat eskuan, mantala jantzirik zeraman gizon sendo bat pasa da nire aurretik; eta bere ahots ozenaz goratik agurtu:

— Gabon, hi! Zer? Gosetzen hasia ala? Ba... egon egin beharko duk apur batez. Izorra hadi, mutiko!!

Eta barre egin du.

— Gabon! ¡Buenas noches! ¿Ya te han dicho dónde tienes que dormir?

— No. Todavía no sé nada.

Goiko estaian, zoruan zabaldurik, ohe zatar mordoska bat ikusi dut, bi ilaratan. Gauza bera ondoko getan; seinaka edo mordoskaturik. Etxe hura hotza zen. Eta beheitik zetorren prejitu usainak, ez zuen temperatura aldatzen.

— Aquí estarás tú, con cinco compañeros —eskuaz, eskailera erakusten zidala—. Ahí arriba hay otra habitación; y en ella hay ahora cuatro compañeras. En total sois 12 cursillistas. Puedes traer tus cosas, y ponerlas en ese armario. Aquí no hay espacio para satisfacer el individualismo burgués: hay que vivir en comunidad. No te vendrá mal la experiencia.

— ¿A qué hora empiezan las charlas?

— A las nueve de la mañana. Una advertencia: hasta ahora la policía francesa no ha venido nunca por aquí; y el propietario tiene nacionalidad francesa. Pero tenemos siempre nuestra propia vigilancia armada por las noches. Se hacen turnos de dos horas, como en la mili. Pero vosotros, los «novatos», no. Tranquilo.

— Entendido.

Goizetan bi hitzaldi ematen ziren; eta arratsaldeetan beste bi. Ikastaldiak, beraz, teorian bederen, hogei «txarla» zituen.

Den-denak eman ziren erdaraz; eta honek berak, mamira gabe ere, nazkatuta utzi ninduen.

Euskaraz han egin ziren bakarrak, hain zuzen, arrastirian ekarritako lau hizlarietatik hiru izan ziren (laugarrenak frantsesez egin baitzuen); eta gaztelaniaz baik ez zekitenak, ez ziren agertu ere egin beroietara.

Mintzagaiei buruz, berriz, zer esango? Egunero egunero, eguneko saioa hasteko, Albertok eman zigun, bost alditan, marxismo sarrera orokor eta jakintsu bat; nire kulturaren arauera behintzat. Eta gaizki ulertu ez banion, lurrean utzi zituen Proudhon eta Bakunin.

Bigarren ikasaldia, beti ere goizetan, ekonomiari buruz izaten zen: teoría del valor, economía de mercado, plusvalía, eta antzekoak. Kepa izeneko batek ematen zigun hau.

Gero bazkaria egiten genuen. Eta gero, laurak aldean, hirugarren saila hasten zen: munduko langileriaren kon-daira, Arbuluk azaldua.

Laugarren sorta, eta azkena, eguna amaitzeko, Kutin-ek azaltzen zigun. Hitzez hitz esatekotan: «Historia de la burguesía y el proletariado en el Estado español».

Horrez gain, eta lotara baino lehenago irakur geniztan, bi liburu eman zizkiguten denoi, gela bakoitzeko bospasei aletan: Engels-en «Anti-Dühring» zen bata, eta Marx-en «Crítica del Programa de Gotha» bestea.

Egon, ez nengoen ni hizlarien kontra; ez baitzen hori kakoa. Ni hizlarien «rollo»etatik at nengoen, eta aspertu egiten nintzen erabat. Hura guztia Euskal Herriaren nazio-arazoarekin nola ezkon edo balia ote zitekeen ez nuen ulertzen. Gomendaturiko bi liburu «fundamental» haiek ere, afal ondoan irakurtzen saiatu nintzen; baina ozta-ozta orrialde bat irakurri orduko, lotan nengoen. Amorru bizian nengoen, beraz. Baina jendeak ez zuen txintik esaten. Eta ni neu ere, enkas, isildu egin nintzen.

Otorduetan ikus zitekeenez, euskaldun asko ginen kutsilliston artean. Gehiengoa agian. Baina hauek ere «ez-jakin»tzat zeukaten beren burua, nik bezala; eta erdaratik pasa behar hura (betikoa, egia esan) onartzen zuten.

Politika eta ekonomi teoriei buruz, zer esanik ez: tuitik jakin ez; eta marxologia hanpurus hartan («relación dialéctica», «alienación», «proceso objetivo», «cosificación»...) umil ibili behar. Germanez oroitzen nintzen behin eta beriz: hizkera berbera erabiltzen zuen hark, eta «Comisiones»etan zebilela uste dut.

— Zer diferentzia dago, beraz —esaten nuen neure kolkorako— hauen eta Germanen artean? Ez diat nik batere alderik somatzen. Gauza berbera dituk!

Halako batez, hain zuzen, euskal zantzurik batere agertzen ez zela etsirik, galdera bat egin nion Kutin-i lotsagabeki:

— ¿Y dónde queda el euskera en esa teoría científica y total que tú expones?

— El euskera es parte de la super-estructura ideológica burguesa.

— Perdona, Kutín, no te he entendido nada.

— Decía que nosotros nos ocupamos sólo de cambios infraestructurales, es decir, de la Revolución. Ya lo dijo Fidel: «El revolucionario hace la Revolución». Lo cultural, la lengua, etc. queda para los culturalistas y para los curas. Para los curas progresistas, para ser más exacto.

— Entonces, el movimiento de las ikastolas, por ejemplo, ¿qué?

— La ikastola solo interesa a la derecha, y es una arma burguesa. Lo importante no es que la escuela utilice el vasco; sino que la escuela sea de izquierdas, es decir, un centro de clase. Olvídate de la ikastola, y regálasela al PNV y a la burguesía vasca.

Odola irakiten neukan, baina ez nekien zer erantzun. Goragalea zen nagusi: «Abertzaleak al dira hauek? Zer pintatzen dute hauek ETA siglaren atzean? Deskalabro hutsa duk hau. Erotu egingo nauk. Nik barrura joan nahi diat!»...

Isildu egin nintzen. Moniqueri esango nion zerbait, agian. Nahiz eta... zertarako?

Eta handik alde egiteko behar hertsia azkartu zen nigan: «Ez dizkiat «politiko» hauek ikusi ere nahi!!».

Egun ezin hitsago haietan, bi ostarte agertu ziren ene barruan egia osoa aitortzeko.

Alde batetik, ilunabarretan eratu zituzten solasaldien

saila. Batean —berehala ezagutu nuen Zokoan ikusitako gizona— Telesforo Montzon mintzatu zitzaigun euskaraz. Bilboko ‘Carlton’ Hotelean egon ziren bolarako gorabeherak kondatu zizkigun. Eusko Jaurlaritzak 1936-1937 urteetan jasan zituen gertakaririk larrienak ere azaltzean, umore sentidua atxekitzen nuen; eta bai kondatzeko bere moduan, bai tartekatu ohi zituen pasadizu bitxietan, algara ugariak jalgi erazi zizkigun. Albertok goizean «un gran señor que ha decidido sumarse a las capas populares» etorriko zitzaigula esan zigun. Baina nik, denaren gaintetik, hitzun aparta eta abertzale suharra aurkitu nuen Telesfororengan. Albertorengan inolaz ere aurkitzen ez nuena.

Etorri ziren «ETA-zaharreko erreformistek eta Enbata-ko burges-txikiek», omen, inpresio hobearen utzi zidaten kurtsillista ofizialek baino.

Ez nion inori ezer esan. Baina organizazioan gertatuak omen ziren «infiltrazioak» eta «desbideraketak», hanartean frankistek asmatutako ipuintzat hartuak, sinesten hasi nintzen.

Moniquek etortzerakoan emandako azalpenez oroitzen nintzen («horiek politikoak dituk, baina egurra ematen dutenak dituk kakoa», edo horrelako zerbait); eta «politiko» omen ziren horien alderdi ona ez nuen aurkitzen. Kaltegarri iruditzen zitzaizkidan osotara.

Nor nintzen ni, ordea, eta zer nekien, «goikoek» onartuak zituzten gidari ideologiko jantzi haiek zapuzteko edo zalantzan jartzeko?

Bigarren ostarte urdina, berriz, «Amaia» izan zen. Buruz-buru hitz erdika baizik ez genuen paradarik izan. Baina begirada xamur hura, nire begietan luzakor egingen zela iruditu zitzaidan, eta ezpain biguin haietan nirekin maizago mamitzen zela irribarrea, agian, bestee-

kin baino. Erokeria, beharbada. Baina...

Otorduetan, haserako txiripa hura ohitura iraunkor bihurtu zen, eta elkarren ondoan eseri ohi ginen; eta, halako batez, haren esku hotza bildu zuen nireak mahaiaren azpian.

Ez genuen izkutuko zirrara haietaz ezer kanporatzen, ez berak eta ez nik. Bagenekien biok praktikatako ikasaldian, bigarren astean, ez ginela elkarrekin egongo. Eta ikasaldi tristagarri hura bukatzean, beharbada inoiz elkartuko ez ginen susmoak goibeltzen ninduen ni; eta, agian, bera ere bai.

Azkeneko afarian, horretara, aginduak hautsiz, ausarkiago mintzatu nintzaion:

— Ni ez naiz Pepe. Antton naiz, herrikideek «Exki-xu» deitua. Eta zuk, nola duzu izena?

— Ixo! Ni Amaia naiz.

— Ezta egia.

— Egia da.

Eta barre egin zuen; eta ondoan zeukan lagun batekin hizketan hasi.

— Amaia: agian egunen batez, hor nonbait...

— Ixo!

Ez bide zuen nahi halakorik ezer entzun.

Eta organizazioak emandako agindua beteaz, isildu egin nintzen.

Biharamonean, oso goizik, kotxera sartzera koan berriro antipar beltzak jarri behar izan nituenean, urrun gelditu zen Amaia. Goiko bere gelan, beharbada? Ez nuen agurtu ere egin.

Eta inguru zuhaitzu haiek sekulako ikusi gabe utziz, eta Amaia beharbada betirako galduz, joan egin nintzen Moniquerekin eta bi ikaskiderekin.

Norantza? Ez dut sekula jakin, eta ez jakingo ere.

Bidaia oso luze izan zitzaidan. Eta helmugara iritsi orduko, bustirik eta mindurik neuzkan begiak. Malko ugariagoak jalgi erazten zituzten antipar gupidagabe beltz haiek, egia esan, barruko kezkek eta etsipenek baino. Eta batere gogoko ez nituen materialistek, honetan bederen arrazoi zutela somatu nuen.

«Lundi 16 avril» irakurri nuen geure egoitza berriko egutegi bakarrean.

— Arrastiri on, gazteok —esan zigun euskaraz etxeko jaunak, Kepa ikaskidea besotik heltzen zuelarik.

Berrogeitamabost bat urte zituen, eta ilea urdintzen hasia. Bere emaztearekin frantsesez egiten zuen.

— Soyez les bienvenus! —erantsi zuen honek—. Vous êtes ici chez vous!

Leihoetatik pinadi zabala ageri zen; eta lurra, hondartsu itxuraz, iratzeak, oteak eta txilarrak estaltzen zuten.

Ikastaldiko lehenengo partean egondakoak zazpi ginen; zazpi batetik, eta talde-buru egiten zuen Kepa zortzigarrena: gizon heldua, berrogei bat urte agian, etxeko-jauaren adiskide zaharra itxuraz.

— On va vous montrer votre logement —azaldu zigun etxeko andereak—. Venez par ici!

Gure egoitza izango zen txabolak, ikutu egiten zuen

ia-ia jabeak bizi ziren etxetxoak. Txukuna zen eskaini ziguten bigarren hura; eta normalean ezertarako erabiltzen ez zutela zirudien.

— J'aurais bien aimé qu'au moins une de nos deux filles reste ici. Mais...

— Biak ezkondu, bai —argitu zigun Kepak— baina biak kanpora ezkonduak azkenean. Eta gurasoak hemen bakarrik gelditu.

— Bizilegea duk. Zer nahuk egitea?

Etxe bikoitzaren inguruan besterik ezer ez ageri.

— Hemendik kilometro batera dago zerratokia; eta han prestatzen ditugun oholak hortxe ageri dira, pilaturik. Ikusten dituzue? Urtean behin etortzen dira hila-betez egurgileak; eta are Euskal Herritik ere heldu dira hona.

— Esaiezu nola azaldu zinen hona...

— Hilabeterako-edo etorri nintzen ni... egon... orain dela hogeitamasei urte... eta hemen nago oraindik... Zahar putakume hori, berriz, han dago, tinko; eta gu guztiok eramango gaitu aurretik, urde zerri horrek!

— Ordoki komandantearekin ibili zen Tomax hau ere —argitu zigun Kepak— gerra ondoren, beste gudari asko hara berriro noiz sartuko; eta... horra! Apur batez itxaroteko esan zioten; eta bizia hemen pasa du, bi alabak frantsesekin esposatu zaizkio, eta bera... zai oono! Bapo!

— Tira, Kepa —erantzun zuen Tomaxek— eztizkiagu gazte hauek geure penekin tristatu behar!

Hiru gelatan sailkatu gintuzten.

— Lasai egon zuek! Ni banoa aldemenera, eta ezta-ki ezer; eta jakin nahi ere ez, gainera. Inguru hauetan lasai ibil zaitezket; ez baita egurgileez beste inor hurbiltzen. Bihar arte!

Elkarrekin bazkaltzen eta afaltzen genuen hamarrok «Mon rêve» izeneko xalet nagusian: gu zortziok eta berek biek. Eta afal ondoan, beti ere «zerbait»en esperantzaz eroan, «Radio Nacional de España» aditzen genuen.

Egunean barrena, berriz, geure kasa ibiltzen ginen.

Eta eguraldi ona tokatu zitzaigunez, ondo joan zitzaizkigun gauzak.

Astelehenetik ostegunera, programan auresana bezala, sailka egin genituen egitekoak.

Propaganda egiteko gorabeherak ikasi genituen aurrenik: multikopista klipseak idatzi genituen; eta gero «lata»ra eramanez, benetako tirada koxkorrak prestatu genituen. «Pintadak» egiteko tresnak erabiltzen ikasi genuen: 'spray' tankerakoak, aurretik kargatu eta presiopean atxeki behar ziren beste batzu. Kotxearen elektrika kontuak ikasi ondoren, gidoin-blokarik gabeko berebilak nola lapur daitezkeen irakatsi ziguten. Olio zaharrez koktel molotof mordoska bat prestatu genuen, gero pitz eraziz eta jaurtikiz. Plastikoko pastilak fulminantez hornitu, eta modu desberdinetan leher erazi genituen. Metxaz zein elektrikaz kargak lehertzen ikasi genuen. Eta erloju iratzartzaileak, kobre-hariak eta pilak erabiliz, urrutitik lortu genituen eztanda batzu; ahalik eta txikiak beti, hango bazterrak ez sobera harrotzeko.

Egunik arriskugarriena, berehala erreparatu genuenez, osteguna izango zen. Xixpoleta saioa ez zen zaila, egia esan; baina bai arriskutsua, «pipen» seguruak eta bertan-beherako tiroak saiatzen zirelako. Denok tiratu behar genuen behin eta berriz, bai «Astra»z bai «Firebird»ez, tirokadaren ukaldia ongi menderatu arte, eta zehazki apuntatzen eta jotzen ikasi arte.

Kezkagarriena, tiro-andana zalaparta gaitzarengatik, «gitarraz» egiten genituen saioak ziren: 7,65 mm.tako

MAS-ez eta 9 mm.tako NB-z aritu ginen. Basoak ires-ten bide zuen orroaldi errepikakor hura; jendarmeak ez baitziren hara ezertarako azaldu.

Tresneria osoa zuhaitz arteko zulo harrigarri batean egunero bezala izkutatu ondoren, afaldu egin genuen, eta irratira adi jarri ginen. Baina eguneko berriak ez ziren ohizkoak izan:

«A primeras horas de esta noche ha tenido lugar en Algorta, en las afueras de Bilbao, un violento enfrentamiento armado entre la policía y dos terroristas de ETA. Tras una rocambolesca huída desde la estación del tren, por Villamonte y por la carretera de los Chopos, resultó herido mortalmente el terrorista Eustaquio Mendizábal, alias «Chiquía», «el pequeño»; que esta vez no lucía la espesa barba con la que aparecía en los carteles de «caza y captura» distribuídos estas últimas semanas por toda la geografía del País Vasco-Navarro. Su acompañante, tal vez herido, ha logrado huír. Se asegura en fuentes bien informadas que Mendizábal era actualmente el jefe de la rama militar de la banda ETA; y que había burlado la vigilancia tras su confinamiento en Poitiers».

— ¡Hostias! —esan zuen Kepak.

Zuri-zuri egina zegoen, eta ozta-ozta ahoska zezakeen hitzik. Burua hartu zuen bere bi eskuen artean, eta luzaz egon zen ezer esan gabe.

— Zerbait somatu zuen, bai. Nik ezagutu dudan gizonik ausartena, belauniko otoitzean harrapatu baitzuten orain dela egun gutxi Hegoaldean izkutaturik zegoen etxean.

— Ikaragarria duk, bai —erantsi zuen Tomax zaharrak—. Baiña ezta etsi behar. Guk ere Azkue eta Saseta galdu genituen; baiña gero zuek etorri zerate! Ez

etsi! Bidia latza da; baiña eztugu etsi behar. Eustakiok hori eskatuko liguke orain, orain dela urte batzu «Ché»k bezala: ezer ezta galdu, nik utzi beharko dudan iskillua beste esku ausart batek heltzen badu...

Isilaldi luzea gertatu zen gure artean.

Azkenean Kepak hautsi zuen:

— Eztakit ni han beharko ote nauten; baina, badaezpada ere, banoa Euskadira. Koduk bazekik bihar norberari zer esan eta zer eman behar zaion. Beraz, segi zuek hemen eta bila etorriko gara.

— Joan lasai. Dena moldatuko diagu hemen —esan zuen zaharrak.

Ezer esan gabe erretiratu ziren etxekoak beren gelara.

Kepak orduan kartulina zuri zabal bat hedatu zuen lurrean, eta koadrikula bat markatu zuen gainean; eta gauza bera egin zuen «Txikia»ren foto kaxkar batean.

Ordubete baino lehenago hantxe geneukan Eustakio, harrigarritzko antzez pintatua. Marrazki hartan ere bizar luzea zeraman.

Eta beste kartulina-orri pare bat hartuz, lurrean hedatu, eta inora begiratu gabe, hitz hauek jarri zituen letra handitan:

«Azken gudate ondorenengo
ogei ta sei urteetan
erderak arro dabiltz, erronka,
zazpi Euskal-errietan.
Ni berriz emen, sorterra bertan,
bizi-arnas azkenetan...
sukal-txokoan negar egiñaz
aiton-amon mingañetan!

«Euskal-erriko bazter denetan
atzerrian antzo nabil...
ez-ezagunen artean aur bat
beziñ apal eta ixil!
Ene burua gara ez dediñ
baditut milla maratil,...
Gaiztagiñai lez, arrano begiz,
etsaiak so ditut urbil!»

— Etzen Euskakio bertso hauetan bere buruaz mintzo —azaldu zigun Kepak—. Euskara bera mintzarazten zuen horretara; euskara bera baitabil gurean arrotz.

Nigan zerbait urratzen zitzaidala senditu nuen azkarki: «Txikia! Ene anaia laztana... ene anaia bizkia... hila!». Eta madarikazio eta birao saila, ez zen sekula agortzen.

Bi aldiz bakarrik bertso haiek nik han irakurri, eta sekula ez ditut ahortzi, eta ez ahortziko.

— Gau on pasa! —agurtu gintuen Kepak. Eta berehala entzun genuen motorea piztutzen eta urrunean iraugitzen.

Oheratu baino lehenago, txapel beltz bat erantsi genion ikurriñari, erdi-erdian; eta beherean, bi zutabetan, Eustakioren olerkia paratu genuen. Argazkia, berriz, aurreko paretan eskegi.

Mutu geunden denok, apurturik, umezurtz hain zuzen ere; eta mutu iraunez oheratu ginen, eta azkenean, beharbada ez denok, loak hartu.

«Bihar Ostiral Santua omen —pentsatu nuen—. Baina, bihar, ala gaur? Egia esan, irtengo ote da bizirik organizazioa, kinka ezin larriago honetatik?».

Irratiek ez zuten biharamonean besterik aipatzen, ez

Frantzia aldekoek, ez Madrilekoek: «Muerte del cabe-cilla terrorista Mendizabal en enfrentamiento con la policía»... «Satisfacción en los medios policiales»... «Accrochage près de Bilbao: un terroriste basque mort, un autre en fuite»... «Rudo golpe en Algorta para la banda armada»...

Denok hitz egin nahi genuen Kodurekin ahalik eta azkarrenik; eta barrura sartzeko behar zirenak ere, ahalbait eta aguroenik eskuratu. Nik bederen, borroka egin nahi nuen, borroka gogorra, bonba batzu jarri, «pipa»ri eragin, zerbait gogorrik egin! Nire amorrazio etsiak ito egiten ninduen.

— Lana eta familia utzi beharko dituzue —esan zigun Koduk ostiralean—. Zuek ikus zer esan edo nola antola. Baina hemendik aurrera ETAko liberatuak izango zarete. Prest?

— Bai!

Nori bere paper faltsuak eman zitzaizkion. Niri ere bai neurea: «Silvino Maldonado Rupérez, nacido en Burgos, 18-VIII-1948». «Zaharxeago» kolpez... Eta karta-zaltxo bana. Barruan zita bat eta azalpen batzu.

Iparraldetik aldegin baino lehenago, familiakoentzat hamar bat eskutitz idazteko eskatu ziguten, data desberdinetan eginak; gero Pasaiara bana-bana korreo normalez organizazioak bidaltzeko.

Zita irakurri nuen: Bilboko «La Concordia» kafean, tren-geltokiaren ondoan, Apirilaren 29an, arratsaldeko hiru t'erdietan.

Galderetarako Moniquerekin Hendaian egoteko agindu zidaten.

Eta arreta Bilboko elkarketan jarririk, muga pasa nuen berriro Nafarroako mendietatik.

Xanti Markuletak (Suzannek, barka) eramán ninduen mugatik Bilboraino. Kontrolik ez bidean, gurekiko bederen.

Elkarrekin bazkaldu genuen Zornotzako taberna itsusi batean; eta, berehala, Bilbora. Eta Norteko geltokira iristean, Plaza Borobileko izkinan, gelditu egin zen ene laguna:

— Hemen utziko haut nik orain. Gurutza zak txartel-salmentako areto nagusia; eta han, ate hartaz bestaldean, zabalera osoa zeharkatzen duen eskailera nasaia jaitsi; eta aurrez aurre topatuko duk, behean, «La Concordia» kafetegi zaharra.

Geltokiko erlojua eta berea alderatu zituen begiraldi azkar batez:

— Eztuk hor luzaz itxaron beharko, oraintxe duk-eta zita-ordua. Badakik: barneko barra luzean eska zak zerbait, eta bertara azalduko zaik Txema delakoa.

— Arra ala emea? —eztenka nahian nik galdetu.

— Oraingoan... arra! Izorradi!

Eta barre egin genuen biok.

— Berak —ekin zuen Suzannek— «La Gaceta»ren gaurko alea eramango dik eskuetan, izenpurua ongi ageri delarik; eta ordua galdetuko dik. Erdaraz egingo dik galdera. Eta hik orduan, beti ere erdaraz, «se me ha parado el reloj» erantzun behar diok. Berak horretan, «a mí también» esango dik. Bale?

— Bale!

— Suerte ona izan! Berriro ere egongo gaittuk ondoko egunotan!

— Agian bai!

Kafe bat eskatu dut. Barraren aurreko bitrinetan, ha maika erakuskari eta bitxikeria apaletan. Mostradoreaz bestaldera, berriz, mila foto harrigarri; aspaldiko Bilbokoak gehienetan.

Nire ondoko taburetean eseri den jaun zahar dotoreak, Madrileko egunkari xaharkitu bat irakurtzen bide dik: «El terrorista Mendizabal, antes de caer muerto, disparó al menos dos cargadores enteros». Lerro horiek hotzikaratan jarri naute.

Barrukaldeko mahairik gehienetan, kartetan ari dira lasai jauntxo apain batzu. Tarteka barre-algara ozenez ari dira; tarteka, berriz, kalapita zaratatsuan, hase-re antzean ere itxuraz. Hura tabako usaina!

— ¿Tienes hora? —entzun dut ustekabeen.

— No. Justamente se me ha parado el reloj —erantzun diot hozki, eta errealitatera bat-batean itzuliz.

— A mí también —berak.

— ¿Un cafecito?

Barru aldera sartu gara, garrasiak eta hitz zantarrak entzuten ziren bereztokira.

- Iskanbila franko!
- Hitz egiteko hobe, eztuk uste?
- Euskaraz badakik, beraz.
- Hori uste diat.
- Goazen, beraz, harira. Edan dezagun hau, eta goazen berehala hire kotxearen bila.
- «Hire koxea» esan duk?
- Hori duk. «Seat-600» zahar bat duk, ez pentsa; baina oraindik... ba, ibili bazebilek. Dokumentazioa ere erregelari zegok: hire izenean... Alegia, Silvino Maldonadorenean. Ez da hori?
- Bera nauk, bai.
- Eta hemendik aurrera Bilbon izango duan bizilekua erakutsiko diat. Fernández del Campo kaleari zegok. Ba al dakik kale hori non den?
- Ez. Etzekiat.
- Etziok ajolarik. Neronek eramango haut hara heurre kotxean... Hona hemen pisuaren giltzak. Hiru dituk.
- Hiru? Gehiegitxo...
- Hiru dituk, bai. Bata, sotokoa; bigarrena, etxebizitzakoa. Eta hirugarrena gela «espezial»ekoa. Normalean hetsia egoten duk azken hau. Han «lata» bat egoten duk. «Lata»... badakik... lata...
- Bai, bai: lata bat.
- Hori duk. Lata bat, eta zabaldu gabeko tiradak, eta paper-pilo batzu... Besterik ez, ofizialki behintzat.
- Konprenitzen diat, bai.
- Etxean bi lagun izango zerate. Esan didatenez, hire laguna duk etxe-lagun hori: Maximo.
- Maximo, nire laguna?... Eztiat uste. Eztiat Maximorik ezagutzen...
- Baietz esan ditek berek.

— Berek bazekitek, hortaz.

— Bai, bai: gauza segurua duk. Biok ezagutzen duzue elkar. Lasai, beraz. Eta... goazen!

Nerbioiaren ertzeko nasan aurkitu dugu «nire» Seat zuri hura; eta ez zait hain zahar eta deskalabratu iruditū. Okerrago espero nuen:

— Etzegok horren gaizki, motel.

— Hobe hola.

Huts-hutsik zegoen Bilbo, itxuraz.

Eta bidean gindoazelarik, elkarrizketa moztu du Txemak:

— Tori!

Gauza hotz leun bat ikutu dut neure eskuaz.

— Hauxe izango duk hire lagunik onena!

Segundu erdi batez begiratu dut kotxe barruko ilunpean: «Falcón 7,65».

— Badakik goikoen agindu zehatza: txoritxoak bezala txakurradaren eskuetan erortzeko garaia bukatu duk. Gau-ta-egun eramango duk hori heure gaiñean. Eta ez apaingarri izkutu gisa. Ez. Beharretan gertatuz gero, eragin, eta kitto.

— Ongi zegok.

— Fernández del Campoko etxe-bizitza alogeratu duena, Pablo Mendieta duk. «Hire osaba», jakiña. Konprenitzen nauk?

— Bai, bai. Ongi konprenitzen diat: pixu hori Osaba Pablarena duk. Eta...

— Osaba Pablarena, edo Tío Pablarena. Noski! Heuk ikus hori.

— Ederki.

— Eta hi Silvino haiz hemendik aurrera. Ez Pepe, eta ez Kristo.

— Hau lana, motel! Erotu egingo nauk osotara!

— Orain Silvino... Eta azken ohartxo bat: bizar hori motxegi zegok. Hazten utzi beharko duk. Bestela... bizar faltsua emateik!

— Faltsua?

— Horrelako zerbait. Suerte on izan!

Eta joan egin zen Txema.

Pisura igo nintzen. Hutsik zegoen. Barruan inor ez. «Nire» gela prest zegoen; bestea, berriz, «hankaz gora» zegoela esan dezadan: ohea atondu gabe; maindi-reak, galtza pare ximur batekin nahasirik, lurrean sakabanaturik; dena ezin itsuskiago nahastekaturik.

Hirugarren gela, jakina, giltzez hetsirik topatu nuen. Sartu naiz bertara eta, espero nuena: lata tintatsu bat, itxuraz erabili berria; bizpahiru irrati kaxkar, itzalirik; eta, han-hemenka, paper-meta batzu. Inprimatutako orrietan, sailka baturik, izenpuru hauek irakur zitezkeen: «Txikia, otra victima del fascismo», «Mendizabal, un revolucionario ejemplar», «Eustakio, beneditar iraultzailea».

Hetsi egin dut atea berriro, eta neure gelara joan naiz. Gela iluna zen, itsusia, tristea.

Eta kale hark eta gela hark, xuxen zergatik ez bane-kien ere, Blas de Lezoko etxea eta kalea gogorarazi dizkidate. Eta, bat-batean, «Topo»aren eta «Molinao» geltoki gorrotatuaren hutsunea senditu dut; eta Felix eta Ana Mari anai-arrebak ezabatu bezala egin zirela ene bizieratik.

Eta behereko kale-kantoineko kabinatik deitu dut etxera; baita Martitxipiko Izeba Emiliri ere. Ongi nengoela esan diet honi eta haiei; eta aurki joango naizela haruntza, eta buruz buru gauzak azalduko ditudala. Arte horretan, lasai egoteko eskatu diet. Lantokian ere azalpenen bat eman beharko zela; eta frantsesez ikastera joa-

na nintzela Bengoetxeari esateko, edo horrelako zerbait. Eta horixe agindu dit Izeba Emilik.

Biharamon goizean, lehenengo aldiz bilduko ginen «hirurok»: Txema, beraz, kanpoarekiko lotura egiten zuena; ni ezagutzen omen ninduen Maximo hura, eta ni neu hirurok. Eta bertan hasiko ginen ikustekoa ikusten eta prestakizuna prestatzen.

Lotarakoan, horrela, eta oraindik bakarrik nengoe-larik, behereko trabenara jaitsi nintzen, eta kafetxo bat hartu.

Edale kide ezezagun haien artean, batek edo bestek modu «bereziz» begiratzen ote zidan ikertu dut disimuluz.

Eta ez dut ezer bitxirik somatu.

Ezezaguna nintzaien denei. Hobe hola.

Batek edo bestek ezagutua izateko beldurra zer den ez nekien. Somatu ere ez nuen egiten horrelakorik. Ezezagutzaren grina eroa. Beldur sarkorra da, ariman sortzen eta itsasten da; ehizekoan erbiek edo orkatzek senditzen duketen ikararen antzekoa, nik uste. Uxatzen nekeza. Trabenako atea ireki orduko, beti galdera bera nagusi: ezagutuko ote nau sartzera doan horrek? Hori lana!

Astelehen bezpera zelako edo, berehala egin zuten denek erretira.

Eta neure bizi-aldi berri eta izkutu hura estrainatzerakoan, halako pox bitxia sendi nuen: «Bilbo alde honetan nagoenik inork ere ez zekik... Eta honek, dudarik gabe, badik bere xarma».

Handik egun pare batera, goizeko bederatzietan agertu zitzaigun Txema bertara. Tinbreak bi deikada luze eta labur bat jo zituen. Eta atea irekitzerakoan, karrajoan, «Maximo»rekin egin nuen topo. Hura sospresa! Iparraldeko ikasaldian ezagututako haietako bat baitzen bera; han, halere, «Kotto» deitua:

— Hara! Hi hemen? —nik galde.

— Gauza bera galde zezakeat nik ere. Eztuka uste? Zer ari haiz hi hemen?

Atea zabaldu, eta:

— Egun on biok! —Txemak—. Gosariaz oroitu al zarete bederen? Elkarrekin hemen gosalduko genuela esan genuen.

— Oroitu bai, baina... Zortziak eta hamar dituk, hi... Eta oraintxe topatu diagu elkar guk biok.

— Hortaz?

— Lasai —azaldu du Maximok—. Sukaldean dene-tatik zeukeagu. Hau ostatu galanta duk!... itxura na-

rratxa badu ere... Berehala prestatuko diagu «armosu» bikaina... Horrela esaten zian Oñatiko neska pertxenta hark. Gogoratzen haiz?

— Nola ez!

Kafesnea berotu artean, inprimaturik eta sailkatu-rik zeuden «Zutik»en zabalketaz mintzatu gara. Bilbo inguruan banatu behar ziren denak. Eta, horretarako, buzoietara eraman behar genituen guk aurrenik: Santutxu, Iralabarri, Dos Caminos, Casco Viejo, Begoña, Indautxu... Txemak bazeuzkan helbide zehatzak, guk ez.

— Gaurtxe egin behar diagu hori, eta besterik ez. Bi aste joan dituk ia-ia Eustakio garbitu zutenez geroztik. Eta ostiralerako —ekin du Txemak— beste egiteko-rik ere badiagu. Baina bego hori horretan gaur-gaurkoz.

Nire kotxean egin genuen zabalketa. Tamaina desberdinetako bederatzi pardel ziren; eta «Seat»a karga- tzea bera izan zen urratsik arriskugarriena. Zeren-eta zer ote generaman guk, gazte talde hark, pilo kubiko haie- tan?... Nabarmen zegoen, ene ustez.

Euria ari zuen, ordea; eta honek erraztu zituen gau- zak: jendea ez baitzen espaloietan ezeri so baratzen.

Zabalketa egin ondoren, afaltzerakoan, buruz buru gertatu nintzen Maximorekin; Txemak beste nonbait lo egiten baitzuen. Zehazki nongoa zen ez zidan esan, nos- ki; baina bere «morroi» horiek alde batera eta bestera agertzen, Bermeo ingurukoa zela egingo nukeen postura.

Ohera baino lehenago, eta horrelakorik batere espero ez nuelarik, galdera bat egin zidan:

— Selan Amaiagas? Ikusi dok barriro?

Hitzik gabe utzi ninduen, zurturik:

— Amaia?

— Amaia, bai; han ezagutu geban neskia. Niri de-

xente gusta yatan; baia hiri... lar, larregi, gehiegi... «gehiegi»!...

— Uste duk hik?

— Uste ez. Ziur negok!

Isilune bat gertatu zen gure artean. Maximok irribarre gaixto batez begiratzen zidan isilik. Eta nire barruan Amaiaren esku hotzaren oroitzapena gailendu zen brauki.

— Zer dakik hik —ebaki nuen nik— etzidamuko ekintza horretaz?

— Ezertxo bere ez. Segurtasun arrasoñak diezela-ta, askenengo momentura arte etxuagu gausa handirik jakitten. Normala dok.

— Noski! —nik, gogorik gabe.

Beharrik gabe kalez kale ibili behar ez genuela oharrerazi zigun Txemak:

— Badakik, Silvino. Hik ere ez; nahiz giputxa izan, eta nahiz oso markaturik ez egon.

Ostegunean, agindu bezala, gurera azaldu zen Txema. Eta eseri egin ginen sukaldean, irratia gorago jarri ondoren:

— Organizazioak latak behar ditu. Eta gutaz oroitu da.

— Eta, hortaz, nola? non?

— Egon, Silvino! Oraintxe esango dizuet... Oso xinplea duk: dauden lekutik hartu behar dizkiagu. Bertakoek nahi badute eta ezpaute... Ulertzen nauk?...

— Ebatsi egin behar dizkiagu, beraz —nik.

— Ebatsi, ohostu, nahi dukana. Iraultzaileok, gainera, eztiagu inoiz ebasten, ez ohosten, are gutxiago «lapurtzen»... Arren! Guk «berreskuratu» egiten diagu ahal duguna; burgesiak lapurtutakoaren apur txiki bat be-

rreskuratzen diagu. Ea ongi hitz egiten ikasten dugun...

Eta barre egin dugu hirurok. Baina Txema pittin bat haserretu da:

— Zergatik barre? Ai, ai, ai!... oraindik ere txorradas asko buruan!

— Ederto! Bego!... «Printec» lantegi ezagunak makina-saltegi dotore bat ireki du Bilbon orain dela gutxi. Hain zuzen... ez oso urrun hemendik: Licenciado Poza kalean zabaldu du denda hori.

— Bai, bai. Bazekiat non —Maximok.

— Goitik esan digutenez, bi saltzaile egoten dira hor normalean: bata, emakume zaharra da; eta bestea, gizaseme heldua. Eta ezpaitute ezer onez-onetara eramaten utziko, benda luzeak eramane behar ditugu, eta soka gotorrak, eta pipak; eramatekoak eramane ahal izateko. Konprenitzen al nauzue?

— Emakumeak bederen...

— Argi ibili, Maximo. Herorrek ikusiko duk hori oraingoan. Garrasika hasiko duk; eta hori aski izan zitezke ekintza izorratzeko. Atsoari hik ahoa bendaz hestea ezinbestezkoa duk. Eta, beharbada, jartzea etzaik horren erraz gertatuko. Ikusiko duk! Kosk egiten ditek atso horiek, ostikoak potroetan ematen... Eta, badakik, emakumea emea denez, eta ahula, eta makala, eta abar omen denez... gure kristau zibilizazioa dela-ta... ez pentsa!

— Tira, tira!

— Horrela duk, bai. Ekintza hauetan problema larria izaten dituk atsoak.

— Eta dendakide omen dagoen gizonezko horretaz, zer?

— Alua duk —Txemak azaldu—. «Frente de Juventudes»etan ibilitako horietakoa. Putakume zerria, beraz. Baina horregatik bakarrik etzegok denda-barruan

tiroka hasterik; nahiz bezerorik ez egon. Inor zauritu gabe eta eskandalorik gabe lortu behar diagu «lorkizuna».

— Euskara dotorea erabiltzen diagu, alajainkoa! — irten zait bihotzetik.

— Dendak bederatzieta zabaltzen duenez —Txemak berriz hariari helduz— bederatziak eta laurdena inguruan agertzea komeni zaigu. Jenderik ez oraindik mentu horietan, bazterrak erdi lotan, eta sospresa handiagoa. Ekintzak, ahalean, goizean eta goiz.

— Ondo da.

Ekainaren haseran, goizak luze eta giroa zoragarri zegoelarik, «Printec»era hurbildu gara:

— ¡Buenos días! —Txemak ozenkiro—. ¡Manos arriba!... ¡Rápido!

Hirurok generamatzan eskuetan geure pipak, ondo agirian; eta gainerakoak gabardinen poltsikuetan.

Garrasiari eman dio atso zaharrak; eta, ez bat eta ez bi, katamotz batek egingo lukeen bezala heldu dio Maximok lepotik, eta benda luze batez ahoa estali:

— ¡Cállate, vieja!

Segituan ere gerritik soka lodi batez inguratu, eta berontzi batera lotu du.

Artean geure gizona isilarazi eta estekatu dugu Txemak eta biok. Saltzaile bedeinkatu hark ez zituen indarrak eskas; eta ia-ia askatu ere egin zaigu halako batez, berealdiko oihuak entzun eraziz:

— ¡Socorro!... ¡Ladrones!

Orduan nik, barneko ez dakit zein odol-ukaldi harriarrik gogorturik, gupidak oro alde batera arras utzirik, pipa mahai baten gainean laga; eta bi ukabilak elkaturik, sekulako kolpea eman diot buruan bi eskuez. Ukaldi bortitz hura jaso baino lehentxeago, sekula ahaz-

tuko ez dudan ikara-begirada bidali dit gizonak; eta erori egin da zerraldo nire aurrean.

— Ongi duk —esan dit Txemak—. Horrek badik aski! Lotu zak orain baztarren batean, eta goazen makiñak ahalik eta azkarrenik kargatzera. «Roneo» markakoak bakarrik, badakizue! Makiña soillak: ez tintarik eta ez deusik. Azkar!

Hila zirudien saltzaileak; eta lepoa erabat indargeturik zeukan. Beldurtu egin naiz. Zirkinik egin gabe begiratzen nion.

— Horrek ezтик ezer larririk! Lotu zak, eta jarriok benda ahoan! Azkar!

Eta horrela egin dut.

Dendaren ondoan bezperaz geroztik zegoen «Peugeot 404» beltza zen Txemarena; eta nola-hala geure lanari naturaltasuna erantsiz, hiru «Roneo» kargatu ditugu. Ozta-ozta kokatzen madarikatuak!

Eta Eliptikarantz eta Deustuko zubirantz egin dugu ihes ariniketan. Deustuko garaje hits hartan dena ahalik eta azkarrenik hustu; eta Txema bere aldetik, eta Maximo eta biok, pasean, Fernández del Campo aldera: «hemen ez duk ezer gertatu».

Irratia piztu dugu. Eta ordu bi t'erdietan Madrilek zabaldu tako berri-boletinari esker jakin ahal izan dugu ekintzaren bigarren partea nola joan den: «Los dos empleados fueron liberados de sus ataduras a las diez de la mañana, poco después de la llegada al almacén del primer cliente, que dió parte inmediatamente a la policía. La mujer solo presenta shock emocional; pero el dependiente varón sufre traumatismo craneal de pronóstico reservado. El vandálico suceso ha suscitado ya...»

Oherakoan, eta gauza bera ondoko gauetan, begirada izutu hura iltzatzen zen nigan:

— Areago egin zigutek euskaldunoi —erantzuten nuen neure kolkorako, batzutan zalantza ustelak sendituz—. Ez zegok beste biderik. Éz zegok beste biderik!! Horixe duk-eta etsaiak konprenitzen duen hizkera bakarra. Aspaldiko bizkaitarren «jak, erak» bitxi hori... Bestela... begian pixa guri!

Eta, gogortu nahiz, Iñaki Urdanpilleta lehengusuaz oroitzen nintzen, eta ezagutu gabe ere miresten nuen Eustakioz, eta hildako gudari guztiez.

Baina errudun senditzen nintzen tarteka. Hauxe da egia: «Latza da herri zapalduak honetara beharra».

Latza baitzitzaidan, zinez, bere burua galdutzat ematen duen gizaseme gizajo bat gupidarik gabe kolpatzea...

Hots, ez al nau urriki-sendimendu horretxek aber-tzaletu? Zerk jarri nau ba Espainia inperialaren aurka?

Biharamonean, letra handitan, berri bakarra itxuraz: Carrero Blanco almirantea buru.

Zer esan nahi ote zuen horrek? Zergatik aspaldidniko egia hala ofizializatu beharra? Franco gaixorik ote zegoen zurrumurru iraunkorrak, «zerbait» pentsatzera bultzatzen zuen.

Baina, egia esan, zer zitzaigun guri Francoren orde handik aurrera ministro-kontseiluetan Carrero agertzea?

— Hamar urte gazteago duk Carrero, Franco baino —azaldu zidaten—. Francoren segida legeztatu eta segurtatu nahi ditek. Eztuk ikusten ala?

Nik, egia esan, ez nuen ezer ikusten. Baina...

Hiru hilabete pasa nituen Fernández del Campoko pisuan. Eta kale-zulo hartan, kanpora irtetea komeni ez zela-ta, udaberria heldua zenik ere ez nuen erreparatu. Giroa epelago eta neskak koloretsuago eta erakargarriago. Hori bai. Baina besterik ez.

Mekanika olio usainari, tinta eta lata usaina nagusitu zitzaion; eta lanondoko garbiketa, garajeko garaietan baino ere zailago bihurtu zitzaidan: eskuak beti beltz, tintazko geruza segail bat bigarren larrua bailitzan.

Lataren zarata errepikakorra nahastekotan, beti ere Bilboko irratia edukitzen genuen pizturik. Eta goratik piztuta; are bi irrati batera ere. Euskal kantarien kontrako debeku gogorra zela-ta, ez nuen nik uste Bilboko irratia euskal kutsuko irratia izan zitekeenik. Baina... alajainetan! Ez dakit zer urtekari zela, ez dakit nor Bilbora etorri zela, ez dakit nik zer debru, Sevillako irratia zirudien hark. Lola Flores ez bazen, Juanito Valde-rrama; Manolo Caracol ez bazen, Juanita Reina... edo

Sarita Montiel, edo... Eten gabe! «Estado de excepción» delakoen ondoren gertatzen omen zen hura, bilbotar jendeak esaten zuenez.

Eta ni ito egiten nintzen.

Uztailaren erditsuan, berri garrantzitsu bat ekarri zigun Txemak:

— Eskualdeko bilera izango dugu 28 eta 29an. Eta guk hirurok joan behar dugu bertara. Plan berri bat omen dago, eta gurekin kondatzen dutela.

Hamabost bat lagun bildu ginen Derioko Apeztegiara:

— Goikoek —azaldu zigun Txemak— hau bakarrik eskatu digute: Bilbo inguruan ekintzak ugaltu eta azkartzeko beharra. Eta hiru alor nagusi proposatu dizkigute horretarako...

... Elkartutakoen artean ez nuen inor ere ezagutzen, eta «goikoekin» lotura zeukan «lokarria» ere ez. Argal-argala, hogeitamabost bat urte zituen; eta, oso oker ez banago, eta buruaren atzekaldean antzematen zen kaskasoila erreparatuta, gu mementu hartan batzarturik geunden «fabrika» hartatik pasea zela esango nukeen.

Hona hiru alor horiek: telebista eta irrati antenak hankaz gora botatzea, gerrako oroitarriak eta gainera-koak desegitea, eta sindikato ofizialen egoitzak funditzea.

Denok erakutsi genuen geure adostasuna. Eta geure artean banatu genuen egitekoa.

— Ekintza horietan hasteko, ordea, leherkinak lortu behar dira aurrenik. Horri buruz, begiraturik daukagu Durango gaineko harrobi bat, Mañarikoa zehazkiago. Amantegirena. Nor dago prest ekintza hori burutzeko?

— Geuk egingo dugu hori —erantzun zuen Txemak,

begi-keinu bidez Maximorekin eta nirekin akordio isila bildu ondoren.

Behin eta berriz hurbildu ginen hirurok nire Seat kas-karrean Urkiolako aldapara, eta behin eta berriz «goitik» iritsitako zertzeladak egiaztatu, inguruak goitik eta beheitik zainduz. Leherkinak nola eta zein lekutatik hartzen zituzten segurtatu genuen. Eta ez zegoen dudarik. Ekintza posible zen, erraza ere bai.

Eta kolpe-eguna hautatu genuen: Abuztuaren 26a. Azekeneko igandean joango ginen, beraz, egun hutsa, ezin egokiagoa. Goizeko zazpitan hara azaldu, harrobiko zaindari zaharra pipaz mehatxatu, segidan sokaz lotu, eta bertako leherkin eta fulminante batzu eraman, ahalik eta gehienak...

... Seietan irten gara Fernández del Campoko etxetik, oraindik ere azkeneko gautxoriek erretira egina ez zutelarik. Egunsentiarekin eguraldi bikaina somatzen zen.

«Peugeot» beltza hartu dugu, Txema bera txofer; eta sei t'erdietarako Durangon ginen. Dena hetsita, eta oso jende gutxi kaleetan. Mezatara joandako zahar batzu, eta mendigoizale zenbait, makila eskuan eta motxila bizkarrean.

Herria ezker aldera utzi, Urkiolarako bidea hartu, Izurtzako zuzena pasa, eta bideska estu batetik baztertuz zaindaritza-txabolaraino hurbildu gara. Aldapan gora guztian inor ez inguruetan.

— Goazen!

Kotxea sarearen ondoan gelditu, hirurok pipak eskutan hartu, eta tinbrea jo dugu saretik. Barruko atea zabaldu da:

— ¡Buenos días! —zaindarik guri.

— Egun on! —Maximok—. Untzillaitzera goias, eta bidea galdu dogu. Nora jo behar geunke?

— Egon apur baten! eztot ondo aittuten...

Eta gugana hurbildu da gixon xaharra, eta atea zabaldu. Segituan sartu gara hirurok tartetik, eta lepotik heldu:

— Ikusten dosu hau?... Tira, ba! ETakoak gara. Isilik egoten bazara, etxatzu esebe jasoko.

Eta ahoa benda batez hetsiz, lotu egin dugu.

— Non dires giltzak? Aguro!

— Eztakit.

— Eztakizula?

Eta egundoko masailekoa eman dio Maximok. Ni «Printec»ekoaz oroitu naiz, eta gupida antzeko mogida bat senditu.

— Aguro! —Maximok—. Giltzak eta dana.

Maximok bere arreta gizonarengan zeukalarik, kaja astunak ateratzen hasi gara Txema eta biok. Hamar, hamabost, hogei. Eta dozenaren bat txikiagoak, fulminanteenak.

— Azkar! Atea bultza orain, eta hasi gauzak kotxean sartzen!

Horretan ari ginelarik, hiru jeep berde agertu dira bideskan gora, harrobi aldera:

— ¡Hostias!... Txakurrak!!

— Alto! —entzun da garbiki hango bakardade isilean—. ¡Alto, o disparamos!

Hiru jeepak bateratsu gelditu, eta zortzi-hamar goardazibil jaitsi dira bideskara; eta, metrailetak eskuetan, gu inguratzen hasi.

— ¡Alto!... ¡Entréguense!...

Harrobiko zaindaria ikara betean begiratu gaitu.

— Hik deitu dok, putakume horrek? —galdetu dio Txemak.

Ahal bezala ezetz esan digu buruaz.

— Itxi hori baketan, eta goazen gorantz aguro!

Sakabanatu egin gara. Eta lehenengo tiro-andanak entzun dira bazterretan, harrobiko hutsarteetan ikaragarrizko oihartzunetan errepikatzen zirelarik.

Ni konturako orduko, desagertu zen Txema nire ingurutik. Geroxeago, Maximoren orroa lazgarri luze bat heldu da nigana. Aurrera zihoazen tiro-andanak, ia-ia etengabe, eta beldurrak itota nengoela nabaitu dut; eta haitz haietan gora ekitea gero eta nekezago zitzaidala, arnasa falta zitzaidala, eta bihotzeko taupadak ikaratzeko moduan azkartu zitzaizkidala: «Putakumeak» esaten nuen, edo pentsatzen bederen.

Harkaitzetan gora nindoalarik, oso behean ikusi dut bideska, eta oso behean hiru jeepak, ttantta ñimiño bihurturik. Eta beste andana luze bat entzun dut, urrutitik, hamar bat tiro-hotsez osatua. Eskuineko iztarrean bat-batean, kanpo aldetik, burdinazko barra luze eta gori batez norbaitek ikutu eta zapaldu banindu bezalako zerbait senditu dut.

— Ikututa nago! —pentsatu dut segituan. Eta gorantza ekin diot.

Xixpoleta bilatu dut gerrian eta poltsikuan. Arrastorik ez. Goranzko galbario hartan nonbait galdua:

— Kaka putza!

Gorago eta gorago egin dut. Zauriak ez zidan min handirik ematen, egia esan; eta Ekialdera jo dut, Anboto aldera nolabait esateko. Zinez ito beharrez, eseri naiz haitzarteko belaze leun batean. Handik ezer ez zen ageri.

Zaratarik ez, tiro-hotsik ez, ahots-aztarnarik ez...

Eta bake apur bat dastatzen saiatu naiz: «Hil uste nian!».

Neure galtzetara begiratu dut. Blai zegoen, belau-neraino gorritzatua. Baina ez nuen oinazetik batere senditzen, eta ibiltzeko problemarik ez neukan. Nekeaz gain, jakina. Eta bost bat minutuz han atsedean ondoren, aurrera ekitea pentsatu dut.

Zabaldu egin da bista, eta herriska bat begiztatu dut behean. Arnasa lasaikiago har nezakeela erreparatu dut, eta ezerk ez zuela urratzen mendiarteko isiltasuna.

— Zer gertatu ote zaio Maximori? Beldurgarrizko orroa bota du gizajoak... Eta Txema zertan ote da?

Mazela berean, behean, harkaitzen artean gerizaturik antza, baserri handi bat ikusi dut.

— Baniak hara! —erabaki dut.

Jadanik gogoz jotzen zuen eguzkiak gainalde hartan.

Zauriak ez zidan minik ematen, eta odol-jarioa ere hein batez gelditua zela zirudien. Eta hara jaitsi nintzen:

— Egun on Jainkoak!

Atso zahar bat hurbildu zen atera:

— Bai! Ze gurok, gaste?

— Jausi egin naz atxarte horreitan —erantzun dut— eta zauria garbitu gure neunke... Non nago amen, egia esan?

Atsoak ez ninduen sinetsi:

— Axpen sagos, Axpe ganean.

Inguru haietan Axperik zegoenik ere ez nekien.

— Lasai egon! Ointxe emongo deutzugu bezkari...

Eta nire galtzetara begira:

— Odola galdu dosu errus. Atxartean jausi?

Alferrik zen: atsoak ez ninduen sinesten.

— Kiputxa?

«Alua! —pentsatu dut— Bizkaieraz egiten saiatu nāiz ba!»

— Kiputxa? —berriro galde.

— Bai.

— Nongo aldekoa?

— Tolosakoa.

— Eta mendi hauetaraino bakarrik etorri?

«Alferrik da», pentsatu dut.

— Bai. Halaxe da. Bakarrik.

Atsoak bizkarra eman, eta bakarrik utzi nau.

Handik piska batera berriro etorri da:

— Gure lobia be hortik ziar dabil.

— Selan hortik zehar?

— Su letxe... Lasai, mutil!... Estogu guk esebe esango. Erdu barrura, eta ondo garbittu zauri hori.

Ametsetan ote nenbilen bururatu zait.

— Estosu presatu beharrik. Hobeto saosanean joango sara, eta kitto. Lasai egon!

Eta galtza pare garbi bat ekarri dit.

Garbitu ondoren ikusi dudanez, zauria ez zen batera sakona:

— Eskapara ederra egin diat! —pentsatu dut—. Baina hartatik isuri den odol-jarioa, edonor izutzeko bezalakoa zen: alajainkoa! hura odol erreka!

Etxeko bostak, oso jende jatorra. Ez didate batera galderarik egin.

Biharamonean bai. Berrogeitamar bat urtetako gizasemeak (andre zaharraren suhiak, gero ulertu nuenez) pilo bat egin zidan:

— Nora nahi duzu eroatea?

— Nik... ba... egia esan...

— Nora? Esan jator!

— Ba nik... egia esan... Arantzazura eramatea eskertuko nizueke.

— Eztago problemarik. Gaurtxe, bazkalondoan, harutza abiatuko gara. Hemendik irten aurretik, Kanpanzar aldera joango naiz bakarrik, ia hortik zer dagoen.

— Benetan eskertzen dizut.

— Seguru asko hau interesgarri izango jatzu. Atzo, irratiak eta prentsak esan dabenez, tirokaldi bat gertatu zen Mañarian, Amantegiren harrobietan...

Zausk egin dit bihotzak; baina disimulatzen saiatu naiz.

— Larriki zauriturik harrapatu ei dabe gazte bat; eta beste bat be jausi ei da, berau zauri barik.

— Enekian —nik erantzun.

— Eta hirugarren batek ihes egin ei eban atxartetan gora, honantza edo etorrela...

Ez nekien nola barrena izkuta.

— Lasai, mutiko. Gure semia be presondegian dago orain dela ia urte bi, Carabanchelen. Lasai, beraz.

Barrena hustutzea erabaki dut:

— Ni naiz, bai, ihes egin zuena. ETAkoa naiz.

— Jakiña!... Gaur, edo bixar, edo etzi hoba behar bada, Arantzazura joango gara. Hitaz apur bat etzi dabenean. Badakik...

Irailaren leko arrastirian iritsi ginen Arantzazura. Larunbata zen. Jende pilo bat ageri zen eliza aurreko zabalunean, beilari.

Ez gintuzten bidean gelditu.

Aitzekia ondo asmatua zegoen, ene ustez: «El pequeño de la casa se ha curado de su leucemia. Y vamos a Aránzazu. Empezamos hoy el novenario de la Virgen, en acción de gracias».

Baian ez zen beharra gertatu.

— Amen itxiko haut, beraz?

— Bai. Lasai joan. Eta mila esker bihotzez.

— Mesedez! Esebe eskertu beharrik etxak. Danok gaittuk gaur anaixak... Halan be, hamen egongo nok hi sartu artean...

— Aita Otadui, faborez —nik atea zabaldu ondoren.

— Oraintxe, bai. Noren partez?

— Esaiozu Antton Arraiza hemen dagoela.

Hantxe neuzkan, begien, aurrean, Josuk Martitxipi-

enean aipatu ohi zituen Bellotza, eta Artazu, eta Erbizkun, eta Aloña zabala...

— Bai, bai! Joan zaitzke —esan nion buruaz Axpekoari.

Eta hamaika ate gorriskatako karrajo luzetik Aita Otaduiren itxura berezia ezagutu nuen.

— Arratsalde on, Martin! —esan nion.

Eta besarkatu egin nuen bihotz guztiaz.

— Arratsalde on, Antton! Zerk hakar gaur hona?

— Oraintxe azalduko diat. Baina zuek, zer moduz?

— Hemen, badakik: beti bezala! Egun hauetan, dena dela, jendia franko. Gaurtxe, arestian, hasi baita urteroko bederatziurrena... Baina, Josuz zer dakik?

— Egia esan, ezer gutxi. Martitxipi-enean enauk berriro izan duela sei bat hillabete. Panaman dagoela entzun nian.

— Hori besterik ezta?... Gizon fiña Josu!

— Bai. Halakua duk.

— Baiña hi, zerk hakar hona?

— Hain zuzen ere...

Eta gauzak itxurakeriatan ibili gabe azaltzea pentsatut:

— Martin... Ondotik zeukeat txakurrada, eta babesleku bila heldu nauk. Gauzak zertaratzen diren ikusi artean bederen.

— Hori badaukak.

— Baina...

— Ongi egin duk egia aurretik aitortuz. Lehenengo gauza: lasai!

— Orain lasai negok... baina azkeneko egunotan...

— Eztiat ezertxo ere jakin nahi. Ezagutzen haut, Josuren lehengusua haiz... Oraintxe mintzatuko natzaiok superioreari; eta, seguru asko, oraindik ikasliak etorri

eztirelako, hortxe jarriko haugu, Kolejioan. Egon hemen. Heldu nauk berehala.

Barrutik eliz-kanta baten zurrumurru errepikakorra iristen zitzaidan karrajo luzean barrena... eta tarteetan isiltasun osoa nagusitzen zen:

— Hau ere Euskal Herrian dago!

Zauria ikutu nuen galtzaren gainetik: minik ez. Hura miraria! Eta Eustakioz oroitu nintzen: gizajoa!

— Baietz, Antton. Esan dudana. Oraintxe lagunduko haut gora. Gela txikiak dituk, baina lasai egoteko modukoak. Gosaldu, bazkaldu eta afaldu, gurekin egingo duk. Salmo batzu entzun beharko dituk; baina euskaraz dituk, eta oso ederrak gainera. Bazkaldegitik, gainera, bis-ta ederra zegok Araba aldera. Ongi ibiliko haiz. Ziur!

— Eta besteez, zer? Zer pentsatuko dute?

— Zer pentsatuko duten etzekiat. Baina hori berdin duk: ezтитеk tutik esango. Eta hau duk inportantea. Nire lehengusua haizela esango zieat, eta ezтитеk ezer ere galdetuko.

Goiz egiten genituen hiru otorduak. Fraileak, berrogei bat, jatorrak ziren. Denak euskaldun petoak, arabaar bat edo beste ezik. Jan ondo egiten genuen, ausarki. Eta jangelara joaterakoan, beti igotzen zen Aita Martin nire logelaraino.

Kanpora irten, berriz, afal ondoan irten ohi nintzen Martinekin, eta beheko alderantz ibili ohi ginen. Ez nion nik ezer esan nahi; baina behin harrobiko bide-gurutzeraino iritsi nintzen, eta gero gau txarra pasa nuen.

Telefonoz hitz egin behar nuela esan nion behin Aita Martini:

— Bai. Jakiña. Egintzak hortik, etxetik irten gabe.

— Hobe, bai.

Eta jangelaren ondoko telefonotik deitu nuen behin eta berriz. Baina telefono hura inork hartu ez:

— Kaka zaharra! Hau seiñale txarra duk... Txemak ere kantatu duen seinale.

Egunero errepikatu nuen deia; baina erantzulerik ez.

— Nola liteke Sopelako apezaren etxean inor ez egotea? Txema han ez egotea, bego. Baina, inor ez? zer debru gertatu ote da?

Arantzazuko ikastetxean jaso ohi zen prentsa irakurritza behintzat, ezin zen ezer konprenitu. Berri guztiak miatzen nituen nik han goian. Baina xehetasunik ez. Txakurrada, prentsak zionez, «en busca del tercer hombre del comando de Mañaria» omen zebilen. Hau bai. Baina ez zuten sekula besterik esaten; eta Txemaz eta Maximoz ere ez. Madrilera eraman zituztela biak, bigarrenaren zauriak sendatzen hasiak zirela, eta kitto.

— Oñatira jaitsi beharko diat —esan nion Martini halako batez—. Joan-etorria izango duk. Gauzak nola dauden jakiteko beste erremediorik etzeukeat.

— Heuk ikus hori.

— Bihar jaitsi nahi nikek, bazkal ondoan.

— Ondo duk... Baina, nola joango haiz?

— Oñatiko autobusean.

— Baita zera ere! Tira! Neuk jaitsiko haut gure kamionetan.

— Eztik balio.

— Faborez, Antton. Nik jaitsiko haut, eta kitto. Eta handik bi ordutara edo...

— Ordubetera aski.

— Handik bi ordutara, bai, billa pasako nauk leku beretik.

— Ongi zegok: leku berean, eta handik bi ordutara. Eta berriro Arantzazura igoko nauk...

Arratsaldeko bostak ziren. Eta plazako arkupeetan jarrena abiatu naiz; eta Jaxintoren etxeko sotora iristean:

— ¡Alto! ¡Quedas detenido!

Konturatu orduko lau txakurrek besotik helduta. In-larraldi bat nik egin; eta besoetan min hartzen nuela-rik, hitz hauek entzun nituen:

— ¡Estáte tranquilo, o te matamos a hostias!... Si venías a follar con Miren, ahora podrás hacerlo en Comisaría.

Eta beste masaileko bat eman zidan bortizki.

Jende gutxi une hartan Oñatiko plazan. Ez dakit inor ere konturatu ote denez gertatutakoaz.

Aita Martin ere ez, jakina; ordu pare hura baliatze-kotan, mandatu bat Bergaran egitera joango zela esan baitzidan. Eta Miren? Han bizi zenik ere ez nekien. Aita Antselmoren bila nindoan ni; norbait bizpahiru urte lehenago gorde zuela banekielako. Baina «Miren»?

Bi eskuak atzekaldean, giltzurdinen parean, jartze-ko agindu zidaten; esposak erantsi, eta haragia odole-tan utzi arte estutu eta estutu dituzte. Oinazea disimu-latzen saiatu naiz: ez nien poz hori bera ere eman nahi. Eta handik minutu batzutara galdera hau egin diet:

— Pero, ¿a qué viene esto?

— ¡Cállate, hijoputa! Ahora vamos a San Sebastián, que está hoy de fiestas, por cierto, y allí le cuentas al jefe lo que se te ponga en los cojones. Ahora, aquí, y durante todo el trayecto, silencio.

Udanako aldapa gaitza igo dugu, eta bihurgune es-tuetatik Aloña ikusi; eta zerua, bai kanpoan bai nire bar-nean, ilunduz zihoala erreparatu dut. Hiru furgoneta-tan gindoazen, aldapan gorakoan ongi ikusi dudanez: bat gure aurretik, beste bat gure atzetik, eta hirugarre-nean, erdikoan, ni eta nire lagunak.

Legazpi gurutzatu dugu, eta Zumarraga inguratu, eta Tolosa gero. Eguraldi bikaina. Jende asko, itxuraz, asteburua itsasertzean edo mendialdean pasatzekotan, herrietatik aldegina.

Eta Amarara iritsi gara; urmahel borobila duen «Gobierno Civil» delakora.

Furgonetatik jaitzarazi naute, eta bultzaka batimenduaren atzeko aldetik sarrerazi.

Paperak kendu, izen-deiturak eta gainerako xehetasunak makinaz apuntatu; eta behera. Burdinazko erreja ireki, eta oherik gabeko gela batera pasa naute.

Esposak kendu dizkidate; eta burdina hura larrutik berezteko unean, oso oinaze bizia senditu badut ere, geroxeago halako lasaitasun harrigarria eta atsegina nabaitu dut bi esku-mutur minduotan.

— Luego te traeremos algo de comer. Ahora, silencio.

Piztuta zegoen aldamenen irrati, edo horrelako zerbait; eta noiztenka musika entzuten bide zen, eta noiztenka aldiz garrasi zorrotzak, gupidagabeak, beldurgarriak. Disko bat ote zen hura? Mementu hartantxe gertatzen ari zen basakeriaren bat ote zen? Ez dut inoiz jakin, eta ez jakingo ere. Baina gau guztian zehar (eta, sinetsita egon, hura bai gau luzea!) berdin jarraitu du irrati hark; eta piztuta ere bai argi motel bat, berjaz bestaldera; eta kalaka etengabeen ere gizaseme izkutu batzu, han nonbait.

Neure gela hezeko paretetara begiratu dut. Eta harridurazko irribarrea irten zait begitartera: «Gora Euskadi Askatuta! Gora ETA!». ;

— Horrek bazizkian, ba, potroak!

Zurezko aulki luzean etzan naiz. Hotz-hotza zegoen, bustirik bezala, liskatsu.

Kezkek oro gurutzatzen zuten ene barrena. «Zer kan-

tatu ote zuten Maximok eta Txemak? Zer ote daki txakurradak?». Ez nekien. Eta jakin ezin horretxek beldurtzen ninduen gehienik, nik uste.

Eta bada-ezpada ere, ikutu ere ez dut egin zakurrek ekarritako janaria:

— Dastatu ere ez! Egiaren droga erantsia ote?...

— Vamos, Arraiza. Levántate. Y vamos para la Comandancia del Antiguo, a la Compañía 551. Tal vez hayas oído hablar de ella...

Barrua puskatzen zitzaidala iruditu zait: «¡Hostias! Nereak egin dik!».

Ondarretara iritsi naizenerako, hartuak zeuden inguru guztiak. Txaleten espaloietan, bospasai goardazibil somatu ditut, zai, metrailetak eskuetan. Zumalakarregi aldeko soto nagusian, beste lauzpabost zeuden; zai hauek ere, eta metrailetaz horniturik.

— ¡Vamos! ¡Baja rápido!

Eta bizkarrean sekulako ukaldia emanaz, estropozo egin dut; eta oinaze berria nabaitu dut esku-muturretan.

— ¡Es que no te mueves!

Aski bertatik bide zetozen kanpai-hotsak entzuten nituelarik, agur isil bat zuzendu diot Igeldori. Igande goiza zen. Eta Kontxako badia urdina begiztatu ahal izan dut lipar iheskor batez.

Egun aparta zetorren; eta Ondarreta aldera zihoa-zen hondartzazale gazteak, neskak eta mutilak, besoe-tan mila koloretako toallak zeramatzatelarik, bekaizke-riaz begiratu ditut:

— Hau inauteria! Horiek Ondarretan, udako pozak dastatzera eta neska ederrak arropa motxetan beteste-ra, olatu haserretuen aparra usaintzera eta urpeko hon-darra urazpitik ikustera; eta ni, berriz, hor, zulo ezeza-gun horretan ifernurako bidean barrena abiaturik...

Ordua jakin nahi izan dut. Ezin!

— Egia! —pentsatu dut—. Gobernuan kendu zida-ten bart, karterarekin batera... «Te lo devolveremos a la salida»... Aluok!

— ¡Venga, cojones!... ¡Más rápido!

Buruzagiaren gelatik irtetean, eta eskaieran behera nentorrenean, egundoko bultzakada eman dit polizia ba-tek. Estropozo egin dut, eta erori egin naiz muturrez aurrera. Oinaze bizia senditu dut bi eskuetan, eta bi esku-ahurrak odoletan neuzkala erreparatu.

— ¡Venga, hijoputa! ¡Levántate!... ¡Entra ya ahí, coño!

Mainu-gela handi bat topatu dut neure aurrean, zikin-zikina, zoko guztietan kedarrez-edo beztua. Ba-rruan, nire zai, gomazko porra luzez horniturik, lau po-lizia, begiak antipar beltzez estalirik.

— ¡Siéntate ahí! —entzun dut.

Aulki estu-estu bat proposatzen zidaten, ozta-ozta bertan exerita egoteko modukoa.

— ¡Empieza a hablar! Lo sabemos ya todo. O sea que no nosagas perder tiempo inútilmente.

— ¿Hablar de qué?

Hori nik esan orduko, lau poliziok eraso naute ba-

tera, ezin basakiago; eta berealdiko ukaldiak eman dizkirate beren gomazko lau porra beltzez:

— ¡No empecemos! ¡No seas imbécil, y colabora!

Baldosazko zoru hotzean nengoen jadanik, aulki estu hartatik berehala eroria. Baina ez nuen erreparatu ere egin. Minduta neukan behingoaz gorputz guzti-guztia.

— ¿Qué decidisteis en la Asamblea de Derio?

«Hau ere bazekitek... Nereak egin dik!», nik hitzik gabe.

— ¿Qué Asamblea de Derio?

— ¡Me cago en la Hostia, hijoputa! O hablas, o te matamos ahora mismo. ¿Con quién estuviste en la Asamblea de Derio?

Beste batek hartu du orduan hitza:

— Os reunisteis quince etarras en el Seminario de Derio; a finales de Julio, hace solo un mes. No nos digas que se te ha olvidado ya...

— No sé de qué me hablan.

Laurek heldu naute orduan, bi besoak atzera bortxatu, eta esposak lotu:

— Túmbate aquí, y mira al techo. ¡En equilibrio, claro! ¡Venga, cojones!... ¡No bailes!

Eta gomazko matraka luze beltz haietaz astindu dute nire sabela, behin eta berriz, hil aurretik maila hartako oinazerik aguanta nezakeenik somatzen ez nuelarik. Lehenengo aldiz neure bizian hiltzeko gogo bizia senditu dut. Hil eta kitto.

— Ya tiene bastante por ahora —entzun dut erdizka behintzat—. Llevadle a su calabozo.

Ezin nitzakeen eskailerak igo, ezta barandari helduta ere.

— ¡Un poco de agua para este cabrón! —eskatu du batek.

Eta ni zetorkidanaz jabetu baino lehenago, ur hozta bota dit norbaitek, indar handiz, nire burua eta soinekoak blai utziz. Pittin bat esnatu naiz.

Neure gelara heltzean, dar-dar hasi naiz; dar-daraldi bortitz eta harrigarrian, kalentura oso handietan gertatu ohi omen den bezalakoa, neure barruan benetako dardargailu mekaniko bat sartu balidate bezala. Izoztuta nengoen hezurretaraino; eta hortzak etengabe karraskan.

Ordua bederen jakin nahi nuen; baina antzik ere ezin eman. Geletan, karrajoetan, pairaleku hotz bitxi hartan, eskaileretan, bonbilak etengabe pizturik, beti ere argitasun epel berberean; eta kanpoaldeko loturak oro etenik.

— Oraingoan hil egingo naiz beharbada —pentsatu dut, erabat gogorturik—; baina hitzik batere ez didate aterako putaseme hauek.

— ¡Venga ya, hijoputa! ¡Ya has descansado bastante! ¡Abajo! ¡Muévete, o te tiramos por el hueco de esta escalera!

Eta ostiko ikaragarri bat eman dit barrabiletan.

— ¡No seas animal, coño! —esan dio orduan polizia batek ostikoaren emaleari.

Jasan ezinezko oinaze hazkorrak gorputz guztia betetzen zuen piskanaka, eta ito uste nuen.

— ¿Lo ves? Ahora tenemos que esperar hasta que se le pase al niño...

Kuxkurtu egiten nintzen lurrean, min hura nola edo hala txikitzeko asmotan. Baina jarrera onik ez zegoen. Ito egiten nintzen, zinez; eta kordea galdu nahi nukeen, edo hil.

Minutu luzakor ikaragarri batzu pasa ditut horrela, lurrean, hil nahian eta hil ezinean.

— ¡Abajo ya! —lehenengo txakurra mintzo.

Eta lehengo mainu-gela berberera eraman naute berriro.

— ¡Desnúdate, cabrón!... ¡No te hagas la doncella virgen, putero de mierda!... ¡Quítate todo!

Zaku txiki bat hartu du txakurretako batek, eta legar urdinska barreiatu du lurrean, baldosa zikin hura tarteka estaliz.

— ¡Venga! ¡De rodillas por aquí!

Belauniko jarri naiz; eta txakur bat begira gelditu zait tenk:

— ¡Qué es esa marca alargada del muslo!

Hotzikara batek kurritu du ene soina:

— Me caí en el monte.

— ¡Puta mentira!... ¿Estabas en el robo de Mañaria?...

— No.

— ¡Vas a acabar comiendo mierda!

Eta astinaldi mordo bat senditu dut bizkarrean.

— ¡Ahora avanza por encima de esa gravilla!... ¡Sentirás un gran placer!

Bi polizia ondoratu zaizkit, eta nire bizkarraren gainean arrekonkon, istaklok, jarri:

— ¡Arre, arre, borriquito!

Neure soinean belaun koxkorren oinaze zorrotza besterik ez nuen senditzen.

— ¡Avanza!... ¿Estuviste en Derio, o no?... ¿Por qué no nos cuentas lo que decidisteis allí?...

Bi gorputz ezin astunago haiek senditzen nituen neure giltzurdinetan; eta hezurretaraino sartzen zitzaizkidan legar ale urdinska haiek.

— ¡Habla, separatista cabrón!

— No sé nada —erantzuten nuen nik gero eta ahots meheagoz eta etenkorragoz—. Yo no estuve allí... No sé

nada. Créanme.

— Tú eres un criminal de la ETA, y lo sabemos.

— No sé... de qué... me hablan...

— Tapadle de alguna manera, porque él no podrá vestirse; y llevadle arriba.

Zutitu egin ninduten; baina erori egin nintzen zerraldo.

Odoletan neuzkan bi belaun koxkorrak; eta nire sabela, berriz, asma daitezkeen kolore guztiez ubeldua. Ez nintzen gauza eskailerak igotzeko; eta txakurrak konaturatu egin ziren. Tapaki zikin batez inguratuta nindoan; eta biren artean, bi galtzarbeetatik altxaturik, gora eraman ninduten.

— ¡Nada de echarse! ¡De pie!

Ezin nuela esan nahi nien; baina ene ahotik ez zen hitzik irten.

Atea hetsi zuten bortizki, eta joan egin ziren.

Lurrean etzanda loakartu nintzen. Luzaz? Ezin esan. Neure baitara itzuli nintzenean, argitasun berbera zegoen gelan.

— Abajo, rápido!... ¿Qué haces ahí en el suelo? ¡So vago de los cojones! ¡Te he dicho que no te tumbes!

— Es que no puedo más —esan nuen nekez.

Kasurik ere ez berek, eta behera eraman ninduten, betiko mainugela hits hartara:

— Ponedle en el water... con la cabeza en la taza...

Belauniko jarri ninduten, komunera begira; eta bu-rua komunaren zuloan sarrerazi zidaten.

— ¡Habla ya, cojones! ¡Qué decidisteis en la Asamblea de Derio!

Erotu uste nuen, eta nire burumuinak lehertzera zihoazela.

— No sé nada —nik gero eta nekezago mintzo.

— ¡Tirad la bomba!

— Ez! Ez, otoi! —nik euskaraz erreguka.

Burua zapaltzen zuten gainetik, beti zulo behere hartan atxekirik. Gero harrigarrizko ur-orroa entzun nuen, eta ura iresten hasi nintzen, litroka, nire biriak urez ez-tanda egiteko heinean; eta eztulgalea agertu zitzaidan. Baina eztulik ere ezin egin kuxkurrera hartan. Eztul-nahi bakoitzean, airea beharrean ura barrura. Eta bertan itoko nintzela ulertu nuen.

— ¡Ya tiene bastante! —entzun nuen neure etsialdi betean—. ¡Arriba con él!

... Ez dakit gora nola iritsi nintzen. Berehalaxe itozteko irudia gorde dut bizi-bizirik... Besterik? Ez dakit. Gelan agertu nintzen, hezurretaraino izozturik, zoru gorrian, urak eta odolak bustitzen nindutelarik.

— ¡Arriba! —entzun nuen orduan—. ¡Vago de mierda!

— ¡No!

Ur suila oso bat hustu dute nire gainean:

— ¡Vamos! ¡Al salón!

Eta barre algarak entzun ditut neure inguruan:

— Chicas, al salón!...

— Ez, otoi! —euskaraz konturatu gabe.

— ¡Qué dices? ¡Encima insultándonos en vasco?

Eta egundoko ukaldi-ilara eman didate bizkarrean beren gomazko porra luzeez:

— ¡Eso te ayudará a hablar en cristiano, maricón!...
¿Quiénes estuvisteis en la Asamblea de Derio? ¡Los nombres, hostias!

— Yo no estuve allí —oso nekez ukatuz.

— ¡Si será hijo de puta! ¡Llévadle al entresuelo! ¡Le vendrá bien un poco de ebanistería!...

Berrogeitamar bat zentimetrotako gurpil-zerra baten parera eraman ninduten arrastaka.

— Sierra en marcha!

Eta gurpila abiatu da, ikaragarrizko burrundarak eta kirrinkak sortuz, eta garajeen motore bat habailarik bi-zienean probatu behar genuenean bezalatsu sirena hots zorrozkorra idurikatuz.

— ¡Acercadle más la cabeza!

Eta ileetatik heldu, eta zerra jirakorretik zenbait zentimetrotaraino eraman dute.

— Hil egin nahi dut! —pentsatu dut.

— ¿Qué dices? ¡Habla, hijo de la gran puta! Nadie te va a llorar si acabas aquí, no te hagas ilusiones.

Gurpilaren haize pirila nabaitzen nuen lepoan, eta zerrauts usain sarkorra aditzen, are errauts fin-fina surtziloetatik sartzen somatzen.

— ¿Quiénes estuvieron en Derio contigo?... ¡¡Nombres!! —garrasi gorgarritan.

Ez nuen ezer esan; ahoskatu nahi nuen «no» hura ez baitzen ahotik irten. Ezin! Edozein mementutan nire lepo mindua urratuko bide zuen zerrak. Baina berdin zitzaidan. Ikarari buruz ere soraio nengoen. Nekearen gaitzak sortu egin ninduen azkenean.

— ¡Llevalde arriba! ¡Ya le basta por esta vez!

Erori egin nintzela uste dut.

... Handik minutu edo ordu batzutara, batere ez dakit, gizon ahots leun batek esnatu nau neure gela extu zekenean:

— ¿Qué tal te encuentras, Antonio? Este Damián es un bestia.

— Zer?

— No hables fuerte. No quiero que Damián sepa que he venido aquí a verte.

— Nor zara zu?

— Soy policía. Pero no soy como esos. Me da pena ver cómo estás, y quisiera ayudarte...

Ozta-ozta berezten nuen ifernu-ilunpe oinazetsu hartan giza-aurpegirik ere.

— No sé quién es Damián.

— Olvídalo. Yo vengo a ayudarte... Díme solo esto: ¿estuviste en Derio?

— No.

— Te voy a creer, y me las voy a arreglar para que te vayas a casa. Y otro día charlaremos de todo con calma.

— ¿A casa?

— A casa, desde ya...

— Yo... no estuve... en Derio...

— Ya lo sé.

Eta loakartu egiten nintzen behin eta berriz.

Luzaz lo egin bide nuen gela ziztrin hartako lur gorrian, oso luzaz, egun eta gau luzetan barrena esango nuke; eta erabat izoztuta esnatu nintzen:

— Hotzak nago... Izoztuta nago...

Ez zegoen inor ene ondoan. Nire soinekoak eta tapaki horiska hura zikinak eta guztiz bustita zeuden. Burua lehertzekotan neukan. Eta beti ere gela zikin kirats extu hartako argi epela piztuta zegoen.

Urrats-hotsak entzun nituen, niganantz hurbiltzen ari. Eta atea brauki zabaldu zen:

— ¡Vamos! ¡Levántate! El jefe ha decidido que te llevemos a casa.

Ez nien ezer sinetsi, eta sekula baino bortizkiago hiltzeko gogoak betetzen ninduela erreparatu nuen:

— ¡No!... ¡No quiero irme con vosotros!

— ¡Vamos! Pasa a este lavabo, y lávate la cara.
Gero eta handiago egiten zen ikara:

— ¿Yo a mi casa... con vosotros?

— Has tenido suerte. Vas a casa...

Ez nuen ezer ere ulertzen: «Etxera orain? Zein etxetara? Bilbokora? Pasaiakora?...»

Aurpegia busti nuen. Buruko minaren lazgarriak ez ninduen pentsatzen uzten.

— ¡Pónte esta manta por encima, y vámonos!

— ¿A dónde? —nik galde. Gerra-denborako «paseoak» halaxe hasten omen ziren—: ¡Matadme aquí mismo! —eskatu nien.

— ¡Vamos a tu casa, cojones! ¡A Pasajes!

Furgoneta batean sartu ninduten. Gaua zen. Kontxako kolkoa inguratu genuen. Ametsetan ote nuen Donostia?

Eta Pasaiako tren-estazioaren ondoan utzi ninduten.

Zer ordu ote zen? Ez nekien. Ez nuen ezertarako indarririk, eta soin oso-osea neukan guztiz minberaturik. Geltokiko erlojuan ikusi nuen: hiru t'erdia. Estazio aurre hartan inor ez.

Haize bala hozkirri batek esnatu bezala egin ninduen:

— Hau lokamutsa! Zertara ekarri ote naute hona? Zer bilatzen ote dute oraingoan?

Hantxe ikusten nuen Blas de Lezoko izkina, eta hantxe ere «Molinao» ondoko zubi begi-bakarra... Posible ote zen? Berrogeitamar bat metro ziren. Baina iristeko indarririk ez.

Geltokiaren ondoan taxi bakar bat. Txoferra lotan.

— A Blas de Lezo, 16, por favor.

— ¿Cómo?... ¿Blas de Lezo de Pasajes?

— Sí —nik.

— Pero... si está ahí mismo...

— Ya sé. Pero salgo del hospital.

— ¿Del hospital?

Baina piztu egin du motorea, eta eraman egin nau. Tinbrea jo dut portaletik. Felix anaia jaitsi da:

— Antton!!

Eta besarkatu egin nau bere indar guztiez:

— Bagenekien zerbait... Aita Otadui deittu zun lehenguan Arantzazutik...

Ez nuen ezer erantzun. Eta sotoko zoruan eseri nintzen; bizikleta atera ohi nuen ate berdearen ondo-ondoan, bizkarra paretaren kontra jarriz.

— Egon piska bat, Antton. Gora niak, eta oraintxe jetxiko gaittuk elkarrekin. Errazkiago aupatuko haugu eta gora eramango. Lasai!

«Lasai» hori izan zen luzaz entzun nuen azkeneko hitza. Geroztik ezer ez. Jaitsi ote ziren etxeakoak? Ez dakit.

Ez naiz ezertaz oroitzen. Eta galderarik ere ez dut inoiz egin.

Zertarako?

Bizkortuz joan nintzen piskanaka. Zenbat egunetan? Ez dakit. Ez dut sekula jakingo.

Soin-atal guzti-guztiak eduki nituen minberaturik bolara luze batez.

Lo egiten nuen maiz. Beharrik! Eta lo sakona; nahiz batzutan sekulako eztulaldiek eta ikarek etenik.

Ez nuen irratirik bat ere entzun luzaz; eta egunkaririk ere ez zidaten luzaroan pasa. Ez nekien ezer ezertaz.

Amak berak ere, bestalde, ez zidan batere galderarik egiten.

Eta etxekoez kanpo, ez nuen kristauik ere ikusi.

— Lasai egon, seme —esan zidan amak halako batez—. Konponduta zegok dena. Bengoetxea prest zegok garajea hi berriro hartzeko. Eta, nahi baldin badauk, jakiña, Urriaren 16an hasiko hintzake.

— Milla esker, ama. Pentsatu egingo dut, eta erantzuna emango dizut hemendik bospasei egunetara.

— Ongi zegok. Hanartean eztiagu honetaz hitzik aipatuko... Hi hago lasai, eta kitto.

Baina handik minutu pare batera edo, neronek egin nion galdera bat:

— Eta, zenbat denbora falta da fetxa horretara arte?... Eztakit ezta zein egunetan bizi geran ere.

— Zertarako jakingo? Gaur irailaren 18a duk, asteartia. Eta etzi, beraz...

— Etzi, zer?

— Gaur 18a duk. Etzi, beraz... ahaztuta al hago?

— Irailaren 20a.

— Hortaz? —ama harrituta.

— Hillabetetsu libro, beraz, gutxi gora behera...

— Hi, hi: Bengoetxearekin ez hago presa. Bestela...

Eta bat-batean konturatu naiz:

— Etzi hogeitabi urte beteko dittut. Ez al da hori?

— Bai, motel. Ospatu egingo diagu eguna. Baiña hemen, eta etxeko bostok bakarrik. Hire aittak ezтик egun horretan kanpoko iñor gurekin nahi, eta nik ere ez... Konprenitzen nauk?

— Bai, bai. Baietz uste dut.

Izeba Emilik gero eta fama txarragoa zuen etxen. Gajoa!

Eta Bengoetxearenean hasi nintzen berriro.

Germanek alukeria batzu bota zizkidan; baina ongi ezagutzen nuen españolista faltsu hura, eta ez-entzuna egin nion.

Bengoetxea bera, egia esan, nahiko jator. Ni bezalako ero bat onartzea... Eta galderarik batere egin gabe... Istimatzekoa zen.

Nire bizikleta han zegoen, etxazpian; eta behin ere baino hobeki zainduta topatu nuen. Felixek erabili omen

zuen zenbait aldiz, eta ongi koipeztatuta zegoen.

Eta Lezoraino hurbildu nintzen igande goiz batez. Zeharo bestelakoturik antzeman nuen dena. Goizeko baserritarrak han zeuden, bai, beren txapela zabalekin. Baina iraungitzen ari zen herri baten azkeneko lekuko isil eta otzanak besterik ez zirela iruditu zitzaidan. Madrilentzako eredia bera, alde batetik. Gizajoak! Eta berriro ez agertzea erabaki nuen.

Jende ezagunarekin egoteko batere gogorik ez nuen; eta ez nintzen Errenderiara agertu, eta Pasaiako plaza ere oso gutxitan. Gehienek urrikiz begiratzen zidaten: nire sofrikarioak senditzen zituzten, baina ez nire helburuak txalotzen; eta are gutxiago borroka mota hura.

Altzara ere ez nintzen azaldu. Dorretzar pilo itsusi hura ikusi nuen batzutan kai inguruetatik; baina beldurra-edo ematen zidan zemento-meta hark, eta gure borroka alferrikakoa izango ote zen zalantza barnatzen zitzaidan barne-muinetaraino. Are gutxiago senditu nuen, noski, Ezkizu-bekoa izan zen eskualderaino iristeko asmorik.

Txakurradaren azkeneko jokabide bitxi hark, berriz, kezkatuta nindukan:

— Zertarako askatu ote naute horiek? Zerbaiten atzetik ari dira, ziur! Zeren atzetik? Ez dakit, ez dut somatu ere egiten. Erotu egingo naiz.

Garajejan nengoelarik, kartazal bitxi bat ekarri zidan Bengoetxeak:

— To! Hik ikusiko duk, noski; baiña gertatu zaikana aski izan duk, ene ustez...

— Milla esker!

Begiratu, eta azalean, inprentaz idatzirik, hauxe ira-

kurri nuen: «Pollerías Rodríguez — Pasajes Ancho». Seilurik gabe.

«Ze kristo da hau?... ‘Pollerías Rodríguez’... Hasiak dituk azpiko lan psikologikoa egiten...»

Kartazalaren erdian, idaz-makinaz, beste hau: «Sr. Antonio Arraiza — Pasajes». Besterik ezer ez.

«Berak dituk», pentsatu dut.

— Nork ekarri du? —galdetu diot Bengoetxeari, nigandik urruntzen hasia zelarik.

— Neska gazte batek... Bestaldekoa beharbada...

German begira; «Kaka putza!»...

Ireki egin dut:

«Gertatu dena bazekiagu gutxi gora-behera. Baina, besteen segurtasunaren onetan, ahalik eta azkarrenik ikusi behar haut. Datorren asteartean azalduko nauk berriro, lantegitik aldegitoko tenorean. Eta «Altzibar»enean itxarongo diat. Jaki».

Eskutitza puskatu dut segituan, mila puska txiki-txikitan puskatu, eta komunera joan naiz. Papertxo haiek zuloan bota, katea tiratu, eta... itolarri harrigarri batek harrapatzen ninduela erreparatu nuen; eta arnasa bera nabarmenki asaldatzen zitzaidala:

— Izorratu egin naute! —pentsatu dut—. Betirako izorratu!

Eta bi begietatik negar malkoak irteten zirela nabaitu dut, masailtan behera bero-bero.

Abenduaren 4ean, arratsaldeko zazpitan, Bengoetxearenetik irten, eta Altzibar-enera jo nuen.

— Agur! Joan dea? —Jakik neri galdetu.

— Ahal bezala... Hemen egotea, dena dela, etzait batere egokia iruditzen.

— Niri ere ez. Baina enakizun non erran. Hortxe

kantian utzi dizut otoa, hemengo plakaz; eta goazemazu hortik.

Ilun zegoen jadanik, eta Donostia aldera jo genuen.

Groseko hondartza gaineko parkinean geratu zuen motorea, «Leal» gasolindegiauren aurrean. Itsasoaren orroa handia zen; eta olatuek jauzi egiten zuten gugandik metro batzutara.

— Honela gustatzen zait niri Kantauri itsasoa: haserre dagoenean.

— Niri ere ba! —Jakik erantzun—. Hemen bikote bat egotea, normala duzu, nik uste. Trankil, beraz — beti ere bere ipartar doinu bereziaz mintzo.

— Ni trankil xamar nago orain. Baiña... eztut ulertzen. Zergatik askatu naute? Zer diote goikoek?

— Zer kantatu zinuen zuk?

— Nik, oker ez banago bederen, ezer ez. Dena ukatu nuen, eta izenik batere enien eman.

— Eta zu libratzeaz estonutzen zirea? Eztu nehork ere atxekitzen hori guztia hitzegin gabe. Sinetsi egin zaituzte. Hori da dena.

— Latza izan zen, latza! Hil egin nahi izan nuen hamaika aldiz.

— Miresgarri egon zira.

Eta besarkatu egin ninduen Jakik bero-bero.

— Tira, motel. Hau eztuzu elkarte komertzial bat.

— Hala ere.

— Baina, zer dakite berek?

— Gauza asko... gauza gehiegi... Orain, dirudienez, Derioko bilerako batzarkideen lerrokadaren atzetik ari dira; eta erabakitako ekintzen zerrendaren atzetik ere bai...

Isilune bat gertatu zen.

— Eta Maximo eta Txema?

— Carabanchel-en beti. Pakete handia dute. Maximoren zauriak, hobeki omen; baia herren xamar baratuko bide duzu.

— Gizajoa!

— Beraz, izenik etzinuena eman?

— Ezta bat ere. Lasai denak alde horretatik.

— Eta Iparraldeko ez do?

— Ezer ez. Ezta galderarik bat ere.

— Sinetsi egin zittuzte horiek. Dudarik ez... Biziki untsa! Nahi duzia nik hangoer ezer erratea?

— Bai. Zure zai nengoen, hain zuzen. Ondo entzun, Jaki: enago prest berriro ere komando «normal» batean sartzeko. Garbi dago? Enago prest zozoak bezala xeru-xeru erortzeko. Berderen batzu pikatzeko prest nago. Hori bai. Baina besterik ezertarako ez. Garbi al dago?

— Bai, bai. Hauxe erranen diet.

— Edo berdeak eta horiak erasotzeko eta pikatzeko; edo bat ez! Garbiki mintzo nauzula uste dut.

— Ongi da. Hori jakin eraziko diezut... Artean egon hemen, gostian, etxen eta lanean. Gure berri izanen duzu berriro.

Abenduaren 6an polbora bezala zabaldu zen Pasaian berri hitsa: sekulako inkontrua gertatua zela Altzan; eta bertan —bertsio ofizialaren arauera, jakina— tirokaldi luze baten ondoren, bere burua hil zuela Zeberioako Artetxe delako batek; eta senar-emazte bi txakurradaren eskuetan erori.

Prentsan agertutako foto batzu ikusi nituen bihar-monean, eta... zausk! Ezaguna nuen! Iparraldeko ikastaldian ezagutu nuen. Mutil sendo luzea, ezinago atsegina, euskaltzale suhurra.

— Putakume horiek... berriro ere... ongi asmatu dute! Fina zen Artetxe! Madarikatuak...

Berehala ulertu nuen tirokada non gertatu zen.

Eta, nola edo hala, Altzara azaltzeko gogo ezin bi-ziagoa sortu zen nigan... «Horrelaxe hilko bainaiz ni aurki» pentsatu nuen etengabe. Eta ohean esaldia neure kolkorako osatzen: «Artetxe... Arraiza... Biok tirokatuak, biok Guardia Zibilaren kontrako borroka etsian, hi-

lak»... Ziur nengoen, erabat ziur.

Eta hotzikara harrigarriek harapatzen ninduten Blas de Lezoko gela ilunean.

Izeba Emiliri deitu nion; eta Errenderian elkartu ginen. Zehatz-mehatz azaldu zidan inkontrua; eta Altza aldera inolaz ere ez azaltzeko eskatu zidan:

— Belauniko jarriko nauk oraintxe, Antton. Baiña, otoi! Ez erua izan! Ez hara juan oraingoz. Txakurrada hantxe zebillek-eta paraje haietan nor agertuko... Ziñ egidak eyaizela hara agertuko! Jainkuaren izenian, Antton! Agindu egidak hori!

— Ederki! Enaiz hara joango.

— Beste gauza bat esan behar nian aspaldidanik. Bestaldetik, Baionan bidalirik, hiru eskutitz besterik eyuan hona etorri.

— Eta gaiñerakuak?

— Horixe etzekiat. Hiru jaso genizkian haseran. Eta gero, Aita Otaduik Arantzazutik orain dela bizpahiru hillabete deittu arte, hire arrastorik ez. Gure lagunek «ongi» henbillela esan ohi zidaaten; baiña xehetasunik ez. Bi aste osoz egon omen yituan txakurrak, Fernández del Campo inguru hartan, hi hara juan zai. Eyintzen hara azaldu. Beharrik!

— Gero gertatu ziren gerokoak.

— Ixo! Ezin gogorkiago jokatu duk. Eta horrek harrotu egin gaitik familiako guztiok, hire aita eta osaba barne.

— Benetan?

— Siñistuta egon! Halaxe duk-eta. Orain, nolana ere, oso kontuz ibilli behar duk. Txakurradak bazekik hor nonbait ibillia haizela. Frogak falta dizkik. Bestalde ere, hi libro lagata, «soka» gotor eta luze baten esperoan egin dik. Kontuz, beraz!

— Bai, bai. Badakit.

— Amona Ageda hil zenik ba al dakik?

Hura sospresa!

— Lasai egon. Gauzak zeuden egoeran egonda, zertarako esango? Nola esango? Antiguako komandantziara eraman hinduten egun berean hil yuan bera.

— Enekieen ezer.

— Ba, orain badakik. Hantxe lurperatu diagu, Altzako kanposantuan, Urdanpilletatarren hilobietan. Halako batez (baiña ez oraiñ) handik pasatzen baldin bahaiz, harrian idatzitako izena irakurtzeko aukera izango duk. Euskaraz jarri diagu, jakina!

— Noiz hil zen bera?

— Esan diat. Hi harrapatu hinduten egun berean: Iraillaren 8an.

— Hiru hillabete jua dira, beraz.

— Hala duk bizia, Antton. Ez kezka hire isillaldia-gatik: denek ulertu ziaten.

Handik egun batzutara, eta Jaki eta beronen erantzuna etorri zai nengoelarik, Izeba Emili etorri zitzaidan berriro lantegira:

— Hau eztuk bidia; eta higana bidali nautenek ongi zekitek.

Altzibar-enera hurbildu gara biok:

— Denborarik galtzerik eztagoela esan zidatek, eta datorren gertakariak eztiela beste biderik utzi. Eta hiretzat agindu bakar hau eman zidatek: berehala, aste-buru honetantxe beranduenik, mugaz bestaldera juateko. Etzidatek besterik argitu. Baiña, edozeren gaiñetik, edozeren gaiñetik azpimarratu ditek, edozeren gain, aittu al duk?, hemendik hanka egiteko.

— Nora-edo zehaztu dute?

— Ezer ez. Bestaldera pasatzeko. Besterik ez.

Berriro gezurretan eta izkuturekian ibiltzeko gogorik ez nuela, eta lantegitik irteterakoan bertan Bengoetxeagana joan naiz:

— Barka zazu! Ongi jokatu duzu nirekin; eta horregatik natorkizu orain besteri emango ez niokeen azalpena ematera. Aste honetantxe egin behar dut alde. Gerokoan, beraz, ez nirekin konda. Oraintxe joanez, eta dugun lana ikusita, aldrebeskeria bat egiten dizut. Konturatzen naiz. Azkena izango da, dena dela. Nire geroa aidean dago, eta badakit. Hartzazu beste langile bat, eta kitto. Eta eskerrik asko, bihotzez.

— Baiña... baiña, mutilla... zerk hartu hau oraingoan? Zer gertatzen zaik?

— Aurki ulertuko duzu erabaki hau. Baiña ez nitaz edo nire erabaki honetaz oraingoz ezer esan. Agur betirako.

— Eta hirekiko zorrak? Hemen lan egin duk aste hauetan...

— Helarazi ezaiozu amari nire soldata hori. Eskertu egingo dizu. Agur t'erdí!

Etxen ere, afalondoan, jator eta diximulurik gabe esan diet egia. Ama hasi da negarrez; eta aitta hitzik esan gabe erretiratu da. Nire anai-arrebek, berriz, izaturik begiratu naute.

— Gogorra da; badakit. Eta ez zuentzat bakarrik. Hobe da egia aurrez aurretik begiratzea. Arrisku larritan bide nago; badakizue, gau minian hor abandonaturik uztia... Eta banua bestaldera. Abisatu egingo dizuet zerbait handik. Hobe dut joatia, benetan.

Igandean pasa nuen Nafarroako muga, eta afal orduko Hendaian nengoen, «Hondar-gain»enean.

Sartzerakoan aurpegi berriak topatu nituen; eta, nolahi ere, bestetan baino harrera beroagoa egin zidatela iruditu zitzaidan.

Lehenengo oztopoa, halere, ez zen luzatu:

— La casa está llena. En este momento estamos aquí catorce personas. Hay ya dos durmiendo en el pasillo de abajo, y uno en el de arriba. En simples petates... Parece que allí ha habido orden de retirada general...

Hala ematen zuen.

Beste petate zatar batean jarri ninduten beheko pausagunean: ia-ia lur gorrian, beraz. Baina primeran lo egin nuen. Hura barne-lasaitasuna!

Halako lotsa apur batez azaldu nizkien neure gorabeherak; xehetasunik gabe, dena dela. Zenbaiten aurpegietan, gairiditu eta izkutatu ezinezko ikara-keinu aldrebesak erreparatu nituen. Benetan: entzuleak mutu gel-

ditzen ziren. Harrotu egiten ninduen honek, jakina; baina, harrotasun izpi horiekin batera, nigan gorrotolatuak sortzen zirela nabaitzen nuen; herra-olatu gaitzak, mendeku-behar gorriak, azkeneko gupida-aztarnak bortizki irentsi nahian. Eguberriak pasatzekotan «Hendaye-Plage»ra agertutako frantses dotore eta narziso haiek «Avenue des Magnolias»ean eta plaza boro-borean topatzerakoan, potroetan ostikoka hasteko gogoa nekez menderatzen nuen. Haiek piztiak! Ispiluaren aurrean ikusten bide nituen: «Jertse urdin honekin oso polita nago!». Hamabost urtetako neskatila ergel inozoak baino okerrago? Haiek arrak? Tira, tira! Bareak baino okaztagarriago...

— Hay que estar atentos a los acontecimientos — esan zidaten—. Se cuece algo gordo.

«Hondar-gain»eneko bi lagunekin irten nintzen biharamon goizean. Txingudiko kolkoa inguratuz, eta aurrean Irun eta eskuinaldean Hondarribia tarteka baizik ikusten ez nituelarik, Hendaiako erdi aldera abiatu ginen, euripean. Euria ari baitzuen erruz azkeneko orduetan. Blai zegoen dena, eta hodei trinkoek estaltzen zituzten bazterrak. Aideportua bera ere erdika baizik ez zen ageri lañope busti hartan.

«La Voz» erosi nuen «Erro»enean, eta beste bi lagunek «La Gaceta»; eta letra nagusitan segituan irakurri: «El patrón ondarrés Ochoantesana detenido por tráfico de armas»... Eta beherago: «Dos cajas llenas de metralletas, interceptadas»...

— Gureak ziur!... Beste putakeria bat!... Beste bat!!

Aurrerago begiratu genuen: «Homenaje en Tolosa a Isaac López Mendizábal, patriarca de las letras vascas, a sus 94 años»...

— Menos homenajes a ancianos inútiles, y más hos-

tias! —bota zuen Markoxek su bizitan.

Egia aitortzekotan, «Ixaka» hura nor zen ez zekien gutako inork. Prentsako azalpenak irakurri ondoren konturatu ginen senton hura Gipuzkoako abertzaletasunaren aita izana zela, eta urte pila pasa zuela deserrian, bera ere Franco hil zai... Ez genekien. Eta Markoxen esana, beraz, gogortxoegi iruditu zitzaidan. Gogortxo bakarrik. Leporaino ginen zaharren trabez eta ukazioez: «zaharrak, zaharrak... hobe litekek gazteei bide dea libro utzi».

Egia bide zen, nolana ere, ihesaldi orokorrarena: aspaldi hartan ez ikusitako aurpegiak, berriro ikusten ziren Hendaian, paseiari: Maddi-renean, «Hendayais»enean, «Chita»enean, «Océanic»enean, bazter guztietan, Hegoaldeko errefuxiatuak erruz ageri, nagusi erabat. Hendaiarrak berak ozta-ozta irteten baitira etxetik. Hegoaldekook maite dugu baxoerdika ibiltzea. Iparraldekoek aski dute «Intervilles» bat telebistan etxen begiratzea. Frantsesek hori egiten baitute...

Lagunekin lasai tabernaz taberna berriro ibili ahal izatea, euri jasa gaitzek bustirik ere, zoragarri iruditu zitzaidan, bizkorgarri, bizi-iturburu.

Gertatutakoak oro, atzean utzita, lokamuts hits gisa ezabatzen bide ziren.

«Hondar-gain»en gau eta egun zegoen pizturik irratia. Zai geunden denok, dudarik ez.

Hots, ostegunean, Abenduaren 20ko goizean, sekulako garrasi mordo batek estali zuen irratiaaren soinua: «¡Hostias! ¡Carrero a tomar por culo!»...

Malkoak nabaitu ditut begietan.

Ez bat eta ez bi, erdi aldera abiatu gara multzotan. Zertarako? Ez genekien. Jendea ikusi nahi genuen; «So-

koa» etxe handikoak, Lauriers karrikakoak, Hondarraitz hondartzaren ondokoak, Behobirako bide ondoko etxeetakoak, denak, elizaren ondoko plazara heldu gara taldetan. Aldapa labur hura jaitsi, eta Maddi-renean elkartu gara:

— Atera txanpaña denontzat! Badakizu: ausarki!

Besotik helduta sartzen ziren denak, kantari batzu, garrasi bizian beste batzu; eta barnekoei egundoko besarkadak ematen:

— ¡Ha sido la organización! —ziurtatu du Markokex—. Gora Euskadi Askatuta!... Gora ETA!...

— Gora!! —hogei bat ahotsek.

Irratia piztuta zegoen Hendaiako bazter guztietan. «Parece que se trata de una fuga de gas, que ha originado una bolsa subterránea»...

— Joan hadi porkulo hartzera, hi!... —batek.

— Apaga esa mierda, Maddi —beste batek.

Hendaiako erefluxiatuen artean hiruzpalau talde eratu dira, gero, arratsean, elkarrekin afaltzeko, eta gertakaria batera ospatzeko. «Hondar-gain»eneko batzuri «Lauriers» karrikako etxe batean elkartzea tokatu zaigu, Iratzustatarren etxe azpian. Eta hara bildu gara hogeitatu lagun; eta pozkariotan eta erruz jan eta edan.

— Oraindik errebindikaziorik ez. Zeren zai daude ba? Goazen Paris irratia entzutera. Hamaitetako berrietan esango dute zerbait, agian.

Berriak eman dituzte. Eta halako batez, bukatzerakoan:

— Ixo! Ixo!!

«Nos llega en estos momentos un comunicado de ETA fechado en»...

— Ixo! Laputa!

Alferrik. Ez dugu besterik ezertxo ere entzun. Batzu «Eusko gudariak» kantatzen hasi dira; beste batzu, ezin sosegaturik, mahai gaina derrefente hustu, eta dantzari hasi dira edozein mementutan erortzeko moduan. Hura erotu beharra!

Kalera irten gara; eta Hondarraitz aldera abiatu gara gehienok. «Gaurko eguna historikoa da. Gaur ez dugu minutu batez ere lo egin behar. Goazen dantzara, goazen zernahi egitera. Goazen edonora!!»

Nire taldekook «Kanttua» dantzatokira sartu gara; han, Hondarraitz hondartzaren ondoko etxazpi txiki batean, «Casino Mauresque» famatu eta itsusitik metro gutxitara.

Sartu gara, eta... zausk! Errefuxiatu talde batekin, edaten eta erretzen ari, Amaia topatu dut. Denok bezala bera ere iji-eta-uju, eta ezin umore hobean.

Eta ni ezertaz jabetu orduko, nigana hurbildu da, eta txanpaña kopa bat eskainiz, lepo atzetik heldu beste eskuaz, eta musu luze bat eman dit ezpainetan:

— Hi! Hemen gaitun besteok ere... Zer da hori? — entzun da han.

— Dantza egin nahi duzu nirekin? —proposatu dit.

— Noski! —nik—. Baina oso gaizki egiten dut. Ez-takit...

— Berdin duk. Gaur ongi moldatuko haiz. Baietz!

— Hori ere egia dun. Gaur... zernahi!

Eta bere bi besoak nire lepoaren atzetik pasa, eta elkarri hitzik esan gabe hasi gara dantzan.

Neure gorputzaren luzera guztian senditzen nuen Amaiaren berotasun kilikagarria; eta sintomak kanpotik nabarmenegi ageri zitezen nengoen beldurrak, nire odolak irakin egiten baitzuen zinez.

— Amaia... zu hemen... nork esango?...

— Ixo! —Eta beste musu bero bat eman dit ezpainenetan. Eta oraino ere bertago senditu dut haren gorputz malgua.

— Zu etzara Amaia! Ziur nago.

— Ez. Asmatu egin zenuen. Eta zu Pepe ere ez. Zu Antton «Exkixu» zara. Ezta hori?... Etzait ahaztu!

Hura sospresa nirea!

— Nola duzu izena, beraz?

— Ni Axen nauzu, Axen Ondikola... Gaizki egiten ari gara biok; baina errua zuk duzu.

— Seguru?

— Hara! Nerea al da, hortaz, errua? Hori falta genian!

Aldatu egin da erritmoa, horretan; eta polikiago hasi:

— Hauxe da maiteen dudan kanta... «Strangers in the night»... Eztuzu ezagutzen? Aspaldikoa da, zortzi bat urte bai.

— Zerbait, bai.

— Ixo! Entzun dezagun. Oso ederra da.

Eta bere aurpegia nirearen kontra jarri du. Eta atsegin olatu hazkor hartan, nigan zerbaitek leher egin behar zuela sinetsi dut:

— Axen!

— Ixo! Entzun!

— Gauza bat bakarrik, Axen.

— Zein?

Isilune bat gertatu da gure artean.

— Zer, beraz? Segi...

— Enuela uste berriro inoiz ikusiko zintudanik.

— Eztuk inoiz etsi behar, motel.

— Eta uste horrek...ba, tristatu egin nauela erruz Landetako ikastaldian utzi zintudanez geroztik.

Ahaztu ere egin naiz neure lagunez. Han ote zeuden ere ez nekien. Inoiz ere askatzen ez nituen esku be-roak ziren ene tema iraunkorra.

— Non zaude hemen, Axen? —galdetu diot bat-ba-tean.

— Bakarrik nago.

Zorabioa senditu dut: «ausartuko al naiz?»

— Nola... bakarrik?

— Bakarrik nago hemen... Andereño egon naiz To-losan urte batzutan. Eta egun hauetan hemen nago, ba-karrik. Izatez zarauztarra naiz.

Ez nekien nola esan.

— «Seaska»ko andereño baten etxian sartu naiz egun hauetan —ekin dio berak—. Bera eta bere mutilla Bor-dalera joan dira etzidamu arte, eta... horregatik nago bakarrik.

Beroaldi betetik, hotzaldira aldatu naiz: «esan egin behar diot». Eta barne-indar bitxi batek bultzaturik, de-blauki proposatu diot:

— Gaur elkarrekin pasako dugu gaua.

Nire hotzikara sendituko ote zuen beldurrak nen-goen:

— Ixo! Kanta hau ere oso polita da. Entzun!

Oraindik ezin nezakeen sinets; baina neure bizieran lehenengo aldiz gaua emakume baten ondoan pasako nuela somatu nuen.

— Eta, non hori?

— Urrunsko. Baina berdin da. Bere kotxia ere utzi dit juterakuan, eta berak itzuli arte.

«Hau baiezkoa duk, Antton! Zorionak!», pentsatu dut.

Zerraldo eroriko ote nintzen bururatu zait. Baina eut-si egin diot egoera berriari...

Etxetxea Azkainen zegoen: «Joanesenia». Hendaian bezala Azkainen ere neguterako alogeratzen ziren bertako xaletak eta baserri-ohiak.

Gaua luzea izan zen, txit luzea. Atsegin gailur harriarren artean, dena kondatu genion elkarri. Zerua dastatu genuen, zinez; eta sexu-pozaren sakonak eta osoak, xamurtuta utzi gintuen biok. Ez zen hura maitasuna izan, agian; baina nekez erabil daiteke maizago eta gogozago «maite» hitza, ahantzi ezinezko hartan guk erabili genuen baino.

Biharamonean kotxea hartu, eta Zubero aldera joan ginen:

— Hiru egun dittugu, hiru bakarrik —esaten zidan Axenek—. Zoriontsu egin nauzu, Antton. Mukurru bete ditzagun egun hauek.

Eta Iratiko «xalet» haietako batean sartu ginen, Larrañen gora.

Orhi tontorra genuen geure zoriontasunaren lekuko aparta.

Aurreko egunetan eroritako elurra, hantxe zegoen, tinko. Bideak labain agertzen ziren, eta denda poligonal hartara iristen ginenok, hantxe geundenok ez beste ginen. Iparraldeko batzu, frantses mordo bat, eta gu giputz usakume galduok.

Ohean pasa genituen egunak, egunetako hiru laurdenak gutxienez. Hura eroaldia! Hura egarria! Basoan barrena ibilalditxo bat egin, jateko zerbait korrika pres-tatu, jangartzu erdizka baizik ez amaitu; eta berriro, biok elkarri ezpainetan beretan zerbait esan, eta ohera berri-ro. Ez ginen asetzen.

Eta ahaztu egin genituen bai Zumalakarregiko mainu-gela hitsa, bai Carreroren jasokunde miresgarria,

eta bai txabola hartaz kanpoko gertakariak oro.

Eta Iratiko baso zabal hura, eta bideska ezinago zuri haiek, eta beherean piskanaka agertzen hasten ziren arbelezko teilatu beltz haiek, eta txori-aztarnak elur gainaldean utzirik, eta etxe barruko erre usain sarkorra, eta ilunabar goiztar haien isilpe osoa, eta dena Axenen algaratan eta esan ezinezko aitorretan itorik, barne-muinetaraino sartu zitzaizkidan.

«Nire laztana zara» hitzak, haize-bala finekin batera errepikaturik, iltzaturik geratu dira nigan betirako.

Baina hostorik gabeko adar soil haiek ere, neguzantzu garratzak ekarri zizkidaten.

Eta Axeni inoiz aitortu ez banion ere, Eustakio eta Artetxe neuzkan gogoan etengabe; zorion betean ezpata mingots gisa erroturik.

Baina hamaika aldiz esan nion neure buruari: gure herriak ez dauka beste irtenbiderik. Aurrera, beraz!

— Pero... ¿dónde te has metido estos días, gudari?
—galdetu didate «Hondar-gain»en lagun zaharrek.

— Hortik —erantzun diet lehorki.

— ¿Eso es todo?

— Eso es todo —nik.

— Hoy por la tarde llegan tus padres, que vienen a pasar la Nochebuena contigo. Vienen también otros padres; por lo que cenaremos todos juntos, unos veinticinco. Habrá que apretarse.

— Ese no es problema.

— Ha venido a buscarte un compañero (y van dos veces en dos días); de la organización, supongo, que ha venido por aquí en otras ocasiones. Gizon sendo bat. Me ha dicho que volverá el sábado, a primera hora de la mañana.

— Vale.

Egunkari pilo bat topatu nuen «Hondar-gain»en, denak Espainia aldekoak («La Voz», «El Correo», eta an-

tzekoak, prentsa espāñoltzat izan nituen beti); eta gauza nabarmena zen Frantziak, Madrileko gobernuaren eskabideei amore emanaz, kolpe gogorren bat eman nahi zuela errefuxiatuen artean.

Dena «en el Sur de Francia» antolatzen zela errepikatzen zuten Madrilen aspertu ere arte.

Madrileko manifestazio jendetsuetan, bestalde, «El Ejército al Poder» izan omen zen oihu nagusia; eta berorien bukaeran, Madrilen eta probintzietan, «Cara al sol» delakoa kantatu omen zen.

Torcuato Fernández de Mirandaren esanek ere, garbi utzi dute ultren arteko giroa: «No es hora de palabras. El pueblo español sabe que nunca tuvo nada que ver con los cobardes».

Eta USAko Sekretari orokorra den Henry Kissinger-ek, garbiki adierazi du bere iritzia: «Mendebalderri gutzirako galera tragikoa izan da Carrero Blancoren hilketak».

Parisko gobernuaren erabakiek kezkatzen gintuen gu gehienik; ETAk Talence-ko etxean eskainitako prentsa-aurrekoa aitzaki harturik, ondoriozko kanporaketen zai baikeunden denok. Gorago ere esana dut: «El atentado había sido preparado cautelosamente en el Sur de Francia». Hortaz, Frantziak jo behar zuen Iparraldean; eta gogor jo.

Eta Abenduaren 30ean bertan ezagutu ziren errefuxiatuen arteko lehenengo zortzi espulsatuen izenak: Etxabe, Zumalde, Blasco, Lujua, Urrutia, Akizu, Pérez Revilla eta Villar (azkeneko bi hauek etxetik aldeginik, eta ezin arrestatuak).

«Hasi dituk», pentsatu dugu denok ahobatez. «Hemen ez duk aurrerakoan inortxo ere salbatuko. Errefu-

xiatuenak egin dik Iparraldean».

Nola erantzungo?

Bilerak egiten hasi gara. Zer egingo «gogor erantzuteko»? Gose-oporra baizik ez genuen ikusten, gose opor zabal bat, jende askorena; aurreko urteetan Katedralean ikusitako hirurak baino gogorragoa. Hitz batez, irlandar abertzaleen ezpalekoa, gutako batzu hil arte eramana.

Ez ziren denak iritzi honetakoak. Hiltzekotan, esaten genuen kontrakook, norbait eraman behar da aurretik. Eta joera hau gero eta indartsuagoa zen ETako errefuxiatuen artean.

Horretan ginelarik, eta Urteberriko arratsaldean, berri pozgarri bat iritsi zitzaigun: hiru Ipartar sartuak zirela gose-greban Baionako Katedralean (neska bat eta bi mutil); eta gehiago ere sartuko zirela ondoko egunetan.

— Nik eztiat gose-oporrik egin nahi —esan nion Moniqueri—. Eta are gutxiago bertan hiltzeko asmotan hasita. Tira, tira! Lehenguan ere esan nian: enegok prest beste masailla debaldetan eskaintzeko... Baina prest negok, desiratzen hobe, egurra galanki emateko, eta hartu beharko ditudan arriskuak jakiñaren gaiñean hartuz.

— Bazekiat —erantzun zidan Moniquek—. Goikoei aipatu zieat hire jarrera; eta datorren astean elkartuko zarete «Itsasondo» talde berriko hirurok.

— Bapo! Hori bai.

Ehun bat lagunetako multzo handi bat antolatu zen. Axen ere, organizazioaren bidez jakin nuenez, beste zortzi bat emakumerekin, gose-opor gogor hartan parte hartzekotan gelditu zen; bera ere «azkeneraino» eusteko prest.

Agurtu egin nahi nuen; baina bera Azkaingo «Joa nesenia»tik joatean «urrutira» joatekoa zela nekielako,

alferrik zen saiatzea.

Ni berriz, Hegoaldera «berehala» pasatzekotan nengoen. Zer egingo?

Gaueko errondak egiteko taldeak izendatu ziren, eta gauza bera paskinak idazteko eta zabaltzekoak.

Bat-batean, horrela, ehun bat lagun sartu ziren Katedralean; gehienak Hegoaldekoak.

Ez zen Euskal Herriko kondairan horrelakorik behin ere ikusi.

Katedralean, aurreko atarian, paskin piloak ugari; eta barrukaldean, mahai ttipi baten gainean, liburu zabal bat beren adostasuna erakutsi nahiko zuten guztien sinadurak bilzeko.

Eta ni neu ere, Katedralera hurbildu nintzen. Etsenplu txarra ematera, eta honetxek amorratzen ninduen: etzanda zeutzan grebalariek ez baitzekiten ni berehala «barrura» joatekoa nintzenik.

Eskuin aldeko kaperan, petate zatar batean etzanda, eta ia-ia ilunpe osoan, grebalarien multzo ugaria topatu nuen. Eta hantxe ere, hura zorabioa, hogeit bat egun hartan behin ere ikusia ez nuen Axen maitea.

Eta artez hurbildu natzaio:

— Maitea!

— Kontuz, Antton! Jende asko dago hemen.

Nik orduan masailean musu bero bat eman ondoren, ahapeka esan diot belarrira:

— Bihotzaren erditik maite zaitut.

— Nik ere bai —berak ere isilka.

— Zein luzeak izan zaizkidan egun hauek!

— Niri ere bai.

Baztar guztietan ur botilak ageri ziren.

— Ni enaiz greban sartuko. Etzaittut batere harri-zen, jakina.

— Somatua neukan, noski.

— Barrura noa... berehala. Bihar agian. Esan nizun: hitlzekotan , ez txoriak bezala.

Begietara begiratu dit Axenek, batera herabe eta begirada urtsuago bilakatzen zitzaiolarik:

— Antton!... Beldur naiz!...

— Lasai, neska.

— Noiz pasako duzue muga?

— Egia esateko: bihar bertan. Baina ez ezer aipa.

— Bihar?

— Bai.

Isilune luze bat gertatu zen gure artean. Organoaren notak ozenki hedatzen ziren Katedralean.

— Hau ekarri dizut, Axen. Irakurtzazu lotarakuan, Katedraleko atiak hetsiko dituztenian. Eta gero txiki-txiki egin, eta iñolako nagikeriarik gabe, komunetik behera bota. Aginduta?

— Aginduta. Baiña... emaidazu eskua segundu batez.

Izoztuta zeukan, eta dardarizu betean:

— Beldurra nago, Antton.

— Ezpa, ez tentela izan. Emakume gogorra ziñala uste nuen. Eta badakizu nik bezain ongi: eztago bi biderik.

Gure begiradak, disimuluan, luzaz elkartu dira, oso luzaz; eta eskuak loturik egon dira horretan guztian. Eta hitzik gabeko elkarrizketa etsi hartan, dar-dar xume bat nabaitu dut Axenen betazal segailetan.

— Hurren arte, Axen... Eutsi goiari! Lagun-talde gogorra bildu zerate. Eztuzue amore emango, eta frantsesek atzera egingo dute. Ezta zuetako iñor hemengo Cork-

-eko alkatiaren jarraitzaile izango. Ezta behar ere.

— Maitte zaittut, Antton.

— Nik ere bai.

Eta azkarregi amaitu den musu bat eman diot ez-painetan.

Azkeneko mementuraino jarraitu nau begiradaz.

Nik eskuaz agurtu dut azkeneko aldiz kaperako atetik. Berak, aldiz, begiradaz agurtu nau, inolako keinurik egin gabe.

Hona hemen, bere osoan, katedralean eman nion eskutitza:

«Iparraldean, 1974eko Urtarrilaren 21ean.

Agur, bihotza:

Ez dakit berriro noiz ikusiko zaitudan.

Baina barne-muinean eramaten zaitut. Ez nuen us-te honelakorik senditzeko gauza nintzenik ere. Hau sumina!

Iratiko egonalditxoa izan da ene gailurra; eta ezerk ez du gailenduko. Seguru dakit. Ez dago hitzik, benetan, zurekin dastatu dudan mundu berri hura azaltzeko.

Maitea: Iratiko txabola hartan, basoan barreneko bideska zuri haietan, zuk jaio nauzu. Osotara jaio; hara zurekin joan artean bizi gabe egon banintz bezala.

Gauza bat aitortuko dizut: Katedraleko gose-opor miresgarri horrek beldur ematen dit. Ez zuetako bat edo beste gosearen ondorioz hilko delakoan. Ez da hori.

Beti izango duzue, aurreko gose-oporretan bezala,

atarian eta barruko gorapean, zeuen aldeko multzo zaindaria.

Baina txakurrada erotuta dabil, eta Carrerorena nola edo hala mendekatu nahirik. Oso erraza dute, ene us-tez, zuen kaperan tiro-andana bat botatzea; eta orduan txoriak bezalaxe hilko lirateke zuetako batzu. Erne ibi-li, arren!

Horregatik, eta horrelako beste hamaika arrazoinen-gatik, ez nengoen ni prest hor sartzeko. Ondarretako ger-takari latzen ondoren batez ere, «garbitu» egin nahi dut zakurren bat. Bat baino hobe bi, jakina. Gainerako guz-tia, barka ene zakarrerria hau, folklore hutsa iruditzen zait; Katedralako gose-greba barne.

Organizazioan, ikusi dudanez, xuxen ulertu dute ene jarrera. Eta beste bi borrokakide gogorrekin jarri nau-te harremanetan. Ez dakit batere nor diren. Hobe hola.

Bihar pasako dut muga; eta lehenengo ekintza txakurradaren konboi baten aurka izango da. Martutene-ko gartzelara doan erreleboa nondik pasatzen den zain-duta dago aspaldidanik; eta ihespidea ere, konpreni de-zakezunez, segurua da. Muga ez baita urrun.

Barka zazu xehetasun gehiago izkribuz ez ematea. Baina bidean jarriko dugu lehergailua: handia, indar-tsua, oso indartsua, inguru guztia xehatzeko modukoa. Hirurok han egongo gara, zai, begira, gitarraz hornitu-rik.

Elektrikoki zartaraziko dugu lehergailua. Eta segi-dan, inolako atsedenaldirik utzi gabe, gitarraz hasiko ga-rra, hiru leku desberdinetatik batera, kargadore guztiak hustu arte.

Ez da posible ekintza hau gaizki gertatzea. Ez daki honetaz inork ezertxo ere. Lasaiago noa ni inkontru ho-rretara, Katedralera joango nintzatekeen baino. Benetan!

Bihotzaren erdian eramaten zaitut, kuttuna. Zer gerta ere, zu zaude nire barruan; eta beti egongo. Ez zaitut inoiz, ez inolaz ere, ahaztuko. Ez da nigan zutaz besterik inor izango sekula.

Eutsi goiari.

Benetan, Axen: maite zaitut».

Bazekien Moniquek berri hitsa Paris-Irratian entzun baino lehenago.

Eta «Lastur» lokarri ofizialaren bidez iritsi zitzaizkion xehetasunek, ez zuten funtsean ezer aldatu.

Astigarragako inguruetan gertatu zela inkontrua.

Martutene aldera zihoan lehenengo Aviak hartu bide zuen eztandaren ondoko kalterik larriena; eta beronen ondorioz lau polizia furgonetatik aurtiki, eta metrailaz zauriturik eraman zituzten ospitalera.

Leherketaren ondoren, tenk gelditu ziren zaindari zetozen beste bi Aviak; eta horren segidan gertatu zen tirokaldian, bi «terrorista» zauriturik, baina ihesi; eta goardazibil bat hilik: Justo Horcajo, izenekoa, eta organizazioko mutil bat hilik: «Antonio Arraiza, alias Eskisu, de 22 años de edad, residente en Pasajes-Ancho». Beronek, sasi artean izkutaturik, lau kargadore oso hustu zituen inkontruan; eta, gorputza aurkitzean, goitik behera dozena bat bala-zuloz deseginik agertu zen.